

# 2007

## EAEko

# EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV.PLANA

## BOTERE PUBLIKOEN ALORREAN GAUZATZEARI BURUZKO JARDUERA TXOSTENA



eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**EAEko EMAKUMEEN ETA GIZONEN  
BERDINTASUNERAKO IV. PLANA BOTERE  
PUBLIKOEN ALORREAN GAUZATZEARI BURUZKO  
JARDUERA TXOSTENA VIII. LEGEALDIKO  
JARRAIBIDEAK  
(2007. URTEA)**

**Ikertzaile nagusia:** Ainara Arnoso Martínez doktorea

**Koordinatzailea:** Maribel Pizarro Pacheco

Laura Gómez Hernández

Idoia Larrañaga Hernández

Aitor Aritzeta Galán doktorea

Gizarte Psikologia eta

Portaera Zientzien Metodologia Saila

**Donostia, 2007ko maiatza**

# AURKIBIDEA

Orrialdea

<b>SARRERA</b> .....	3
----------------------	---

## **I. METODOLOGIA ETA ERAKUNDE PUBLIKOEN PARTE-HARTZEA EBALUAZIOAN**

### **A. METODOLOGIA**

1. EBALUAZIO-HELBURUAK .....	5
2. EBALUAZIO MOTA .....	5
3. INFORMAZIOA BILTZEKO ERABILITAKO BALIABIDEAK .....	6
4. LANDA-LANAREN DISEINUA .....	6

### **B. ERAKUNDE PUBLIKOEN PARTE-HARTZEA EBALUAZIOAN**

1. IV. PLANA EGIKARITZEKO ARDURA DUTEN ERAKUNDEAK .....	7
2. ERAKUNDE PUBLIKOEN PARTE-HARTZEA EBALUAZIOAN .....	9

## **II. IV. PLANAREN EBALUAZIOAN LORTUTAKO EMAITZAK**

1. EGINDAKO JARDUEREN EZAUGARRI NAGUSIAK .....	15
2. ARDATZ ESTRATEGIKOETAN EGINDAKO JARDUEREN AZTERKETA .....	25
3. LORTUTAKO IV. PLANAREN EXEKUZIO-MAILA .....	33
4. IV. PLANA EZARTZEKO ERABILITAKO NEURRIAK.....	37
4.1. Sustapenarekin eta koordinazioarekin zerikusia duten neurriak.....	37
4.2. Programazioa eta Ebaluazioa .....	41
5. ERAKUNDE PUBLIKOETAN GENERO-IKUSPEGIA SARTZEA SUSTATZEKO EGINDAKO JARDUERAK.....	46
6. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO POLITIKA SEKTORIALAK ETA ZEHARKAKO POLITIKAK .....	63

<b>III. LORTUTAKO EMAITZEN LABURPENA</b> .....	82
--	----

<b>IV. ONDORIOAK</b> .....	106
----------------------------	-----

## **ERANSKINAK**

## **SARRERA**

Txosten honen helburua da botere publikoek Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Plana dela-eta 2007an burututako jarduerak aurkeztea. Plana Gobernu Kontseiluak onartu zuen, 2006ko irailaren 26an egindako saioan.

Emakunde-Emakumearen Euskal Institutuak, UPV/EHUko Psikologia Fakultateko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Sailari eskatu zion IV. Planaren ebaluazioa egiteko. Ebaluazioa Emakundek eta Euskal Herriko Unibertsitateak horretarako sinatutako hitzarmen markoaren babesean egin da; hitzarmena bost urterako sinatu zuten: 2006-2010. Hala, Emakundek IV. Plana bultzatzeko eta koordinatzeko eginkizunak bete ditu, bai eta plan horren jarraipena eta ebaluazio orokorra burutu ere

Ebaluazio horretan lortutako emaitzak bost zatitan egituratu dira:

I. zatian, burututako ebaluazioaren metodologiaren inguruko gaiak jorratzen dira, labur-labur. Horrez gainera, erakunde publikoek ebaluazioan izandako parte-hartzeari buruzko datuak ere ematen dira.

II. zatian, lortutako emaitzak azaltzen dira. Sei atal ditu zati horrek: botere publiko guztiek burututako jardueren ezaugarri orokorrak; ardatz estrategikoetan egindako jardueren azterketa; lortutako IV. Planean lortutako exekuzio-maila; IV. Plana ezartzeko neurriak; erakunde publikoek beren politiketan genero-ikuspegia integratzen laguntzeko egin diren jarduerak; eta botere publikoek egindako berdintasunerako politika sektorialak eta zeharkako politikak.

III. zatian, Txosteneko aurreko atal bakoitzeko datu aipagarrienak sartzten dira, administrazioaren joeren eta berdintasun politikak gauzatzeko erabili diren baliabideen berri emateko.

Eta IV. zatian, balorazio orokor bat egiten da, Euskal Administrazio Publikoak emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2007an egindako politiken inguruan.

# **I. METODOLOGIA ETA ERAKUNDE PUBLIKOEN PARTE-HARTZEA EBALUAZIOAN**

Lehenik, ebaluazio-metodologiari buruz hitz egiten du, eta ondoren, erakunde publikoek IV. Planaren ebaluazioan zer parte-hartze izan duten azaltzen da.

## **A. METODOLOGIA**

### **1. EBALUAZIO-HELBURUAK**

Ebaluazioaren *helburu orokorra* da botere publikoek administrazioaren hiru mailetan (Administrazio Orokorra, eta Foru eta Tokiko Administrazioa) IV. Planarekin lotuta gauzatu dituzten urteko jardueren berri izatea.

Helburu zehatzak, berriz, hauek dira:

- Ardatz estrategikoei, arloei, programei eta proposatutako helburuei dagokionez, lortutako exekuzio-mailaren berri izatea.
- EAEko herri administrazioetako erakundeek Plana gauzatzeko zuten ardura zenbateraino bete duten azaltzea.
- IV. Planean jasotako helburuen exekuzio-maila aztertzea.
- Jarduerak ebaluatzea, erakunde publikoen urteko plangintzak bideratzeko.

### **2. EBALUAZIO MOTA**

Aurkezten den ebaluazioak ezaugarri hauek ditu:

- Funtsean, ebaluazio *sumatiboa* da. Izan ere, Planaren emaitzei edo eraginei buruz bildutako informazioa honetarako erabiliko da: Legebiltzarrari kontuak emateko; Plana indarrean dagoen urte bakoitzeko laburpena egiteko; eta hurrengo Planaren diseinuari buruzko erabakiak hartzeko. Dena den, ebaluazioak ere badu *nolabaiteko izaera osatzalilea*. Hain zuzen, urtero egindako ebaluazioek erakunde publikoen urteko plangintzak bidera ditzakete, bai eta EAEko herri administrazioek ebaluazioan duten konpromisoa areagotzeko estrategiak diseinatzeko lagundu ere.
- *Post-facto* ebaluazioa da, IV. Planaren indarraldia hasi eta gero egin delako.

- *Kanpo ebaluazioa* da, UPV/EHUko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saileko ikertzaile talde batek egin baitu.
- *Inplementazioaren ebaluazioa* egin da, IV. Planaren exekuzioaren jarraipena eginez. Horretarako botere publikoek ardatz estrategikoekin, arloekin, programekin, IV. Planean jasotako helburuekin, eta aurreikusitako ekintzekin (gomendatutakoak ere) lotuta egindako jardueri buruzko informazioa bildu da. Ebaluazio mota horrekin funtsezko galdera hauei erantzun nahi zaie:
  - Zein da Planaren exekuzio-maila?
  - Zer neurri mota abiarazi dituzte erakunde publikoek IV. Plana ezarri ahal izateko?
  - Zer jarduera egin dituzte erakundeari genero-ikuspegia integratzen laguntzeko?
  - Berdintasunerako zer jarduera sektorial mota jarri dituzte abian?
  - Zenbateraino ari gara aurreratzen genero-ikuspegiaren aldeko lanean?

### **3. INFORMAZIOA BILTZEKO ERABILITAKO BALIABIDEAK**

Datuak biltzeko galdeketaren teknika erabili da. Zehazki, sei galdeketa diseinatu dira (ikus eranskina), IV. Planean planteatutako esku-hartzerako tresna bakoitzarentzako bana:

- Jakintza sortzea
- Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea
- Prestakuntza
- Baliabideak sortzea eta egokitzea
- Arauak sortzea eta egokitzea
- Jarraipen mekanismoak sortzea eta egokitzea.

### **4. LANDA-LANAREN DISEINUA**

2007ko abenduan, gutun bat bidali zitzaien EAEko administrazioaren hiru mailetako (Administrazio Orokorra, eta Foru eta Tokiko Administrazioa) erakunde publiko guztiei, beste erakunde publiko batzuetan ardura politiko gorena zuten pertsonei, eta ahal zen tokietan, aukera-berdintasunaren arloko teknikariei. Gutunaren bidez, 2007an Planarekin lotuta egindako

jarduerak ebaluatzeko prozesua hasiko zela informatzen zitzaien, bai eta Planarekin lotutako agiri guztiak bidali ere.

Erakunde publikoek galdeketak gutxi gorabehera hilabete bateko epean bidaliko zituztela aurreikusi zen.

## **B. ERAKUNDE PUBLIKOEN PARTE-HARTZEA EBALUAZIOAN**

Lehenik eta behin, Plana gauzatzeko ardura zuten erakunde publikoen zerrenda bat egin da, erakunde bakoitzaren jarduera-eremua eta eskumenak edozein izanda ere; eta bigarrenik, datuak eman dira, ebaluazioan parte hartu duten erakunde publikoen berri izateko, bai eta ebaluazio-fase (informazio-bilketa) horrekin zerikusia duten zenbait gai garrantzitsuri buruzko informazioa emateko ere (hala nola, ezarritako epeak betetzea, galdeketetako erantzunen kalitatea eta antzemandako zailtasunak).

### **1. IV. PLANA EGIKARITZEKO ARDURA DUTEN ERAKUNDEAK**

#### **ADMINISTRAZIO OROKORRA**

- **Eusko Jaurlaritzako sailak:** Lehendakaritza; Lehendakariordetza; Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila; Herrizaingo Saila; Industria, Merkataritza eta Turismo Saila; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila; Osasun Saila; Kultura Saila; Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila; Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila; Garraio eta Herri Lan Saila; eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila.
- **Erakunde autonomoak:** Emakunde/Emakumearen Euskal Institutua; Instituto Vasco de Administración Pública/Herri Ardulararitzaren Euskal Erakundea (IVAP/HAEE); Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT); Lanerako Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea (Osalan); Euskal Herriko Polizia Ikastegia.
- **Erakunde eta elkarte publikoak:** Osakidetza; Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua (SPRI); Energiaren Euskal Erakundea; EITB; Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte (EJIE S.A.); Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea (NEIKER, S.A.);



Itsasmendikoi; Eusko Trenbide Sarea; Euskadi Kirol Portua/Puertos Deportivos de Euskadi S.A. (EKP); Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa (IHOBE); Euskadiko Etxebizitza eta Lurra S.A. (VISESA); Euskotren; eta Egailan.

- **Beste erakunde batzuk:** Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Defentsa Erakundea, Lan Harreman Kontseilua, eta Euskal Herriko Unibertsitatea.

- **ARARTEKOA**

**FORU ADMINISTRAZIOA:** Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

**TOKIKO ADMINISTRAZIOA:** Euskadiko Udalen Elkarte (EUDEL); Arabako udalak; Bizkaiko udalak; eta Gipuzkoako udalak.

## 2. ERAKUNDE PUBLIKOEN PARTE-HARTZEA EBALUAZIOAN

Taula honetan, ebaluazioan parte hartu duten EAEko herri administrazioaren hiru mailetako (Administrazio Orokorra, Foru Administrazioa eta Tokiko Administrazioa) erakundeak adierazten dira.

---

### Administrazio Orokorra:

Eusko Jaurlaritzako sailak	12
Erakunde autonomoak	4
Erakunde eta elkarte publikoak	10
Beste erakunde batzuk	3

### Foru Administrazioa:

• Foru Aldundiak	3
------------------	---

### Tokiko Administrazioa:

• EUDEL	1
• Arabako Udalak	3
• Bizkaiko Udalak	33
• Gipuzkoako Udalak	12

**GUZTIRA** **81**

---


### Administrazio Orokorra

- **Eusko Jaurlaritzako sail** hauek hartu dute parte: Lehendakaritza; Lehendakariordetza; Ogasun eta Herri Administrazio Saila; Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila; Herrizaingo Saila; Industria, Merkataritza eta Turismo Saila; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila; Osasun Saila; Kultura Saila; Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila; Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila; Garraio eta Herri Lan Saila; eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila.

- **Erakunde autonomo** hauek bidali digute informazioa: Emakunde; Instituto Vasco de Administración Pública/Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea (IVAP/HAEE); Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT); eta Euskal Herriko Polizia Ikastegia.
- **Erakunde eta elkarte publiko** hauek ere parte hartu dute: Osakidetza; EITB; Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte (EJIE, S.A.); Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea (NEIKER, S.A.); Itsasmendikoi; Eusko Trenbide Sarea; Euskadi Kirol Portua/Puertos Deportivos de Euskadi S.A.; Ingurugiroaren Gestiorako Elkarte Publikoa (IHOBE); Euskotren; eta Egailan.

Beste erakunde batzuek ere informazioa bidali dute, hala nola hauek: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Defensa Erakundea; Euskal Herriko Unibertsitatea; eta **Arartekoa**. Arartekoak EAEko emakumeen egoerari buruzko informazioa bidali du, Eusko Jaurlaritzarentzat urtero prestatzen duen txostenetik aterata.

### *Administrazio Orokorren parte-hartzea ebaluazioan (2007)*




### **Foru Administrazioa**

Hiru foru aldundiek parte hartu dute ebaluazioan. Zehazki, sail hauek hartu dute parte:

- **Arabako Foru Aldundia (n=9 sail):** Diputatu Nagusia; Lehendakaritza; Tokiko Administrazioa; Ogasun, Finantza, eta Aurrekontu Saila; Ekonomia Sustapena eta Berrikuntzaren Kudeaketa Saila; Nekazaritza Saila; Kultura, Gazteria eta Kirol Saila; Gizarte Gaietarako Saila.
- **Bizkaiko Foru Aldundia (n=4 sail):** Ahaldu Nagusia (Aukera-berdintasunerako eta Genero-politiketarako unitatea); Udal Harremanak eta Herri Administrazioa; Nekazaritza; eta Gizarte Ekintza.
- **Gipuzkoako Foru Aldundia (n=2 sail):** Gizarte eta Erakunde Harremanak; eta Gizarte-politika.

### **Foru Administrazioaren parte-hartzea ebaluazioan (2007)**




### **Tokiko Administrazioa**

EUDELeK, Uribe Kostako (Bizkaia) eta Urola Garaiko (Gipuzkoa) mankomunitateek, eta hiru lurralde historikoetako udal hauek parte hartu dute:

- **Arabako udalak (n=3):** Gasteiz, Amurrio eta Laudio.
- **Bizkaiko udalak (n=33):** Abadiño; Abanto-Zierbena; Arrigorriaga; Balmaseda; Barakaldo; Barrika; Basauri; Berango; Bilbo; Busturia; Ermua; Galdakao; Gernika-Lumo; Getxo; Gordexola; Gorliz; Gueñes; Leioa; Lekeitio; Lemoa; Lemoiz; Mungia; Muskiz; Ondarroa; Orozko; Plentzia; Portugalete; Sestao; Sopelana; Ugao-Miraballes; Urduliz; Trapagaran; eta Zalla.
- **Gipuzkoako udalak eta mankomunitateak (n=12):** Bergara; Donostia; Eibar; Errenteria; Getaria; IrUn; Legazpia; Oiartzun; Oñati; Urretxu; Zarautz; Zumarraga.

Datuen arabera, EAEko 251 udalerrietatik 48k (%19,12k) hartu dute parte, hau da, biztanleria osoaren %72,11k (1.535.437). Grafiko honek hiru lurralde historiko bakoitzaren datuak adierazten ditu.

***Ebaluazioan parte hartu duten hiru probintzietako udalen ehunekoa, eta ordezkatutako biztanleen ehunekoa (2007)***



Aipatutako 48 udalez gain, beste 32 udalek jakinarazi zuten ez zituztela galdeketak bete, gutunen, mezu elektronikoen edo telefonoaren bidez: 21ek 2007an IV. Planarekin lotutako jarduerarik ez zutelako egin<sup>1</sup>; beste 11 udalek, berriz, jakinarazi zuten Planari lotutako jarduerak egin zituztela, baina ezin izan zituztela galdeketak bete, denbora edo giza baliabide falta izan zutelako edo zeuden langileak kontratatu berriak zirelako <sup>2</sup>.

EAEko gainerako udalek ez dute ebaluazio honetan parte ez hartzeko arrazoi berri eman. Dena den, udalerririk gehienak 2.000 biztanle baino gutxiagokoak direnez, oso litekeena da genero-politikarekin lotutako jarduerarik ez izatea eskuartean.

<sup>1</sup>Elantxobe, Moreda de Alava, Muxika, Amoroto, Zizurkil, Lezama, Amezketa, Elgoibar, Otxandio, Abaltzisketa, Ziortza-Bolibar, Urkabustaiz, Loiu, Elgeta, Ea, Iruraiz-Gauna, Gaubea, Atxondo, Garai, Anoeta, Tolosa.

<sup>2</sup> Arrasate, Azpeitia, Azkoitia, Ordizia, Areatza, Bermeo, Berriz, Durango, Hernani, Elorrio, Andoain.

## **II. IV. PLANAREN EBALUAZIOAN LORTUTAKO EMAITZAK**

Lortutako emaitzak sei ataletan egituratuta daude:

- 1. EGINDAKO JARDUEREN EZAUGARRI OROKORRAK:** botere publikoek lau ardatzen eta esku-hartzerako arloen barruan egindako jarduerak deskribatzen dira, modu orokorrean. Halaber, arloei dagokionez, arreta berezia jarriko zaie landutako programei eta helburuei, bai eta erabilitako esku-hartzerako tresnei ere.
- 2. ARDATZ ESTRATEGIKOETAN EGINDAKO JARDUERAK AZTERTZEA:** lau jarduera-ildoetan egindako jardueren ezaugarriak modu zehatzagoan aztertu dira. Izan ere, jarduera horiek dira botere publikoek berdintasun-politikan dituzten lehentasunak islatzen dituzten elementuak.
- 3. IV. PLANEAN LORTUTAKO EXEKUZIO-MAILA:** atal horretan, IV. Planean zehaztutako programa eta helburuak zenbateraino bete diren azaldu nahi da. Izan ere, programa eta helburu horiek oso garrantzitsuak dira egin nahi den helburuen eta eraginaren ebaluazioa egiteko.
- 4. IV. PLANA EZARTZEKO ERABILITAKO NEURRIAK:** Administrazio Orokorrak, Foru Administrazioak eta Tokiko Administrazioak sustapenarekin, koordinazioarekin eta kudeaketa-sistemekin (plangintza eta ebaluazioa) lotutako zer neurri aplikatu dituzten jakiteko, datuak ematen dira.
- 5. ERAKUNDE PUBLIKOETAN GENERO-IKUSPEGIA SARTZEA SUSTATZEKO EGINDAKO JARDUERAK:** erakundeen barruan berdintasun-politikak gauzatu ahal izateko baldintzak sortzeko zer jarduera egin diren azaltzen da atal honetan (sentsibilizazioa; politikariak eta teknikariak prestatzea eta aholkatzea; emakumeen eta gizonen egoeren berri emango duten estatistikak sortzea; giza baliabideak, baliabide ekonomikoak...).
- 6. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO POLITIKA SEKTORIALAK ETA ZEHARKAKO POLITIKAK:** atal honetan helburu hauek dituzten jarduera espezifikoak bildu dira: tratu- eta aukera-berdintasuna sustatzea; eta emakumeek, oro har, eta askotariko diskriminazioa pairatzen duten edo gizarte-bazterketako arriskuan dauden emakumeen talde espezifikoek jasan ditzaketen bazterketa-egoerak atzematea, jakinaraztea eta desagertaraztea.

Emaitzak aurkeztu baino lehen, beharrezkoa da txosten osoan erabilitako bi termino argitzea: **Jarduera eta Ekintza**. Ekintzak Planean jasotako estrategiak gauzatzeko proposamen zehatzak dira, hau da, helburua lortzeko gara daitezkeen lan-prozesu eta lan-ikuspegi posible egokiak. Jarduerak, berriz, erakunde publiko zehatz baten errealitate zehatzarekin, baliabideekin eta eskumenekin lotura handia duten jardunak dira.

## **1. EGINDAKO JARDUEREN EZAUGARRI OROKORRAK**


Erakunde publikoek emandako informazioaren arabera, Berdintasunerako IV. Planarekin lotutako **1.137 jarduerak** egin ziren 2007. urtean. Administrazioa publikoak genero-politikarekiko dituen joera orokorren berri emateko, egindako jardueren ezaugarriak azaltzen dira, hauekin lotuta: lau **ardatz estrategikoak, arloak, IV. Planeko programak eta helburuak**, erabilitako **esku-hartzerako tresnak, bai eta jardueren hartzaile-taldeak ere**.

- **Ardatz estrategikoak**

Ardatz estrategikoek hurrengo urteetan berdintasun-politikaren arloan landuko diren lehentasunezko gaiak definitzen dituzte: Mainstreaming-a; Ahalduntzea; Erantzunkidetasuna eta Bateragarritasuna; eta Emakumeen aurkako indarkeria. 2007an, erakunde publikoek IV. Planaren lau ardatz estrategikoekin lotutako hainbat jarduera jarri zituzten martxan. Jarduerak honela banatuta daude.



## Ardatz bakoitzean egindako jarduerak



2006. urtean gertatu zen legez, berdintasun-politiketan lehentasuna izan duten alderdiak *mainstreaminga* eta ahalduntzea, eta gizarte- eta politika-arloetan parte hartzea izan dira. Hain zuzen, egindako jardueren hiru laurden (n=842, % 74) bi ardatz horiei dagozkie.

- **Esku-hartze arloak**

Arloak dira esku-hartzerako eremu funtzionalak, eta horietan, berdintasuna lortzeko egiten da lan. Administrazioetan dauden arloak dira, erraz ezagut daitezke beren egituretan eta 4/2005 Legeko III. Tituluan aurreikusten dira. IV. Planean, 6 arlo zehaztu dira:

- Kultura
- Hezkuntza
- Lana
- Gizarteratzea
- Osasuna
- Hirigintza eta Ingurumena

Arrazoi praktikoak direla-eta, beste hiru "arlotan" gehiago zehaztu dira ebaluazio honetan:


- IV. Plana ezartzeko neurriak
- Kudeaketa-sistemak
- Berdintasunerako zerbitzu orokorrak

Lehenengo bi arloetako ekintzak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean jaso dira; hala, bada, nahitaez bete behar dira, eta horiek gauzatzea ezinbesteko baldintza da IV. Planean ezarritako helburuak betetzeko. Arestian aipatu bezala, erakundeen barruan, erakundeen artean eta gizartean egiturak ezartzea; eta berdintasun-planak edo -programak aurrera eramatea eta ebaluatzea aurreikusten dute helburu horiek.

Hirugarren arloa, berriz, Berdintasunerako Zerbitzu Orokorrak deritza, eta bi jarduera mota barne hartzen ditu: batetik, administrazioaren barruan berdintasun-politikak aurrera eramateko baldintzak sortzea ahalbidetzen duten jarduerak; eta, bestetik, gizarte-sareari zuzendutako jarduerak, berdintasun-politikak ezartzean eta haiei buruzko ebaluazioan eta hausnarketan interesa, ezagutza, inplikazioa eta parte-hartzea areagotzea helburu dutenak.

Grafiko honetan, aipatutako 9 arloetan egindako jarduerak adierazten dira.

### Arlo bakoitzean eginiko jarduerak



Berdintasunerako zerbitzu orokorren arloan egin da jardueren ehuneko handiena (n=340; % 29,9) izan da. Horrez gainera, Administrazioek Gizarteratzea (n=192; %16,9), Kultura (n=190; %16,7) eta Lana (n=127; %11,2) arloak lehenetsi dituzte gehien.

- **IV. Planeko programak**

Programetan definitzen da berdintasun-politikaren ardatz estrategikoak nola zehazten diren, IV. Planean aurreikusitako 6 arloetako bakoitzean. Horregatik, atal honetan bakar-bakarrik kontuan izan dira esku-hartzerako arlo horietan burututako jarduerak (N=708).

Taula honetan jasotako datuen arabera, egindako jardueren % 72,5 Planean jasotako 32 programetatik 12 ezartzeko baliatu dira (% 37,5).

<b>PROGRAMAK</b>	<b>MAIHTASUNA</b>	<b>%</b>
Kulturan genero-ikuspegia integratea	24	3,4
Emakumeek presentzia eta parte-hartzea izatea kirolean	22	3,1
Emakumeek presentzia eta parte-hartzea izatea kulturan eta artean	83	11,7
Gizartearen eta kulturaren eremu guztietan sexismoa desagerraraztea	42	5,9
Ikastetxeetan hezkidetza sustatzea	20	2,8
Eskola-komunitateko indarkeriaren aurrean arreta eta bitartekotza egitea	36	5,1
Enplegu-zerbitzuak emakumeen eta gizonen berdintasunera egokitzea	30	4,2
Enplegua lortzeko garaian aukera-berdintasuna izatea	30	4,2
Emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea	37	5,2
Diskriminazioa pairatzen duten emakumeen baldintzak eta egoera hobetzea	79	11,2
Tratu txarren edo sexu-erasoen biktima diren emakumeei emandako arreta hobetzea	86	12,2
Ugalketa-osasunari dagokionez, emakumeek erabaki gehiago hartzea	24	3,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>513</b>	<b>72,5</b>

- **IV. Planeko helburuak**

Programa horiek helburuak dituzte. Helburuek aldatu nahi den errealitate soziala definitzen dute eta lehentasunak markatzen dituzte. Horrez gainera, adierazleen eta ebaluazioen bidez, lortutako emaitzen garrantzia zehazten dute.

Atal hau egitean, helburuak zehaztuta dituzten Planeko arloak hartu dira kontuan, hots: Berdintasunerako zerbitzu orokorrak; eta esku-hartzerako 6 arloak. Beraz, erreferentziazko jarduera kopurua 1.048 da.

Taula honetan ikus daiteke, egindako jardueren % 69,4 IV. Planean jasotako 76 helburuetatik 21 (% 27,6) betetzeko egin direla.

PROGRAMAK	HELBURUAK	MAIZTASUNA	%
Berdintasunerako zerbitzu orokorren arloa (ez ditu programak definituta)	Erakundeari genero-ikuspegia integrazteko ahalmena ematea	138	13,2
	Berdintasun-politikei buruzko interesa eta inplikazioa areagotzea gizartean	37	3,5
	Berdintasunaren aldeko asoziazio-sarea areagotzea eta indartzea	84	8
	Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borrokan administrazioaren koordinazioa indartzea eta hobetzea	22	2,1
	Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko sentsibilizazio-kanpainak egitea	15	1,4
Kulturan genero-ikuspegia integratzea	Kultura-jarduerak genero-ikuspegiari jarraiki planifikatzen eta betearazten dituzten administrazioetako kultura-arloen kopurua handitzea	24	2,3
Emakumeek presentzia eta parte-hartzea izatea kulturen eta artean	Emakumeen kulturen eta artearen arloko sorkuntza handitzea, baita gizartearen ikuspegi ez-sexista sustatzen duena ere	83	7,9
Gizartearen eta kulturen eremu guztietan sexismoa desagerraraztea	Sexu batekoak besteak baino duintasun handiagoa edo txikiagoa dutela adierazten duten komunikabide-irudiak eta edukiak desagerraraztea, bai eta pertsonak sexu-objektu huts gisa adierazten dituztenak ere. Halaber, emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, indarkeria horri garrantzia kendu edo indarkeria horretara bultzatzen duten edukiak desagerraraztea	42	4
Ikastetxeetan hezkidetzak bultzatzea	Lehen eta Bigarren Hezkuntzako, eta Helduen Hezkuntzako ikastetxeen urteko programazioetan hezkidetzak integratzea	14	1,3
Eskola-komunitateko indarkeriaren aurrean arreta eta bitartekotza egitea	Indarkeriaren prebentziorako programa esperimentalak egitea ikastetxeetan, berdintasunean oinarritutako bizikidetzak eta lankidetzak lortzeko harremanen kultura aldatuta	24	2,3
Enplegu-zerbitzuak emakumeen eta gizonen berdintasunari egokitzea	Enplegu-zerbitzuetan genero-ikuspegia integratzea.	30	2,9
Enplegua lortzeko garaian aukera-berdintasuna izatea	Industria-sektore tradizionalak osagai teknikoaren enpleguetan emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, emakumeen parte-hartzea areagotzea.	13	1,2
Emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea	Emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea administrazio publikoetan eta sektore pribatuko enpresetan, okupatutako biztanleriaren proportzio handienak metatzen dituzten jarduerak adarrei lehentasuna emanda	22	2,1
Norberaren, familiaren eta lan-erloto bizitzak bateragarri egiteko neurriak eta laguntza-zerbitzua	Etxeko eta zaintzako lanetan emandako denboran, emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, murrizketa honela zehaztuta: amatasunagatikoa/aitatasunagatikoa nahiz inoren laguntza behar duten pertsonak zaintzeko baimena edo lizentzia hartzen duten gizonaen kopurua handitzea, bai administrazio publikoan, bai sektore pribatuan.	12	1,1

Gizarte-zerbitzuetan genero-ikuspegia integratzea	Administrazio publikoetako gizarte-ekintzako arloetako diagnostikoetan, planifikazioetan, esku-hartzeetan eta ebaluazioetan genero-ikuspegia integratzea	13	1,2
Diskriminazioa pairatzen duten emakumeen baldintzak eta egoera hobetzea	Pobrezia ekonomikoko egoeran egonik, bazterketa-arriskuan daudenentzako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzarren	46	4,4
	Droga-mendetasun arazoak izanik, gizarte-bazterketako arriskuan dauden emakumeentzako baliabideak egokitzea, kolektibo horren baldintzak eta egoera hobetzarren	13	1,2
Autonomia funtzionalik ez dutenei arreta emateko baliabide soziokomunitarioak	Zaintzako lanak egiten dituztenen zama ekonomikoa, soziala eta psikologikoa murrizteko baliabideak areagotzea	14	1,3
Tratu txarren edo sexu-erasoen biktima diren emakumeei emandako arreta hobetzea	Indarkeria-zikloaren kasuak gero eta goizago atzematea	47	4,5
	Tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei arreta, asistentzia eta babesa emateko eskaerei koordinazioaren, kalitatearen eta eraginkortasunaren irizpideen bidez erantzutea. Horretarako, "Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko tokiko protokoloak" ezarriko dira, EAEko udalerrietan	22	2,1
	Tratu txarren biktimei harrera emateko eskaerei kalitatearen eta eraginkortasunaren irizpideen bidez erantzutea, "Etxeko tratu txarren biktimei harrera eta etxebizitza emateko baliabideak hobetzeko" programan jasotako neurriak ezarri eta etengabe hobetzen direla bermatuta	15	1,4
<b>GUZTIRA</b>		<b>730</b>	<b>69,4</b>


- **Erabilitako esku-hartzerako tresnak**

IV. Planean jasotako ekintzak, bai nahitaez bete behar direnak, bai gomendioak direnak, administrazioak eskura dituen hurrengo sei esku-hartze tresnen arabera sailkatuta daude. Hauek dira tresna horiek:

- Jakintza sortzea
- Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea
- Prestakuntza
- Baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea
- Arauak sortzea eta egokitzea
- Jarraipen-mekanismoak sortzea eta egokitzea

Tresna horiek beharrezkoak dira, Planean jasotako programak ezarri ahal izateko. Dena den, tresna horiek erabiltzeko behar diren baliabideak eta haien ondorioak edo eragina askotarikoak dira. Hala, bada, tresna batzuk edo besteak erabiltzeak, zeharka, adierazten du botere publikoek emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko jarduerak egiteko zer-nolako inplikazioa duten.

Grafiko honek egindako jardueren ehunekoa adierazten du, esku-hartzerako tresna horiekin zerikusia dutenak.






Egindako ekintzen % 61a (n=694) sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea tresnari dagozkio, bai eta baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea tresnari ere.

- **Hartzaile-taldeak**

Botere publikoek egindako jardueren hartzaile izan litezkeen talde guztietatik, 3 izan dira bereziki egindako jardueren hartzaile nagusiak.

- Euskal gizartea oro har (n=278; %24,5)
- Emakume-elkarteak (n=133; %11,7)
- Administrazioako hiru mailetako langile teknikoak (n=145; %12,8)

### Jarudera portzentaje handienaren hartzaile izandako taldeak



- Gizartea, oro har
- Administrazioako hiru mailetako langile teknikoak (n=145)
- Emakume elkarteak (n=133)

Beste talde batzuk jarduera kopuru handiaren hartzaile-taldeak izan dira; hala nola:

- Tratu txarren edo sexu-erasoen biktima diren emakumeak (n=64; % 5,6)
- Hezkuntza alorreko profesionalak (n=58; % 5,1)
- Hiru administrazioetako langile politikoak (n=46; % 4,1)
- Aukera-berdintasunaren alorreko profesionalak (n=40; % 3,5)
- Hiru lurraldeetako Tokiko Administrazioa (n=37; % 3,3)
- Gizarte zerbitzuen alorreko profesionalak (n=35; % 3,1)

Atal honetan aurkeztutako emaitzak Euskal administrazio publiko osokoak dira. Ebaluazio honetan parte hartu duten erakunde publiko guztien berriazko emaitza nagusiak, berriz, eranskinean jaso dira modu eskematikoan. Eranskin horretan bertan, Arartekoak eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Defentsa Erakundeak jakinarazitako jarduerak jaso ditugu, laburbilduta.

## **2. ARDATZ ESTRATEGIKOETAN EGINDAKO JARDUEREN AZTERKETA**

Atal honetan, IV. Planeko lau jarduera ardatzetan egindako jardueren ezaugarriak aztertzen dira, xehetasunak aintzat hartuta. Izan ere, jarduera ardatzek adierazten dute botere publikoek berdintasun-politikan zer lehentasun dituzten.

### **• MAISTREAMING ARDATZA**

Mainstreaming-ari buruz egindako 422 jardueretatik % 65,9 (n=278) plana ezartzeko neurriak, plangintzarako eta ebaluaziorako jarduerak edo administrazioan berdintasun politikak garatu ahal izateko baldintzak sortzeko jarduerak izan dira (babesa, koordinazioa, prestakuntza, aholkularitza, eta abar). Jardueren beste herena (n=144; %34,1) esku-hartzerako sei eremutan banatuta dago: Kultura (n=28; %6,2); Hezkuntza (n=22; %5,2); Lana (n=34; %8); Gizarteratzea (n=13; %3,1); Osasuna (n=32; %7,6); Hirigintza (n=15; %3,5).

Datu horiek adierazten dute erakunde publikoek alde aurretiko jarduerari eman dietela lehentasuna. Halako jarduerak oinarritzat jotzen ditu Planak, berdintasun-politikak erakundeetan garatzeko.

Sei esku-hartze eremuetan egindako 144 jardueri dagokienez, 132 IV. Planean planteatutako 7 programei buruzkoak dira; gainerako 12 jarduerak, berriz, ez daude inolako programarekin uztartuta.

<b>PROGRAMAK</b>	<b>MAIZT.</b>	<b>%</b>
Kulturan genero-ikuspegia txertatzea	24	16,7
Lan zerbitzuak emakume eta gizonen berdintasunari egokitzea	30	20,8
Gizarte zerbitzuetan genero-ikuspegia integratzea	13	9,1
Osasun-sisteman genero-ikuspegia integratzea	15	10,4
Batez ere emakumeei eragiten dieten gaixotasunei ekiteko moduak hobetzea	16	11,1
Hirigintzarekin, garraioarekin eta ingurumenarekin loturiko politiketan eta proiektuetan genero-ikuspegia integratzea	14	9,7
Ikastetxeetan hezkidetzak sustatzea	20	13,9
IV. Planeko sei eremuetan planteatutako programetatik bakar batean ere ezin izan dira sailkatu	12	8,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>144</b>	<b>100</b>

Mainstreaming jarduerak garatzerakoan erakunde publikoek erabili dituzten esku-hartze baliabideei dagokienez, hurrengo taulak adierazten du 2007an Administrazioak genero-berdintasunaren ikuspegia integratzeko batez ere tresna hauek erabili dituela: sentsibilizazioa, informazioa, eta jendarteratzea, eta baliabide eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea. Jarduera guztien %52,2an erabili dira tresna horiek guztira (n=220).

<b>ESKU HARTZERAKO TRESNAK</b>	<b>MAIZT.</b>	<b>%</b>
Jakintza sortzea	63	14,9
Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea	107	25,4
Prestakuntza	47	11,1
Baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea	113	26,8
Arauk sortzea eta egokitzea	49	11,6
Jarraipen-mekanismoak sortzea eta egokitzea	43	10,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>422</b>	<b>100</b>

Administrazioan genero-zeharkakotasuna sustatzeko izandako *baliabide eta zerbitzu* adierazgarrienak hauek izan dira: berdintasun planak eta programak martxan jartzea; gida eta material didaktikoak egitea; eta berdintasunerako langileak kontratatzea (teknikariak eta aholkulariak).

Hizkuntzaren erabilera ez-sexistaren alde egitea eta gizartean berdintasun-politikak hedatzea izan dira egindako *sentsibilizazio* jarduera nagusiak.

*Ezagutza sortzeko* jarduerak anitzak izan dira, eta adierazgarrienak hurrengoak izango lirateke: sexu-aldagaia edota genero-adierazlea egindako azterlanetan sartu dutenak; genero-ikuspegia, sentsibilitatea eta iragazkortasuna ezartzeari buruzko diagnostikoa egitea, etorkizunean, hainbat sailetan ezarri ahal izateko; gizarte-gaietan genero-ikuspegia duten diagnostikoak egitea; jardunbide klinikoko gidak berriz aztertzea; eta emakumeek garraioari dagokionez dituzten beharrei buruzko diagnostikorako tresnak egitea.

Arauk sortzeko eta egokitzeko jardueren helburu nagusia hau izan da: diru-laguntzak ematerakoan eta Administrazio Orokorrak, eta Foru eta Tokiko Administrazioak kontratuak egitean, ekintza positiboko irizpideak sartzea. Jarduera mota horien artean, azpimarragarriak dira kultura eta kirola, gizarteratzea eta lana arloetan egindakoak.

*Jarraipen* jarduerak, berriz, hauei buruzkoak dira batez ere: erakundeen arteko eta erakunde barruko koordinazio-egituretatik garatutako jarduerak; berdintasun planen ebaluazioa; eta hainbat erakunde publikok egindako generoaren araberako eraginaren ebaluazioak.

- **AHALDUNTZE ARDATZA**

Jabekuntza ardatzari dagokionez, 420 jarduera egin dira. Jarduera horien lauren bat kulturaren arlokoak izan dira (n=111; %26,4) (emakumeen presentzia eta parte-hartzea kulturaren, artean eta kirolean). Beste lauren bat (n=101; %24,1), berriz, gizarte-sareari zuzendutako jarduerak izan dira, berdintasunerako politiken ezartzean, ebaluazioan eta haiei buruzko hausnarketan interesa, ezagutze, esku-hartzea eta parte-hartzea areagotzeko. Jarduera horiek batez ere emakume-elkarteei eta berdintasuna bultzatzeko helburua duten elkarteei zuzendu zaizkie. Gainerako jarduerak hurrengo 5 arlo hauen artean banatzen dira: Gizarteratzea (n=80; % 19); Osasuna (n=27; % 6,4); Hezkuntza (n=18; % 4,3); Hirigintza (n=16; % 3,8).

Jarduera guztietatik 228 (%54,3) IV. Planean planteatutako 4 programari buruzkoak izan dira.

<b>PROGRAMAK</b>	<b>MAIZT.</b>	<b>%</b>
Emakumeen presentzia eta parte-hartzea kulturaren eta artean	83	19,8
Enplegua lortzeko garaian aukera-berdintasuna izatea	30	7,1
Emakumeen eta gizonen lan baldintzak parekatzea	37	8,8
Askotariko diskriminazioa pairatzen duten eta bazterketako arriskuan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzea	78	18,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>228</b>	<b>54,3</b>

Datuek adierazten dute 2007an erakunde publikoek emakumeen ahalduntzeari dagokionez bi programa hauei eman dietela lehentasuna: emakumeen presentzia eta parte-hartzea kulturaren eta artean (n=83; % 25,4), eta askotariko diskriminazioa pairatzen duten eta bazterketako arriskuan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzea.

*Emakumeen presentzia eta parte-hartzea kulturean eta artean* programari dagokionez, egindako jarduerak sentsibilizaziokoak (n=51) eta prestakuntzakoak (n=20) izan dira batez ere. Sentsibilizazioko jarduerak helburu hauek izan dituzte: emakumeen sormen kulturalari eta artistikoari buruzko eztabaida publikoa sustatzea; emakume sortzaile eta artisten topaketak eta jardunaldiak sortzea; eta emakumeen kultura- eta arte-ekoizpena hedatzea. Bestalde, prestakuntza jarduerak garapen pertsonaleko hainbat motatako ikastaroak izan dira.

*Askotariko diskriminazioa pairatzen duten eta bazterketako arriskuan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzeko* helburua duen programan, jarduera ugari egin dira, eta IV. Planean aipatutako taldeak izan dira hartzaile nagusiak. Esku-hartzerako tresna nagusia baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea izan da (n=51). Hala nola, pobrezia ekonomikoko egoeran eta bazterketa-egoeran izateko arriskuan dauden pertsonentzako gizarte- eta ekonomia-laguntza osagarriak; eta banantze- eta dibortzio-prozesuetan dauden emakumeentzako aholkularitza juridikoko eta psikologikoko zerbitzuak. Halaber, talde horiei zuzendutako 15 prestakuntza jardura garatu dira.

*Emakumeen eta gizonen lan baldintzak parekatzea* programari dagokionez, arauak sortzea eta egokitzeko (n=12) eta jakintza sortzeko (n=11) jarduerak egin dira batez ere: administrazio publikoan egindako negoziazio kolektiboan, neurriak proposatzea emakumeek eta gizonek enplegu publikoan berdintasuna izango dutela bermatzeko; berdintasun-diagnostikoek eta planek derrigorrezko eduki gutxienekoak sartzen dituztela bermatzea; "gizon eta emakumeen berdintasuna lortzeko laguntzen duten erakundetzat" hartzea berdintasun-politikak garatzen dituzten haiek; eta genero-diagnostikoak egitea, emakumeen lan-baldintzetan egon daitezkeen diskriminazioak eta desberdintasunak identifikatzeko.

*Azkenik, enplegua lortzeko garaiak aukera-berdintasuna izatea* izeneko programan, esku-hartzerako tresna nagusiak hauek izan dira: sentsibilizazioa (n=9); baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea (n=8), eta prestakuntza (n=7). Sentsibilizazio-jarduerak egin dira enpresa eta aholkularitzei eta familiei begira, emakumeek sektore teknikoetan edo industria-sektoreetan lan egitea zailtzen duten aurreiritziak eta estereotipoak deuseztatzeko asmoz. Lana sustatzeko programak eta emakumeen kontratazioa errazteko programak garatu dira; lanbide teknikoetan aritu ahal izateko prestakuntza-ekintzetan emakumeek parte hartzea sustatu da; eta emakumeen prestakuntzaren alde egin da ia agerpenik ez duten sektore eta lanbideetan, enpresak sortzea bultzatzeko.

Bildutako datuen arabera, emakumeen ahalduntzearekin zerikusia duten jardueren bi herenak hauek izan dira: baliabideak eta zerbitzuak sortzekoak eta egokitzeak (emakume-elkarteei diru-laguntzak ematea); eta sentsibilizaziokoak (kultura-programak, autoestimakoak, feminismoa, parte-hartze soziopolitikoak, eta abar).

- **BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA ARDATZA**

Ardatz horretan 69 jarduera egin dira. Jarduera horietatik %59,4k (n=41) zerikusia du IV. Planak bateragarritasunarekin eta erantzunkidetasunarekin lotuta planteatzen dituen 8 programetatik 3rekin.

<b>PROGRAMAK</b>	<b>MAIZT.</b>	<b>%</b>
Erantzunkidetasunaren kultura eta zaintzaren etika sustatzea	9	13
Norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko neurriak eta laguntza-zerbitzuak	18	26,1
Autonomia funtzionalik ez dutenei arreta emateko baliabide soziokomunitarioak	14	20,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>41</b>	<b>59,4</b>

*Norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko neurriak eta laguntza-zerbitzuak* programan jarduera mota hauek garatu dira: amatasunagatiko eta aitatasunagatiko baimenekin lotutako arauak sortzea eta egokitzea; emakumeek eta gizonek amatasunagatiko eta aitatasunagatiko, nahiz inoren laguntza behar duten pertsonak zaintzeko, baimenak eta lizentziak erabiltzea sustatzeko, eskura dauden baliabideei buruzko sentsibilizazioko jarduerak, bai eta informatzekoak ere; familia kontuengatik, eta amatasunagatik eta aitatasunagatik hartutako baimenen erregimena hedatzeko, baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea; eta ordaindu gabeko baimenak eskuratu ahal izatea, indarrean dagoen legedian jasotzen ez diren zenbait aukera baliatzeko.

*Autonomia funtzionalik ez dutenei arreta emateko baliabide soziokomunitarioak* programan jarduera hauek egin dituzte batez ere: gizarte-ekintzako arloek arretarako eta orientazioarako berriazko zerbitzua sortzea, autonomiarik ez duten pertsonen arreta ematen lan egiten duten emakumeentzako eta pertsonentzako.

*Erantzunkidetasunaren kultura eta zaintzaren etika sustatzea* programarekin lotutako jarduera gehienak hainbat talderentzako sentsibilizazioko jarduerak izan dira: gizonak, haurrak eta gazteak, eta administrazio langile teknikoak eta politikoak.

IV. Planeko hiru programa horiekin lotutako jardueraz gain, sentsibilizazioko eta prestakuntzako jarduera ugari egin dira (n=13; % 18,8) euskal gizarte osoarentzako. Jarduera horien helburua erantzunkidetasuna eta parekotasun handiagoko familia-ereduak sustatzea izan da.

Bateragarritasunari eta erantzunkidetasunari buruzko jardueren bi heren baliabideak eta zerbitzuak sortzekoak eta egokitzekoak izan dira, bai eta sentsibilizaziokoak ere.

- **EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA ARDATZA**

Ardatz honetan 226 jarduera egin dira, eta jarduera horien % 72,1 (n=163) IV. Planean jasotako 3 programekin lotuta daude. Datu horiek taula honetan adierazita daude.

<b>PROGRAMAK</b>	<b>MAIZT.</b>	<b>%</b>
Gizartearen eta kulturaren eremu guztietan sexismoa desagerraraztea	42	18,6
Eskola-komunitateko indarkeriaren aurrean arreta eta bitartekotza egitea	36	15,9
Tratu txarren eta/edo sexu-erasoen biktima diren emakumeei emandako arreta hobetzea	85	37,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>163</b>	<b>72,1</b>



*Tratu txarren eta/edo sexu-erasoen biktima diren emakumeei emandako arreta hobetzea* programari dagokionez, jarduera gehienek hauekin dute zerikusia:

- Etxeko indarkeriaren eta emakumeen aurkako sexu-erasoen eragina eta arrazoiak aztertzeko ikerketak; tokiko protokoloak ezartzeko eragozpenak; emakumeen aurkako indarkeria-zikloa goiz hauteman ahal izateko, praktika egokiak ikertzea.
- Herritarrak sensibilizatzeko kanpainak.
- Ikastaroak eta prestakuntza-moduluak egitea, etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei arreta ematen lan egiten duten profesionalentzako.
- "Berdinsarea: indarkeriaren aurkako eta berdintasunaren aldeko udalerrriak" ezartzea eta finkatzea.
- Segurtasun-sistemak hobetzea harrera-etxeetan.

*Gizartearen eta kulturaren eremu guztietan sexismoa desagerraraztea* programari dagokionez, jarduera guztiak herritarrentzako sensibilizazio-kanpainak izan dira. Kanpaina horiek emakumeen aurkako indarkeriaren jatorriari buruzkoak dira; eta halaber, gizartean, kulturaren eta komunikabideetan emakumeen aurkako indarkeria nola adierazten den jorratzen dute.

*Eskola-komunitateko indarkeriaren aurrean arreta eta bitartekotza egitea* programan, berriz, jarduera gehienak sensibilizaziokoak eta prestakuntzakoak izan dira. Jarduera horien helburuak izan dira ikastetxeetan etxeko indarkeriako kasuak prebenitzea eta antzematea; eta ikastetxeetan indarkeria prebenitzeko programak garatzea, ikasleentzako, irakasleentzako, familientzako eta, orokorrean, eskola-komunitate osoarentzako.

Halaber, azaroaren 25arekin lotutako sensibilizazioko jarduerak egin dira, eta herritar guztiak izan dira hartzaileak oro har. Era berean, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borrokan administrazioaren koordinazioa indartzeko eta hobetzeko helburua duten jarduerak ere egin dira.

### 3. IV. PLANEAN LORTUTAKO EXEKUZIO-MAILA


Atal honetako informazioak IV. Planean zehaztutako programak eta helburuak zenbateraino bete diren adierazten du; hau da, programek eta helburuek Berdintasunerako zerbitzu orokorretako arloan, eta 6 esku-hartzerako arloetan, lortutako exekuzio-mailaren berri ematen du.

Planak, aurreko paragrafoan aipatu diren arloetan banatutako 32 Programa eta 76 Helburu abian jartzea proposatzen du. Taula honetan argiago ikus daiteke.

ARLOAK	MAINSTREAMING-A		AHALDUNTZEA		BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA		INDARKERIA		GUZTIRA	
	Program.	Helbur.	Program	Helbur.	Program.	Helbur.	Program	Helbur.	Pro.	Hel.
Berdintasunerako zerbitzu orokorrak	-	2	-	2	-	2	-	2	0	8
Kultura	1	1	3	6	1	1	1	2	6	10
Hezkuntza	1	2	2	5	2	3	1	2	6	12
Lana	1	1	2	6	2	3	1	1	6	11
Gizarteratzea	1	1	1	7	1	1	1	3	4	12
Osasuna	2	5	1	4	1	2	1	1	5	12
Hirigintza, Garraio Publikoa eta Ingurumena	1	3	2	4	1	2	1	2	5	11
<b>GUZTIRA</b>	<b>7</b>	<b>15</b>	<b>11</b>	<b>34</b>	<b>8</b>	<b>14</b>	<b>6</b>	<b>13</b>	<b>32</b>	<b>76</b>

Arlo bakoitzean teorikoki zer programa eta helburu planteatu diren adierazi da grafiko horretan. Grafiko honetan, berriz, ardatz estrategiko bakoitzean jardueraren baten helburu izan diren programen eta helburuen portzentajea adierazten da, baita helburu bakoitzean egindako jardueren batez bestekoa ere.

### Landutako programen eta helburuen portzentajea, eta helburu bakoitzean egindako jardueren batez bestekoa




Mainstreaming-aren eta Emakumeen aurkako indarkeriaren ardatzetan izan dute programek eta helburuek exekuzio-maila handiena, izan ere:

- Planean ageri diren programen % 100ean egin dira jarduerak.
- Planean jasotako helburuen %100ean egin dira jarduerak.
- Helburu bakoitzeko egindako jardueren batez bestekoa handiagoa izan (19,3 eta 16,8 hurrenez hurren).

Bestalde, oraindik ere erakunde publikoek gutxien gauzatu duten ardatza Bateragarritasuna eta Erantzunkidetasuna izenekoa izan da.

IV. Planean jasotako 6 esku-hartzerako arloei dagokienez, programen eta helburuen exekuzio-maila hau izan da.

**Landutako Programen eta Helburuen portzentajea eta egindako Jardueren batez bestekoa Esku Hartze Eremu bakoitzean**



Grafikoan jasotako emaitzen arabera, 2007an erakunde publikoek programa portzentaje handiari ekin zioten, baina ez zuten intentsitate berarekin esku hartu programa guztietan. Atal honetako azterketan aurreikusitako esku-hartzerako 6 arloetan egindako 708 jardueren %72,4 (n=513) IV. Planean jasotako 32 programetatik 12ri dagokie:

- Kulturaren genero-ikuspegia integratzea (n=24)
- Emakumeek presentzia eta parte-hartzea izatea kirolean (n=22)
- Emakumeek presentzia eta parte-hartzea izatea kulturaren eta artean (n=83)
- Gizartearen eta kulturaren eremu guztietan sexismoa desagerraraztea (n=42)
- Ikastetxeetan hezkidetzaren sustatzea (n=20)
- Eskola-komunitateko indarkeriaren aurrean arreta eta bitartekotza egitea (n=36)
- Enplegu-zerbitzuak emakumeen eta gizonen berdintasunera egokitzea (n=30)
- Enplegua lortzeko garaian aukera-berdintasuna izatea (n=30)
- Emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea (n=37)

- Askotariko diskriminazioa pairatzen duten eta bazterketako arriskuan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzea (n=79)
- Tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei emandako arreta hobetzea (n=86)
- Ugalketa-osasunari dagokionez, emakumeek erabaki gehiago hartzea (n=24)

Desberdintasun handiagoak nabaritzen dira Erakunde Publikoek IV. Planeko helburuei ekiteko intentsitateari dagokionez. Izan ere, sei esku-hartzerako arloetan egindako jardueren %63 (n=446) arlo hauetako 68 helburuetatik 17ri dagokie: Kultura (n=4); Hezkuntza (n=2); Lana (n=4); eta Gizarteratzea (n=7). Bestalde, 2007an ez zaie ekin IV. Planeko 5 helbururi:

- Emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua komunikabideetan.
- Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko eta horren prebentziorako sentsibilizazio-kanpainen kopurua handitzea.
- Etxeko eta zaintzako lanen balio ekonomikoa sistematikoki gehitzea gizarte- eta ekonomia-egituren inguruko azterketei, betiere produkzio-eremuarekin loturik aurkeztuta, hau da, ugalketa-lanean eta produkzio-lanean emandako denborak batuta.
- Ezinduak izanik, gizarte-bazterketako arriskuan dauden emakumeentzako baliabideak egokitzea, kolektibo horren baldintzak eta egoera hobetearren.
- Besteak beste, kaleen eta plazen izenaren bitartez, monumentuak eraikita edo eraikinei izena jarrita, gizonei eta emakumeei egiten zaizkien gizarte-mailako omenaldiak orekatzea.

Atal hau amaitzeko, adierazi behar da Berdintasunerako zerbitzu orokorren arloari dagokionez, Planeko 8 helburuetan egin direla jarduerak. Arlo horretan egindako 340 jardueretatik, hiru laurdenak (n=222; %65,3) helburu horietako biri buruzkoak dira:

- Erakundeari genero-ikuspegia integratzeko ahalmena ematea (n=138)
- Berdintasunaren aldeko asoziazio-sarea areagotzea eta indartzea (n=84).

#### 4. IV. PLANA EZARTZEKO ERABILITAKO NEURRIAK

IV. Planak berdintasunerako 4/2005 Legean jasotzen diren zenbait neurri planteatzen ditu. Neurri horiek berdintasun-politikak bultzatzearekin, koordinatzearekin, planifikatzearekin eta ebaluatzearekin lotuta daude. Atal honek informazioa ematen du Administrazio Orokorrak, eta Foru eta Tokiko Administrazioak 2007an egin zituzten ezaugarri horietako jarduerari buruz.

##### 4.1 Sustapenarekin eta koordinazioarekin zerikusia duten neurriak

IV. Planak funtsezkotzat hartzen ditu neurri hauek: emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politikak sustatzea, programatzea, ebaluatzea eta haiei buruz aholkatzea ahalbidetzen duten zenbait egitura sortzea eta abian jartzea; zein erakunde barneko eta erakunde arteko koordinazioa:


- *Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko Administrazio-unitateak*: unitate horien eginkizunak dira emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politiken ezarpena sustatzea; Plana garatzeko jarduketa-programa bultzatzea eta lantzea; eta Erakunde Publikoaren mendeko beste organo eta erakundeei, laguntza teknikoa edo/eta aholkularitza ematea.
- *Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko erakundeen barneko koordinazio-egiturak*: Administrazio Orokorrean, egitura horien helburuak dira dagozkien arloetan berdintasun-politiken ezarpen-mailari eta kudeaketari buruzko ezagutzak sortzea; esperientziak partekatzea, erakundeen arteko jarduerak koordinatzea eta sustatzea; eta Administrazio Orokorrean bertan trebetasunak garatzea eta tresnak sortzea. Foru Administrazioan eta Toki Administrazioan, berriz, aurreikusten da egitura horiek berdintasun-politiken programazioa, jarraipena eta ebaluazioa kudeatzeko ardura hartzea; bai eta gai horri buruzko sailen arteko ekintza koordinatua sustatzeko ardura hartzea ere.
- *Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko erakundeen arteko ezarpen-egiturak*: Euskal administrazio publikoaren hiru mailek berdintasunaren arloan egindako politikak eta programak koordinatzeaz arduratzen dira organo horiek.
- *Emakumeek eta mugimendu asoziatiboek politika publikoetan parte hartzeko Gizarte-ezarpeneko egiturak*: orokorrean, egitura horien eginkizunetako batzuk dira euskal

administrazio publikoak berdintasunaren arloari buruz aholkatzea; arlo horri buruzko berdintasun planen eta proiektu arauemaileen txostenak egitea; emakume-elkarteen arteko lankidetzak bultzatzea; eta emakumeen ahalduntzea sustatzea.

Guztira, erakunde publikoek ezaugarri horietako 30 jardueraren berri eman dute, hau da, 2007an egindako jardueraren guztien %2,6:

- emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako administrazio-unitateak sortzearekin lotutako 3 jarduerak. Jarduera horien artean, berdintasun-politiketarako administrazio-unitateak arautzen dituen 213/2007 Dekretuaren onarpena azpimarratu behar da.
- erakundeen barneko koordinazio-egiturak sortzearekin eta arautzearekin lotutako 9 jarduerak
- erakundeen arteko ezarpen-egiturak sortzearekin eta arautzearekin lotutako 3 jarduerak
- emakumeek eta asoziazio-mugimenduek politika publikoetan parte hartzeko gizarte-ezarpeneko egiturekin lotutako 2 jarduerak.
- berdintasun-politikak sustatzeko eta haien jarraipena egiteko —horretarako sortutako egituren bidez— 13 jarduerak.

#### IV. Plana ezartzeko neurriak



Grafikoan ikus daitezke, jarduerak mota horien % 30 erakundeen barneko egiturak sortzeari buruzkoak direla (n=9); % 10 erakundeen arteko egiturak sortzeari buruzkoak (n=3); % 10 administrazio-unitateak sortzeari buruzkoak (n=3); % 6,7 parte hartzeko gizarte-egiturak ezartzeari buruzkoak (n=2); eta % 43,3 erakunde publiko batzuek hainbat egituretan parte hartzeari buruzkoak dira, eta erakundeen/sailen arteko edo barneko berdintasun-politikak sustatzeko eta haien jarraipena egiteko helburua dute (n=13).

- **Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako administrazio-unitateak**

2007an bi zinegotzigo sortu direla jakinarazi da:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako zinegotzigoa Orozkoko Udalean (Bizkaia).
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako zinegotzigoa Zumarragako Udalean.

Emakundek azaroaren 27ko 213/2007 Dekretuaren onarpena jakinarazi du. Dekretuak Eusko Jaurlaritzako sailetan, nahiz haren erakunde publikoetan eta ente publikoetan, berdintasun-politiken eraginaz eta koordinazioaz arduratzen diren administrazio-unitateak arautzen ditu (EHAA 241. zk.).

- **Erakundeen barneko koordinazio-egiturak**

Ezaugarri horietako 9 egitura sortu direla jakinarazi da, eta erakunde publiko hauek sortu dituzte:

- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila (Droga-mendetasunen prebentzio komunitarioko taldeen arteko lan-batzordea)
- Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila (arlo guztietan ordezkari-tza duen lan-taldea)
- Gasteizko Udala (Berdintasunerako Politika Batzordea)
- Sopelanako Udala (Berdintasunerako eta Gizarte Gaietarako Batzordea)
- Uribe Kostako Mankomunitatea (mankomunitate arloko Berdintasunerako Batzordea)
- Berangoko Udala (Berdintasuneko eta Gazteriako Batzordea)
- Zumarragako Udala (Berdintasunerako Udal Batzordea)
- Abadiñoako Udala (Berdintasunerako I. Planaren ebaluaziorako eta II. Planaren lanketarako Jarraipen Batzordea)
- Sestaoko Udala (Emakumeentzako, Berdintasunerako eta Lankidetzarako Batzordea)

- **Erakundeen arteko koordinazio-egiturak**



Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak berdintasun-politikak koordinatzeko eta garatzeko sinatu duten lankidetzarako hitzarmen-markoaren berri eman dute.

Emakundek erakundeen arteko koordinazioarekin lotutako 2 jardueraren berri eman du:

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundeen arteko Batzordea arautzen duen Dekretuaren onarpena, 2007ko otsailaren 1ekoa (EHAA 23. zk.).
- Berdinsarea sortzeko eta hari eusteko, Emakunde-Eudel Hitzarmenaren luzatzea.

- **Parte-hartze sozialeko egiturak**

Sestaoko Udalak Berdintasunerako Foroa sortu dutela jakinarazi du. Emakume-elkarteetako, udalean ordezkariak duten alderdi politikoetako eta berdintasun-gaiekin lotutako emakumeek osatzen dute foro hori.

Bestalde, Ondarroako Udalak Emakumeen Berdintasunerako Udal Kontseiluaren funtzionamendu-araudia onartu duela jakinarazi du (2007ko apirilaren 4a).

- **Jarraipena eta sustapena egituren bidez**

Halaber, 9 erakunde publikok erakundeen arteko, udalen arteko, erakundeen barneko eta parte-hartze sozialeko zenbait koordinazio-egiturek egindako 13 jarraipen- eta sustapen-jardueren berri eman dute:

- Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila (Emakume Baserritarraren Erakundeen arteko Batzordea)
- Emakunde (EGIFeko azken jarraipeneko batzordea; eta Berdinsarea sortzeko eta funtzionarazteko hitzarmenaren jarraipen-bilerak)
- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saila (AFAko Sailen arteko Batzordea)

- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Sustapenaren Saila (AFAREN eta Gasteizko Udalaren arteko lankidetzeta-hitzarmenaren jarraipen-bilerak)
- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saila (Emakume Baserritarraren Erakundearen arteko Batzordea)
- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila (BFAko Sailen arteko eta Sailen barneko Batzordea)
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubide, Lan eta Gizarte Ekintzako Saila (GFAko Sailen arteko Batzordea eta Emakume Elkartearen Sarea)
- Bilboko Udala (Udaleko Arloen arteko Batzordea)
- Arrigorriagako Udala (Berdintasunerako Arloen arteko Batzordea)
- Portugaleteko Udala (Udaleko Berdintasuneko Batzorde Mistoa)
- Irungo Udala (elkartez eta alderdi politikoak osatutako Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Batzordea)

Eusko Jaurlaritzako Sailen arteko Batzordeari dagokionez, adierazi behar da Jaurlaritzako sail guztiek parte hartu dutela batzorde horretan, bai maila politikoan, bai maila teknikoan (Sailen Arteko Talde Teknikoaren bidez).

Gauza bera esan daiteke Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea osatzen duten erakundeez: Administrazio Orokorra (Emakunde, Herri Administrazio Saila, Lan Saila, Gizarte Gaietako Saila eta Ingurumen Saila); Foru Administrazioa (hiru Foru Aldundietako 6 ordezkari); eta Tokiko Administrazioa (EAEko udaletako 6 ordezkari). Erakunde arteko Talde Teknikoan, 18 teknikari (Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordeko kide bakoitzagatik bana) daude.

#### **4.2 Programazioa eta ebaluazioa**

IV. Plana kudeatzeko mekanismo nagusiak programazioa eta ebaluazioa dira. Hainbat Erakunde Publikok emandako informazioak adierazten du 2007an Programazioarekin lotutako

29 jarduera (Berdintasun Planak edo/eta Programak), eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Politiken Ebaluazioarekin lotutako 13 jarduera egin direla.

– **Programazioa**

2007an 11 erakunde publikok jakinarazi dute Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Planen baten egin eta/edo onartu dituztela:

- Eusko Trenbideak S.A. (2007-2009 I. Plana)
  - Laudioko Udala (I. Plana)
  - Gipuzkoako Foru Aldundia (2008-2011 II. Plana)
  - Irungo Udala (2008-2011 II. Plana)
  - Mungiako Udala (II. Plana)
  - Abanto-Zierbenako Udala (II. Plana)
  - Gernikako Udala (II. Plana)
  - Gasteizko Udala (II. Plana)
  - Galdakaoko Udala (II. Plana)
  - Leioako Udala (II. Plana)
  - Zallako Udala (III. Plana)
- Eusko Jaurlaritzako 12 sailek, berriz, Legegintzaldiko dokumentu programatiko bat landu dute.

Emakundek aholkularitza eta laguntza aditua eman dizkie Eusko Jaurlaritzako sailei plan estrategiko horiek lantzeko.

Ondorengo 4 erakunde publiko hauek ere 2007rako urteko programa operatibo bat onartuko dutela jakinarazi dute:

- Eustat

- EITB
- Abadiñoako Udala
- Amurrioko Udala

Halaber, hiru erakundek tokiko erakundeentzako deialdi bat egin dute, berdintasun-diagnostikoak eta -planak egiteko diru laguntzak emateko:

- Emakunde: tokiko erakunde guztientzako deialdia (577.000 €)
- Gipuzkoako Foru Aldundia: batez ere 5.000 biztanletik beherako udalentzako deialdia (120.000 €)
- Bizkaiko Foru Aldundia: 5.000 biztanletik beherako udalentzako deialdia (100.000 €)

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako planei eta programei dagokienez, eta 4/2005 Legeko 15.4 artikuluan ezarritakoari jarraituta, adierazten da, halaber, Jaurilaritzako sail guztietako 2007ko legegintzaldiko planen eta programen txostenak egin direla, bai eta ondorengo toki planekoak ere (Zornotza, Uribe Kostako Mankomunitatea, Barrika, Berango, Gorliz, Sopela, Urduliz, Mallabia, Mungia, Urola Garaiko Mankomunitatea, Erandio, Portugalete eta Irun). Txosten horietako gehienetan neurri zuzentzaileen bat proposatu da.

Adierazitako datuak kontuan hartuta, 2007an 54 udalek eta 3 foru diputaziok landu edo/eta onartu dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako planen bat: Abadiño; Abanto eta Zierbana; Zornotza; Amurrio; Areatza; Arrasate; Azkoitia; Azpeitia; Balmaseda; Barakaldo; Barrika\*; Basauri; Berango\*; Berriz; Bilbo; Donostia; Durango; Eibar; Elorrio; Erandio; Ermua; Ezkio-Itsaso\*\*; Galdakao; Gernika-Lumo; Getxo; Gordexola; Gorliz\*; Gueñes; Hernani; Irun; Itsasondo; Laudio; Leioa; Legazpi\*\*; Lemoiz\*; Mallabia; Mungia; Muskiz; Ondarroa; Ortuella; Plentzia\*; Portugalete; Santurtzi; Sopela\*; Tolosa; Ugao; Urduliz\*; Urretxu\*\*; Trapagaran; Gasteiz; Zalla; Zarautz; Zierbena; eta Zumarraga\*\*; eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiak.


Ondorengo grafikoak Lurralde bakoitzean Plan bat duten udalerriek biltzen duten populazio portzentajea erakusten du.

---

\* Plan propioa eta plan mankomunatua dute (Uribe Kosta Mankomunitatea)

\*\* Plan mankomunatua dute (Urola Garaiko Mankomunitatea)

### Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan bat duten udalerriek biltzen duten Biztanle Portzentajea



■ Araba (255.678 biztanle) ■ Bizkaia (974.473 biztanle) ■ Gipuzkoa (394.530 biztanle)

Grafikoak erakusten duen bezala, Bizkaiko biztanleriaren ia %90 Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Planen bat duten udalerritan bizi dira. Arabaren kasuan, biztanleriaren %80 baino pixka bat gehiago. Gipuzkoan, berriz, biztanleriaren ia %60.

Datu horien arabera, EAEko biztanleriaren %76,3 emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako plan bat duten udalerritan bizi da.

#### – Ebaluazioa

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politiken ebaluazioarekin lotutako jarduerak, 2007an, ondorengo hauek izan dira:

#### Administrazio Orokorra

Eusko Jaurlaritzako sail guztiek egin dute 2007. urteari dagokion programa operatiboko Segimendu Txostena. Horietan oinarrituta, Emakundek Segimendu Txosten orokorra egin eta aurkeztu dio Sailen Arteko Batzordeari.

- Bestalde, Emakundek "2006 urtean Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Plana Botere Publikoen Alorrean Gauzatzeari Buruzko Jarduera Txostena" eta "Emakume eta Gizonen arteko Egoerari Buruzko Kopuruak Euskadin" urteko txostena egin direla jakinarazi du; eta Eustatek, berriz, Eustaten berdintasunerako planeko ekintza bakoitzerako zehaztutako adierazleen hasierako balorazioa egin dela adierazi du.

### **Foru Administrazioa**

Ez du emakumeen eta gizonen berdintasunerako planen edo programen ebaluazioarekin lotutako inolako jardueraren berri eman.

### **Tokiko Administrazioa**


Sei udalek eman dute Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako beren Planen ebaluazioarekin edo segimenduarekin lotutako jarduerari buruzko informazioa:

- Bilbo (n=2)
- Gueñes
- Abadiño
- Amurrio
- Abanto-Zierbena
- Leioa
  
- **Programazioan edo/eta Ebaluazioan izandako gastu ekonomiko espezifikoa**

Egindako 42 jarduera mota horietatik, Erakunde Publikoek 19ren gastu ekonomikoa jakinarazi dute: hamabi, Planen lanketari dagozkio; eta zazpi, Planen ebaluazioari edo segimenduari.

Guztira, programazioak eta ebaluazioak egiteko 1.098.955,43 € erabili dira: %89,5 programaziorako, eta gainerako %10,5a ebaluaziorako.

**Erakunde Publikoek Planifikazioan eta Ebaluazioan egindako gastuaren banaketa (N= 19)**



**5. ERAKUNDE PUBLIKOETAN GENERO-IKUSPEGIA SARTZEA SUSTATZEKO EGINDAKO JARDUERAK**

Atal honetan bildutako jarduerak erakundeetan genero-ikuspegia integratzen ahalbidetzeko eta laguntzeko dira. Indar handiko jarduerak dira eta efektu biderkatzaile handia dute. Jarduera horiek nahitaezkoak dira erakunde publikoek berdintasun-politika eraldatzaileak egin ditzaten, eta gizartean dagoen sexuen arteko aldea murriz dezaten. IV. Planean jarduera hauek egin dira:

- Berdintasunerako politikei buruzko prestakuntza eta sentsibilizazioa langileentzako.
- Estatistikak hobetzeko ikerketa eta ezagutza, genero-ikuspegia integratzeko tresna gisa.
- Genero-ikuspegia integratzen dabilatzanei aholkatzea eta laguntzea; bai eta genero-ikuspegia erakundeetan integratzeko tresnak sortzen eta jendarteratzen dabilatzatenei ere.
- Mainstreaming-a ezartzeko baliabideak mobilizatzea eta ikertzea.

Atal honek Berdintasunerako 4/2005 Legean bildutako jarduerak ere jasotzen ditu; neurri hauek, esaterako:

- Administrazioek egiten dituzten estatistiketan eta ikerketetan genero-ikuspegiaren

integrazio eraginkorra bermatzea.

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko Administrazioari langileen trebakuntza egokitzea, jardunbide administratiboan genero-ikuspegia integratzen lagunduko duen behar besteko ezagutza praktikoa izatea bermatzeko asmoz.
- Jarduera arauemailean eta administratiboan berdintasuna sustatzea. Era berean, generoaren eragina aurretiaz ebaluatzea; botere publikoak hizkera ez-sexista erabiltzera derrigortzea; eta diru-laguntzak emateko eta kontratatzeko garaian, genero-ikuspegia baloratzeko irizpidetzat hartzea.


Planak biltzen duen bezala, neurri horien bidez, denboran zehar aurrera egingo duen prozesu bat sustatu eta sendotu nahi da: genero-ikuspegiaren integrazioa euskal administrazio publikoen jardun orokorrean. Neurri horiek pixkanaka finkatuz gero, etorkizunean hartuko diren politika publikoek beren plangintzan eta parte-hartzean genero-ikuspegia kontuan izango dute, eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatuko dute.

Ebaluazioan parte hartu duten erakunde publikoek informazio hau eman dute: erakunde publikoetan genero-ikuspegia integratzen laguntzeko **278 jarduera** egin dira. Hau da, egindako jarduera guztien %23,9.

Jarduera horien erdia baino gehiago Berdintasunerako zerbitzu orokorren arlokoak dira (147; %52,9). Arlo horren helburua da berdintasun-politikak erakundeetan garatzeko oinarrizko baldintzak dituzten zerbitzuak finkatzen laguntzea, eta berdintasun-politiken arduradunentzako gomendatutako lan-eremuak eta jarduerarako helburu espezifikoak jasoko lituzke. Gainerako arloetan ere, eremu edo sektore jakin batean genero-ikuspegia integratzeko jarduerak gomendatzen dira. Beraz, ezaugarri bereko jarduerak egin dira, grafiko honek adierazten duen bezala.



### Genero ikuspegia txertatzeko, arlo bakoitzean egin diren jarduerak




Jarduera horien % 64 (n=78) IV. Planeko 7 helburutan izan dute eragina:

- Erakundeari genero-ikuspegia integratzeko ahalmena ematea (n=90; % 32,4).
- Berdintasun-politikei buruzko interesa eta inplikazioa areagotzea gizartean (n=27; % 9,7).
- Enplegu-zerbitzuetan genero-ikuspegia integratzea (n=20; % 7,2).
- Indarkeria-zikloaren kasuak gero eta goizago atzematea (n=16; % 5,7).
- Kultura-jarduerak genero-ikuspegiari jarraiki planifikatzen eta betearazten dituzten administrazioetako kultura-arloen kopurua handitzea (n=9; % 3,2).
- Indarkeriaren prebentziorako programa esperimentalak egitea ikastetxeetan, berdintasunean oinarritutako bizikidetzak eta lankidetzak lortzeko harremanen kultura aldatuta (n=8; % 2,9).
- Administrazio publikoetako gizarte-ekintzako arloetako diagnostikoetan, planifikazioetan, esku-hartzeetan eta ebaluazioetan genero-ikuspegia integratzea (n=8; % 2,9).

Erakunde publikoek genero-ikuspegia beren jardueretan integratzeko erabiltzen dituzten parte-hartzeko tresnak grafiko honetan adierazita daude.

### Esku hartzeko erabili diren tresnak



Gai hauen inguruko jarduerak burutu dira batez ere: Prestakuntza (n=78; % 28); Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea (n=55; % 19,8); Jakintza sortzea (n=65; % 23,4); eta Baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea (n=50; % 18).

Genero-ikuspegia erakunde publikoetan integratzen laguntzeko, erakunde publikoek egin dituzten jardueren ezaugarrien berri hobeto izateko informazioa ematen dute azpiatal hauek.

#### Jakintza sortzea

Jakintzari buruz egin diren 65 jardueren herenak (n=18; % 27,7) **sexuaren aldagaia hartu zuen kontuan**, sistematikoki, azterketak eta ikerketak egiteko orduan.

Beste jarduera mota aipagarria hauxe izan da: **emakumeen eta gizonen egoeraren berri izateko diagnostikoak egitea** (n=16; % 24,6). Diagnostiko horiek eremu hauetan egin dira: garraioa, etxebizitza, parte-hartzea, jasotzen diren gizarte-laguntzak, gizarte-bazterkeria, kirola, orokorra, administrazioa, bateragarritasuna, lanbide-orientazioa eta gazteria. Ikusitako emaitzen ondorioz, hauek dira egin diren jardueretako batzuk:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako plana egitea (n=2).
- Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunerako plana egitea Lanbide Heziketako ikastetxe batean (n=1).
- Hobekuntza Plana egitea kirolaren eremuan (n=1).
- Hizkera sexistaren erabilera zuzentzea eta gai horri buruzko orientazioak ematea (n=1).


Horrez gainera, 7 erakunde publiko hauek generoaren araberako eraginaren 9 ebaluazio egin dituztela jakinarazi dute: Kultura Saila (n=2), Garraio eta Herri Lan Saila (n=2), Industria, Merkataritza eta Turismo Saila (n=1), Lurraren Antolamendu eta Ingurumen Saila (n=1), Herrizaingo Saila (N=1), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (n=1) eta Arabako Foru Aldundia (n=1). Gai horrekin lotuta, Emakundek txosten bat idatziko duela azaldu du, 2007an eman diren generoaren araberako eraginaren ebaluazio-txostenei buruzkoa.

Hona hemen beste jarduera aipagarri batzuk:

- Jardunbide klinikorako gidak aztertzea (n=4).
- Genero-ikuspegitik garraioak zer behar dituen aztertzeko tresnak diseinatzea (n=4).
- Hirigintza, garraio eta ingurumen eremuetan erabakiak hartzeko eta planifikatzeko garaian emakumeek duten parte-hartzearen diagnostikoa egitea (n=4).
- Enplegurako, lanerako prestakuntzarako eta enplegu-prestakuntzarako informazioa eta orientazioa ematen lan egiten duten erakundeetan, sexuka banandutako estatistika-informazioa biltzeko datu-base homogeneousak diseinatzea (n=3).

Administrazio Orokorrak egin ditu ezagutza-jarduera gehienak (n=45; % 69,2).

### Hiru administrazio mailek burututako ezagutza jarduerak, genero ikuspegia txertatzeko




Administrazio Orokorrean, 17 erakunde publikok egin dituzte jarduera mota horietatik. Erakunde publiko horietatik bostek jardueraren % 46,7 egin dute (n=21): Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila (n=6), Osakidetza-Osasun Saila (n=5), Garraio eta Herri Lan Saila (n=6), eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (n=4).

Foru Administrazioari dagokionez, Arabako Foru Aldundiak egin ditu jarduera gehienak (n=4).

Tokiko Administrazioan, berriz, 8 udalek eta mankomunitate batek 12 jarduera egin dituzte guztira: Bilbo (n=3), Getxo (n=2), Arrigorriaga, Donostia, Galdakao, Laudio, Ondarroa, Errenteria eta Uribe Kostako Mankomunitatea (n=1, hurrenez hurren).

65 jardueretatik 14 egiteko (% 21,5), 212.130,20 € gehiago jarri behar izan zuten jarduera horiek egiteko ardura zuten erakundeek. Gainerako jarduerak ez zuten gasturik izan, edo ez zen horri buruzko daturik eman. Administrazioko hiru mailen artean egindako gastu osoaren banaketa grafiko honetan adierazten da.

## Genero-ikuspegia integratzeko, administrazio hirurak egindako ezagutza-jardueren gastua nola banatu den



Tokiko Administrazioak eman du, proportzionalki, diagnostikoak eta ikerketak egiteko diru gehiena. Jarduera bakoitzaren batez besteko gastua 10.486 €-koa izan da.


### Sentsibilizazioa, informazioa, jendarteratzea

Administrazioetan genero-ikuspegia integratzeko, mota honetako 55 jarduera egin dira guztira. %69,1 (n=38) honelako jarduerak izan dira:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin lotuta dauden gai buruzko sentsibilizazioa eta informazioa ematea herritarrei (n=24).
- Hizkera ez-sexista erabiltzearekin zerikusia duten materialak egitea eta haiei buruzko orientazioa ematea (n=7).
- Nazioko eta nazioarteko topaketetan parte-hartzea; esperientzia eta informazioa trukitzea (n=4).
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko sentsibilizazioa eta orientazioa ematea, eta genero-ikuspegia jarduera-programetan integratzeak zer garrantzi duen azaltzea Administrazio langileei (n=3).

Egindako 55 jardueretatik 3tan, bateragarritasuna errazteko neurriak erabili zituzten (% 5,4), eta ezaugarri bereziko taldeen (etorkinak eta ezinduak) beharretara egokitu ziren.

Administrazio Orokorrak egin ditu sentsibilizazio-jarduera gehienak (n=32; % 58,2).



Administrazio Orokorrean, 4 erakunde publikok egin dituzte jarduera mota horiek: Emakunde (n=6), Kultura Saila (n=5), Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila (n=4), eta Osasun Saila eta Osakidetza (n=4).

Foru Administrazioari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiak egin du jardueren erdia (n=2).

Tokiko Administrazioan, berriz, 13 udalek eta mankomunitate batek egin dituzte jarduera mota horiek: Getxo (n=3); Arrigorriaga, Gasteiz eta Zalla (n=2, hurrenez hurren); eta Abadiño, Ermua, Leioa, Mungia, Ondarroa, Trapagaran, Donostia, Eibar, Irun eta Urola Garaiko Mankomunitatea (n=1, hurrenez hurren).


Erakunde publikoek emandako datuen arabera, sentsibilizazio-jardueretara administrazioetako 604 profesional joan dira. Profesional horietatik 363 (% 60,1) emakumeak ziren, eta 241 (% 39,9), berriz, gizonak. Taula honetan jarduera horietara profesionalen zer talde joan den adierazten da.

TALDEAK	emakumeak	gizonak	Guztira
FORU ADMINISTRAZIOKO ARDURADUN POLITIKOAK	3	-	3
TOKIKO ADMINISTRAZIOKO ARDURADUN POLITIKOAK	6	5	11
FORU ADMINISTRAZIOAN ARDURA TEKNIKOAK DUTEN PROFESIONALAK	3	-	3
TOKIKO ADMINISTRAZIOAN ARDURA TEKNIKOAK DUTEN PROFESIONALAK	7	1	8

ENPLEGUAREN ETA PRESTAKUNTZAREN ARLOKO PROFESIONALAK	126	176	302
IKASTETXEETAKO ETA HEZKUNTZA-ZERBITZUETAKO PROFESIONALAK	36	11	47
OSASUN-ZERBITZUETAKO PROFESIONALAK	121	30	151
GIZARTE ZERBITZUETAKO PROFESIONALAK	6	-	6
KULTURAREN ARLOKO PROFESIONALAK	4	5	9
EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO AUKERA-BERDINTASUNAREN ARLOKO PROFESIONALAK	24	13	37
<b>Guztira</b>	<b>363</b>	<b>241</b>	<b>604</b>

Egindako 55 sentsibilizazio-jardueretatik 27 egiteko (% 49,1) 148.606,83 € gehiago jarri behar izan zuten jarduera horiek egiteko ardura zuten erakundeek. Gainerako jarduerak ez zuten gasturik izan, edo ez zen horri buruzko daturik eman. Guztizko gastua honela banatu da administrazioko hiru mailen artean.

**Genero ikuspegia txertatzeko egin diren sentsibilizazio jardueren gastua nola banatu den Administrazioko hiru mailen artean**



Administrazioan genero-ikuspegia integratzeko, sentsibilizazio- eta informazio-jarduerak egiteko diru gehiena Administrazio Orokorrak eman du.

### **Prestakuntza**

78 prestakuntza-jarduera egin dira, administrazioetan genero-ikuspegia integratzeko. Jardueren % 69,3 (n=55) jarduera mota hauek izan dira:


- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari, eta genero-ikuspegia integratzeari buruzko prestakuntza, administrazio politikiarientzako eta teknikarientzako, bai eta administrazioarekin lotutako beste profesional batzuentzako ere (n=32).
- Indarkeria-zikloaren hasiera gero eta goizago atzemateko, eta indarkeria fisikoa eta autoindarkeria prebenitzeko, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko prestakuntza espezializatua, gizarte-zerbitzuetako, ertzaintzako eta hezkuntza arloko profesionalentzako (n=15).
- Hezkidetzari buruzko prestakuntza irakasleentzako (n=4).
- Enplegu-zerbitzuetako eta entitate laguntzaileetako langileei prestakuntza ematea, lan-munduratzeari laguntzeko prozesu integralaren fase bakoitzean genero-ikuspegia nola txertatu behar den irakasteko: informazioa, prestakuntza, laguntza eta jarraipena ematea lan-munduratzeari; eta enpresa sustapena eta autoenplegua (n=4).

Egindako 78 prestakuntza-jardueren % 32,1ean (n=25), neurriak aurreikusi ziren, prestakuntza jaso zuten pertsonen bizitza pertsonala, familia- eta lan-bizitzak bateragarri egiteko. 22 jardueretan neurri motei buruzko informazioa eman zen: ordutegiak egokitzea (n=16); haurtzaindegi zerbitzua eta inoren laguntza behar duten pertsonen zainketa, oro har (n=6); amatasunagatik/aitatasunagatik baimenagatik, adopzioagatik, haur bat harreran hartzeagatik jardueretara joateko aukera izatea (n=3).

Grafiko honek adierazten du Administrazio Orokorrak eta Tokiko Administrazioak egin dituztela prestakuntza-jarduera gehienak (% 48,7 eta % 32,1, hurrenez hurren).



**Hiru administrazio mailetan burututako prestakuntza jarduerak, genero ikuspegia txertatzea ahalbidetzeko**



Administrazio Orokorrean, 8 erakunde publikok egin dituzte jarduerak mota horiek. Jardueren heren bat (n=13) Emakundek egin ditu. Gainerakoekin alderatuz, Polizia Ikastegian eta Osasun Sailean ere prestakuntza jarduerak ugari egin dira (n=7 eta n=5, hurrenez hurren).

Foru Administrazioan, Arabako Foru Aldundiak jardueren erdia baino gehixeago egin ditu (n=8); Bizkaiak eta Gipuzkoak, berriz, n=6 eta n=1 hurrenez hurren.

Tokiko Administrazioan, 14 udalek eta Eudel-ek egin dituzte jarduerak mota horiek. Bilboko Udalak egin dituzte jarduerak gehienak (n=5). Gainerako 13 udalek eta Eudel-ek prestakuntza-jarduerak bat edo bi egin dituzte.

Erakunde publikoek datuak eman dituzte, prestakuntza jaso duten administrazioetako profesionalen kopuruari buruzkoak. Taula honetan adierazten dira datu horiek (profesionalen % 52,3 emakumeak ziren; eta %47,7 gizonak).


TALDEAK	emakumeak	gizonak	guztira
ADMINISTRAZIO OROKORREKO ARDURADUN POLITIKOAK	6	2	8
TOKIKO ADMINISTRAZIOKO ARDURADUN POLITIKOAK	81	15	96
ADMINISTRAZIO OROKORREAN ARDURA TEKNIKOA DUTEN PROFESIONALAK	146	67	213

FORU ADMINISTRAZIOAN ARDURA TEKNIKOA DUTEN PROFESIONALAK	220	41	261
TOKIKO ADMINISTRAZIOAN ARDURA TEKNIKOA DUTEN PROFESIONALAK	128	40	168
ENPLEGUAREN ETA PRESTAKUNTZAREN ARLOKO PROFESIONALAK	251	42	293
POLIZIKO PROFESIONALAK	113	857	970
IKASTETXEETAKO ETA HEZKUNTZA-ZERBITZUETAKO PROFESIONALAK	570	484	1.054
OSASUN-ZERBITZUETAKO PROFESIONALAK	117	55	172
KULTURAREN ARLOKO PROFESIONALAK	8	2	10
GIZARTE-ZERBITZUETAKO PROFESIONALAK	85	6	91
EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO AUKERA-BERDINTASUNAREN ARLOKO PROFESIONALAK	38	0	38
<b>Guztira</b>	<b>1.763</b>	<b>1.611</b>	<b>3.374</b>

2007an prestakuntza jaso duten administrazioetako profesionalen %60 hezkuntzaren arloko (n=1054) eta poliziako (n=970) profesionalak izan dira. Halaber, azpimarratzekoa da Administrazio Orokorreko eta Foru Administrazioetako teknikariek, eta enpleguaren eta prestakuntzaren arloko profesionalak jasotako prestakuntza.

78 jardueretatik 36 egiteko (% 46,2) 199.704,90 € gehiago jarri behar izan zuten jarduerak horiek egiteko ardura zuten erakundeek. Gainerako jarduerak ez zuten gasturik izan, edo ez zen horri buruzko daturik eman. Guztizko gastua honela banatu da administrazioetako hiru mailen artean.

### Hiru administrazio mailek eginiko gastua, genero ikuspegia txertatzea ahalbidetzeko prestakuntza jardueretan



Tokiko Administrazioiko eta Administrazio Orokorreko erakunde publikoak gastatu dute diru gehiena, genero-ikuspegia administrazioetan integratzen laguntzeko prestakuntza-jarduerak egiteko.

### Baliabideak eta zerbitzuak


Baliabideak eta zerbitzuak egokitzeko eta sortzeko 50 jarduera burutu dira, administrazioko langileei genero-ikuspegia integratzen laguntzeko. Jardueren %82 (n=41) gai hauei buruzkoak izan dira:

- Berdintasun-politikaren hainbat gairi buruzko aholkularitza eta laguntza ematea, eta proposamenak egitea (enplegua, estatistikak, diru-laguntzak, prestakuntza, bateragarritasuna, langileak, gazteak, immigrazioa, gutxiengo etnikoak...) (n=28).
- Administrazioaren barruko lan-taldeak sortzea, prestakuntzaren inguruko beharrak atzemateko, prestakuntza-planak prestatzeko, eta tokiko administrazioan berdintasunerako langile teknikoak kontratatzeko oinarrien eredua diseinatzeko; udalerrietako plangintza eta jarduerak orientatzea (n=5).
- Gida edo material didaktikoak prestatzea eta/edo banatzea (hizkuntzaren erabilera ez-sexista); lan- edo sexu-jazarpenetan bitartekari lanak egitea; aukera profesionalei buruzko gida didaktikoa; emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eskolatik hasita (n=4).

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean espezializatutako langile teknikoak edo aholkularitza-enpresak kontratatzea (n=2).
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari eta generoari buruzko dokumentazio-zentroei laguntzea eta haien mantentze-lanak egitea (n=2).

Jarduera horien ia bi heren egin ditu Administrazio Orokorrak (n=33; % 66).

**Baliabideak eta zerbitzuak egokitzeko eta sortzeko asmoz hiru administrazio mailek burututako jarduerak, genero ikuspegia txertatze aldera**



Administrazio Orokorraren barruan, Emakunde jardueren %55,9 egin ditu; beste 7 erakunde publikok ere jarduera mota horiek egin dituzte.

Foru Administrazioan egindako 3 jarduerak Arabako Foru Aldundiak egin ditu.

Tokiko Administrazioan, 8 udalek eta mankomunitate batek egin dituzte jarduera mota horiek; Gasteizko eta Eibarko udalek egin dituzte jarduera mota horietako gehienak (n=4 eta n=2, hurrenez hurren).


Taula honek adierazten du **Genero-ikuspegia ezartzeko laguntza- eta aholkularitza-baliabideak** Administrazioaren zenbat profesionalentzat izan diren; hau da, profesionalen kopurua adierazten du.

TALDEAK	emakumeak	gizoneak	guztira
ADMINISTRAZIO OROKORREKO ARDURADUN TEKNIKOAK	160	84	244
TOKIKO ADMINISTRAZIOAN ARDURA TEKNIKOAK DUTEN PROFESIONALAK	55	15	70
IKASTETXEETAKO ETA HEZKUNTZA-ZERBITZUETAKO PROFESIONALAK	15	2	17
KULTURAREN ARLOKO PROFESIONALAK	3	47	50
EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO AUKERA-BERDINTASUNAREN ARLOKO PROFESIONALAK	16	1	17
<b>Guztira</b>	<b>249</b>	<b>149</b>	<b>398</b>

Administrazio Orokorrean ardura teknikoa duten pertsonak izan dira lehen aipatutako baliabideen eta zerbitzuen onuradun handienak (n=244; % 61,3). Era berean, jarduera hauen onuradunak batez ere emakumeak ziren (% 62,6). Datu hori logikoa da, administrazio publikoan emakume kopuru handiak egiten baitu lan.

Jardueren %34 egiteko (n=17) 245.876 € gehiago jarri behar izan zuten jarduera horiek egiteko ardura zuten erakundeek. Gainerako jarduerak ez zuten gasturik izan, edo ez zen horri buruzko daturik eman. Guztizko gastua honela banatu da administrazioaren hiru mailen artean.

**Zerbitzu eta baliabideetan hiru administrazio mailek eginiko gastua, genero ikuspegia txertatze aldera**



Emandako informazioaren arabera, Administrazio Orokorrek administrazioan genero-ikuspegia integratzen laguntzeko baliabideetan eta zerbitzuetan egindako gastuaren bi heren ordaindu ditu, gutxi gorabehera.


## **Arauk sortzea eta egokitzea**

25 jarduera burutu dira, eta jardueren % 56 (n=14) izan dira berdintasun-klausulak edo ekintza positiboko irizpideak kontratazioetan, diru-laguntzetan, kontratuetan eta lankidetzahitzarmenetan ezartzeari buruzkoak. Hauek izan dira egindako beste jarduera batzuk:

- Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren maiatzaren 31ko 1/2000 Zirkularra, kontratazio administratiboan berdintasun-politikak ezartzeko hartu beharreko neurriei buruzkoa (n=3).
- Berdintasun-gaiak sartzeari buruzko hautaketa-probetarako deialdietako oinarrietan (n=3).
- Hautapen-epaimahaietan pareko presetzia izatea emakumeek eta gizonen (n=1)
- LPZ aldatzeko eta langile gehiago kontratatzeko egin behar diren tramiteekin jarraitzea (n=1).
- Ordutegi malgutasun handiagoa ematea familia-zamak dituzten langileei, hala eskatzen badute (n=1).
- Zuzendaritzari zirkularrak bidaltzea, berdintasun-ekintzak burutzeko aurrekontuko partida zehatzak izenda ditzaten, onartutako emakumeen eta gizonen berdintasun-planeari aurreikusten den legez (n=1).
- Zirkularrak bidaltzea, etorkizunean jardunbide klinikoko gidak prestatzerakoan, kontuan izan daitezkeen emakumeen eta gizonen ezaugarri biologikoak, (n=1).

Administrazio Orokorrek egin dituzten jardueren % 64a (n=16).

**Arauek sortzeko eta egokitzeko asmoz hiru administrazio mailek burututako jarduerak, genero ikuspegia txertatze aldera**



Administrazio Orokorren barruan, Kultura Sailak egin dituzten jardueren mota horretako gehienak (n=5). Kultura Sailaren atzetik, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak (n=2), Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak (n=2) eta Barne Sailak (n=2) izan dira jardueren mota horietako gehienak egin dituztenak.

Foru Administrazioan, Bizkaiko eta Arabako foru aldundiek egin dituzten jardueren mota horiek (biek 2).

Bilbo, Irun, Getxo eta Lekeitiko udalek jardueren bana burutu dute.

### **Jarraipen-mekanismoak sortzea eta egokitzea**

5 jardueren burutu dira, eta ezaugarri hauek dituzte:

- *Osasun Plana 2006* ebaluatzea, genero-adierazleak sartuz.
- Tratu txarren eta sexu-erasoen biktima izan diren emakumeak artatzeko Erakundearen Arteko Akordioa zenbateraino bete den ebaluatzea.
- Enpresetan eta erakundeetan emakume eta gizonen berdintasunean laguntza teknikoa ematen duten aholkularitza erakunde homologatuen jarraipena egitea.

- Berdinsarearen Jarraipen-batzordearen koordinazioa eta dinamizazioa.
- Genero-desberdintasunaren bilakaeraren jarraipena egitea Bizkaiko Lurralde Historikoan.

Erakunde hauek egin dituzte jarduera horiek: Emakunde (n=2), Bizkaiko Foru Aldundia (n=2), Osasun Saila (n=1) eta EUDEL (n=1). Jarduerak ez diete eragin inolako gastu gehigarrik erakundeei.


## 6. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO POLITIKA SEKTORIALAK ETA ZEHARKAKO POLITIKAK

Atal honetan jasotako jardueren helburu nagusiak hauek dira: tratu- eta aukera-berdintasuna sustatzea; eta/edo askotariko diskriminazioa eta/edo gizarte-bazterkeria pairatzeko arriskuan dauden emakumeek, oro har, eta emakume-talde zehatzek, batez ere, bizi duten diskriminazioa atzematea, hedatzea eta desagerraraztea.

Erakunde publikoek emandako informazioak adierazten du 2007an ezaugarri horietako **787 jarduera** egin zirela, hau da, egindako guztien % 69,2.

Grafikoan ikus daitekeen legez, egindako jarduera guztien % 79,9 Planaren lau arlo hauetan egin dira: Zerbitzu orokorrak (n=208; % 26,4); Kultura (n=167; % 21,2); Gizarteratzea (n=157; % 19,9); eta Lana (n=98; % 12,4).

**Actuaciones realizadas en cada área dirigidas específicamente a promover la igualdad de trato y de oportunidades de mujeres y hombres**






IV. Planean aurreikusitako 71 helburuetatik 14ri buruzkoak dira erakunde publikoek egindako jardueren % 53,9:

- Berdintasun-politikei buruzko interesa eta inplikazioa areagotzea gizartean (n=84; % 10,7).
- Emakumeen kulturaren eta artearen arloko sorkuntza handitzea, baita gizartearen ikuspegi ez-sexista sustatzen duena ere (n=81; % 10,3).
- Erakundeari genero-ikuspegia integratzeko ahalmena ematea (n=47; %6).
- Sexu batekoak bestekoak baino duintasun handiagoa edo txikiagoa dutela adierazten duten komunikabide-irudiak eta edukiak desagerraraztea, bai eta pertsonak sexu-objektu huts gisa adierazten dituztenak ere. Halaber, emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, indarkeria horri garrantzia kendu edo indarkeria horretara bultzatzen duten edukiak desagerraraztea (n=42; %5,3).
- Indarkeria-zikloaren kasuak gero eta goizago atzematea (n=31; % 3,9).
- Emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea administrazio publikoetan eta sektore pribatuko enpresetan, okupatutako biztanleriaren proportzio handienak metatzen dituzten jarduera-adarrei lehentasuna emanda (n=20; % 2,5).
- Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borrokan administrazioaren koordinazioa indartzea eta hobetzea (n=19; % 2,4).
- Indarkeriaren prebentziorako programa esperimentalak egitea ikastetxeetan, berdintasunean oinarritutako bizikidetza eta lankidetzak lortzeko harremanen kultura aldatuta (n=16; % 2).
- Tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei arreta, asistentzia eta babesa emateko eskaerei koordinazioaren, kalitatearen eta eraginkortasunaren irizpideen bidez erantzutea. Horretarako, "etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko tokiko protokoloak" ezarriko dira, EAEko udalerrietan (n=16; % 2).
- Tratu txarren biktimei harrera emateko eskaerei kalitatearen eta eraginkortasunaren irizpideen bidez erantzutea, "Etxeko tratu txarren biktimei harrera eta etxebizitza emateko baliabideak hobetzeko" programan jasotako neurriak ezarri eta etengabe hobetzen direla bermatuta (n=15; % 1,9).
- Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko sentsibilizazio-kanpainak egitea (n=14; % 1,8).

- Zaintzako lanak egiten dituztenen zama ekonomikoa, soziala eta psikologikoa murrizteko baliabideak areagotzea (n=14; % 1,8).
- Industria-sektore tradizionalako osagai teknikodun enpleguetan emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, emakumeen parte-hartzea areagotuta (n=13; %1,6).
- Etxeko eta zaintzako lanetan emandako denboran, emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, murrizketa honela zehaztuta: amatasunagatiko/aitatasunagatiko nahiz inoren laguntza behar duten pertsonak zaintzeko baimena edo lizentzia hartzen duten gizonezkoen kopurua handitzea, bai administrazio publikoan, bai sektore pribatuan (n=12; % 1,5).

Erakunde publikoek esku-hartzerako hainbat tresna erabili dituzte, tratu- eta aukeraberdintasuna bultzatzeko eta/edo emakumeek jasaten dituzten diskriminazio-egoerak atzemateko, jendarteratzeko eta desagerrarazteko.



Gehien erabili diren esku-hartzerako bi tresnak hauek izan dira: sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea (n=260; % 33), eta baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea (n=273; % 34,7).

Ondoren, egindako jardueren ezaugarriak azaltzen dira, erabilitako esku-hartzerako tresnaren arabera.

## Jakintza sortzea


Jakintza sortzeko 91 jarduera antolatu dira, eta jarduera horien %46,1 (42 jarduera) Planak aipatzen dituen 10 ekintza hauekin lotuta daude:

- Genero-diagnostikoa egitea, emakumeen lan-baldintzetan izan daitezkeen diskriminazioak eta berdintasun-erak identifikatzea. Horretarako, ezarritako gutxieneko edukiak kontuan hartu dira, eta beharrezko adierazleak prestatu dira, abian jarritako jardueren eragina jarraitzeko eta ebaluatzeko (n=9).
- Etxeko indarkeriaren eta emakumeen aurkako sexu-erasoen eragina eta arrazoiak aztertzea, bai eta halako gertakariak salatu ala ez erabakitzeko garaian eragina duten faktoreak aztertzea ere. Batez ere, askotariko diskriminazioa pairatzen duten emakumeei (ezintasunen bat duten emakumeak, etorkinak, zaharrak...) salaketa ez jartzeko erabakia hartzea bultzatzen dituzten faktoreak azpimarratzea; eta, aztertzea baliabideak bideratu arren, zergatik emakume askok eta askok ez dakiten nora jo erasotutak izanez gero (n=5).
- Emakumeek kultura-ondareari egindako ekarpen historikoa ikertzea eta sistematizatzea; bai eta gizon-emakumeek kultura sortzeko garatu izan dituzten moduak ikertzea eta sistematizatzea, euskal kulturaren alorrean batez ere (n=5).
- EAEko udalerrietan tokiko protokoloak ezartzeko eragozpenak aztertzea eta haiek konpontzeko neurriak hartzea (n=4).
- Gizon-emakumeei kirol-mota bakoitzetik zer interesatzen zaien eta zer espero duten ikertzea, eta administrazioek beren kirol-eskaintzetan zer kirol-mota ez dituzten eskaintzen identifikatzea (n=3).
- Emakumeek kultura-arloan zer gustu, itxaropen, behar eta interes dituzten argitzeko diagnostikoak egitea sustatzea (n=3).
- Pobrezia emakumezkoen kontu bilakatzearen ondorioz, bazterketako arriskuan dauden emakumeen baldintzak, egoerak eta beharrak aztertzea (n=3).

- Emakumeak segurtasunik gabe sentitzen diren udalerriko tokiak identifikatzeko diagnostiko bat egitea (garraio publikoak ere) (hiru jarduera). Horretarako, beharrezkoa da udalerriko emakumeek parte hartzea. Adierazi beharko da udalerriko zer puntutan esku hartu behar den lehentasunez (n=3).
- Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiarekin lotutako tresnak, materialak eta txostenak egitea (n=3).
- Hainbat azterlanetan genero-ikuspegia erabiltzeko proposamenak egitea (n=4).

Jakintza sortzeko jardueren ia bi heren (n=58; % 65,9) Administrazio Orokorrek egin ditu:

**Administrazio hiru mailek jakintza sortzeko eta, hartara, gizon-emakumeen tratu- eta aukera-berdintasuna sustatzeko egindako jarduerak**




Hain zuzen, Administrazio Orokorreko 18 erakunde publikok egin dituzte jakintza sortzeko jarduerak; eta jardueren erdia baino gehiago erakunde hauek egin dituzte: Herrizaingo Saila (n=11), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (n=7), Kultura Sailak (n=7), Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak (n=4) eta Emakundek (n=4).

Foru administrazioen artean, jardueren erdia (n=6) Arabako Foru Aldundiak antolatu ditu; Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundeik, berriz, hiru eta bi jarduera egin dituzte hurrenez hurren.

Tokiko Administrazioko 12 udalek egin dituzte jakintza sortzeko jarduerak, eta, tartean, aipatzekoak dira Arrigorriagako eta Eibarko udalak, lau eta hiru jarduera antolatu baitituzte hurrenez hurren.

91 jardueretako 37 egiteko (%40,7) 904.404,40€ gehiago jarri behar izan zuten jarduera horiek egiteko ardura zuten erakundeek. Gainerako jarduerak ez zuten gasturik izan, edo ez zen horri buruzko daturik eman. Administrazioko hiru mailen artean egindako gastu osoaren banaketa grafiko honetan adierazten da.

**Hiru administrazio mailek jakintza sortzeko eta, hartara, gizon-emakumeen tratu eta aukera berdintasuna sustatzeko egindako jardueren gastuaren banaketa**



Administrazio Orokorrak jardueren bi heren egin ditu, eta jakintza sortzeko erabilitako diruaren %80,4 eman du.


## **Sentsibilizazioa, informazioa, jendarteratzea**

273 jarduera sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzearekin zerikusia izan dute, eta jarduera horien erdia baino apur bat gehiago (n=144; % 52,7,) IV. Planeko zortzi ekintza hauekin lotuta daude:

- Gizarte-, kultura- eta komunikabide-eremuan batez ere, herritarrak emakumeen aurkako indarkeriaren eta haren adierazpenen jatorriaz sentsibilizatzeko kanpainak egitea, irudi eta eduki sexistak identifikatzeko, eta hura salatzen bultzatzea, horretarako antolatutako bideen berri emanez (n=42; %15,4).
- Kultura-sorkuntzaren eta emakumeen inguruko eztabaida publikoa sustatzea, eztabaida-foroak eta topaketak antolatuta, emakumeek kulturari egindako ekarpen historikoa ezagutarazita, eta historian zehar emakumeek kultura sortzeko izan dituzten moduak balioetsita (n=38; % 13,9).
- Hizkera ez-sexistari buruzko dokumentuak berrikustea eta egokitzea (n=29; %10,6).
- Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak egitea, baita indarkeria-zikloaren eta indarkeria pairatzen duten emakumeentzako baliabideen berri emateko eta ezagutarazteko kanpainak ere, indarkeria-zikloa goiz atzematen eta laguntzaile-eragile informal gisa inplika daitezkeen lortzeko (n=9; % 3,3).
- Emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko komunikazio-kanpainak egitea, prentsan, irratan eta telebistan (n=7; % 2,6).
- Emakume sortzaileen eta artisten topaketak eta jardunaldiak egitea, haien lanari balioa emateko, esperientziak elkartrukatzeko, jardunbideak sistematizatzeko eta sareak sortzeko (n=7; % 2,6).
- Sariak ematea, emakumeen kultura- eta arte-sorkuntza sustatzeko eta nabarmentzeko (n=6; % 2,2).
- Ikastetxeentzako sentsibilizazio-programak prestatzea, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko (n=6; % 2,2).

Tokiko Administrazioak sentsibilizazio-jardueren erdia baino gehiago (n=159; % 58,2) egin ditu:

**Hiru administrazio mailek gizon-emakumeen tratu eta aukera berdintasuna sustatzeko egindako sentsibilizazio-jarduerak**



Administrazio Orokorreko 19 erakundek egin dituzte alor honetako jarduerak; eta bost hauek erdia baino gehixeago antolatu dituzte: Emakunde (n=16), Osasun Saila (n=2), Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak (n=10), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak (n=9) eta Herrizaingo Saila (n=7).

Foru administrazioen artean, Arabako Foru Aldundiak jarduera mota horien ia bi heren (n=11) egin ditu.

Azkenik, Tokiko Administrazioko 41 udalek eta bi mankomunitatek egin dituzte sentsibilizazio-jarduerak, eta jardueren % 29,7 hamar erakunde hauek egin dituzte: Mungiako Udalak (n=10), Zalla (n=9), Arrigorriaga (n=9), Bilbokoak (n=8), Abanto-Zierbena (n=8), Donostia (n=8), Gasteiz (n=7), Eibar (n=8) eta Getxo (n=7).

273 jardueretako 33 (% 12,1) ezaugarri bereziko taldeentzat egokitu dira: zortzi etorkinentzat egokitu dira; eta 25, ezintasunen bat duten pertsonentzat.

51 jarduera (% 18,7) lana eta familia bateragarri egiteko neurriei buruzkoak izan dira: ordutegia egokitzea (n=18); haurrak eta, oro har, inoren laguntza behar dute pertsonak zaintzeko zerbitzuak sortzea (n=33).


Erakunde publikoek emandako datuek adierazten dutenez, 14.435 lagunek hartu dute parte sentsibilizazio, informazio eta jendarteratzearen inguruko jardueretan zuzenean (hala nola,

jardunaldietan eta bestelako batzarretan); 9.489 emakumeak izan dira (% 65,7), eta 4.946 gizonak (% 34,3).

TALDEAK	emakumeak	gizonak	Guztira
DISKRIMINAZIOA EDO/ETA GIZARTE-BAZTERKETA PAIRATZEKO ARRISKUAN DAUDEN EMAKUMEAK	842		842
GIZARTEA ORO HAR	7.383	4.855	12.238
ELKARTEAK ETA ERAKUNDEAK	1.264	91	1.355
<b>Guztira</b>	<b>9.489</b>	<b>4.946</b>	<b>14.435</b>

273 jarduetatik %34,8 egiteko (n=95) 2.826.084,79€ gehiago jarri behar izan zuten jarduera horiek egiteko ardura zuten erakundeek. Gainerako jarduerak ez zuten gasturik izan, edo ez zen horri buruzko daturik eman. Administrazio hiru mailen artean egindako gastu osoaren banaketa grafiko honetan adierazten da.

**Administrazio hiru mailek gizon-emakumeen tratu- eta aukera-berdintasuna sustatzeko egindako sentsibilizazio-jardueren gastuaren banaketa**



Administrazio Orokorrak bideratu du diru gehien sentsibilizazio eta informazioari buruzko jarduerak antolatzeke, hartara, gizon-emakumeen tratu eta aukera-berdintasuna sustatzeko.

### Prestakuntza

70 jarduera egin dira guztira prestakuntzaren alorrean, eta jarduera horien % 54,3 (n=38) bost ekintza hauen ingurukoak izan dira:




- Emakumeentzako garapen pertsonaleko ikastaroak (maila guztietakoak) egitea (n=20).
- Berdintasunaren alde lan egiten duten elkarteek, taldeek eta gizarte-eragileek batzarrak eta hausnarketa egiteko, eta nor bere esperientzia elkarri jakinarazteko jardunaldiak egitea (n=8).
- Prestakuntza-eskaintzan antolaketa-eredu berriei, lidergo estiloei, ekoizpen-moduei... buruzko moduluak, eta industria-sektorean lan egin nahi duten emakumeei laguntzeko prestakuntza sartzeari (n=8).
- Emakumeentzako (bikote arazoei aurre egiteko, gatazkak konpontzeko, maitasun-gaietan negoziatzeko...) prestakuntza-ekintzak antolatzea. Ekintza horien helburua da emakumeek indarkeria-zikloaren berri izatea, eta indarkeriaren biktima badira, zikloan murgilduta daudela aitortzea (n=3).
- Emakumeentzako ahalduntzeko ikastaroak (n=3).

Jardueren %17,1 egiteko (n=12), prestakuntza ezaugarri bereziko taldeentzako egokitu da, eta jardueren %35,7an (n=25), lana eta familia bateragarri egiteko neurriak ezarri dira: ordutegia egokitzea (n=17); eta haurrak eta, oro har, inoren laguntza behar duten pertsonak zaintzeko zerbitzuak sortzea (n=8).

Tokiko Administrazioako erakundeek antolatu dituzte prestakuntza-jarduera gehienak: (n=50; % 71,4):

### Hiru administrazio mailek gizon-emakumeen tratu eta aukera berdintasuna sustatzeko egindako prestakuntza jarduerak



Administrazio Orokorreko sei erakunde publikok egin dituzte prestakuntza-jarduerak; eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak eta Emakundek egin dituzte gehienak (n=4, bakoitzak).

Foru administrazioan, Arabako Foru Aldundiak antolatu ditu ia jarduera guztiak (n=6).

Tokiko Administrazioari dagokionez, 23 udalek egin dituzte prestakuntza-jarduerak, eta hauek egin dituzte maiztasun handiagoz: Mungia (n=5); Irun (n=5); Getxo (n=5); Leioa (n=3); eta Zalla (n=3).


Jardueren hartzaile-taldeei dagokienez, erakundeek emandako datuen arabera, gizarteko hainbat taldetako 3.572 lagunek parte hartu dute; 3.250 (%91) emakumeak izan dira, eta 322 (%9), gizonak:

TALDEAK	emakumeak	gizonak	Guztira
DISKRIMINAZIOA ETA/EDO GIZARTE-BAZTERKERIA PAIRATZEKO ARRISKUAN DAUDEN EMAKUMEAK	175	28	203
GIZARTEA ORO HAR	2.421	289	2.710
ELKARTEAK ETA ERAKUNDEAK	654	5	659
<b>Guztira</b>	<b>3.250</b>	<b>322</b>	<b>3.572</b>

70 jardueren hiru laurden egiteko (%75,7k, 53 jarduerak) 1.135.076,61€ gehiago jarri behar izan zuten jarduera horiek egiteko ardura zuten erakundeek. Gainerako jarduerak ez zuten

gasturik izan, edo ez zen horri buruzko daturik eman. Administraziooko hiru mailen artean egindako gastu osoaren banaketa grafiko honetan adierazten da.

#### Hiru administrazio mailek gizon-emakumeen tratu eta aukera berdintasuna sustatzeko egindako prestakuntza jardueren gastuaren banaketa



Administrazio Orokorrak bideratu du baliabide ekonomiko osagarri gehien prestakuntza-jarduerak antolatzeke eta, hartara, gizon-emakumeen tratu- eta aukera-berdintasuna sustatzeko.

#### Baliabideak eta zerbitzuak

260 jarduera egin dira baliabide eta zerbitzu espezifikoak egokitzeko eta sortzeko. Jarduera horien %50,4 (n=131) IV. Planeko hamabi ekintza hauei buruzkoak izan dira:

- Berdintasunaren aldeko emakume-elkarteei diru-laguntzak emateko programak (n=34).
- Emakumeentzako lege-aholkularitzako eta aholkularitza psikologikoko zerbitzuak (n=25).
- Ahalduntze-eskolak sortzea eta haiek mantentzea sustatzea (n=13).
- Sailen eta erakundeen arteko koordinazioko ekintzak egitea, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteari buruzkoak (n=13).


- Pobrezia emakumezkoen kontu bilakatzearen ondorioz, gizarte-bazterketako arriskuan dauden emakumeen baldintzak hobetzeko gizarte-laguntza osagarriak edo laguntza ekonomiko osagarriak ezartzea (n=10).
- Administrazio publikoetako gizarte-ekintzako sailek autonomiarik gabekoak laguntzen dituzten emakumeak/pertsonak laguntzeko eta orientatzeko zerbitzu espezifikoak sortzea. Zerbitzu hauek izango lirateke, besteak beste: gogoeta-taldeak, prestakuntza-ekintzak, laguntza psikologikoa, baliabide sozioekonomikoei buruzko orientabidea, laguntza-sistemak eta atsedeen hartzeko sistemak... (n=9).
- Maskulinitate-ereduen, eta berdintasunean oinarritutako banakako eta taldekako harremanen inguruan lan egiteko gizonen taldeak sortzea sustatzea (n=5).
- Mugimendu asoziatiboan eta berdintasun-politiken arduradunen artean harreman- eta komunikazio-mekanismo egonkorak ezartzea, jakintzak elkarren artean trukatzeko errazteko eta mugimendu asoziatiboa sendotzeko neurriak eguneratzeko (n=5).
- EAEko udalerrietan etxeko indarkeriari eta sexu-erasoei aurre egiteko tokiko protokoloak ezartzeko laguntzak (n=5).
- "Berdinsarea: indarkeriaren aurkako eta berdintasunaren aldeko udalerrak" sarea ezartzea eta sendotzea; emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez, homogeneotasunez aritzeko, koordinazioa hobetzeko eta biktimetako laguntza hobetzeko (n=4).
- Harrera-etxeetako segurtasun-sistemak hobetzeko diru-laguntzak areagotzea, eta harrera-etxeek laguntza- eta babes-zerbitzuak ematen dituzten langileez hornitzea (n=4).
- Emakume-elkarteek berdintasun-politikak zehazten, jarraitzen eta ebaluatzen parte hartzea sustatzea (n=4).

260 jardueren %20,4 (n=53) alde aurretik genero-diagnostikoa egitearen ondorio izan da.

Baliabideak eta zerbitzuak egokitzeari eta sortzeari dagokionez, 35 jardueretan (%13,5) ezaugarri bereziko taldeentzat egokitzapenak egin dira (etorkinak; ezinduek; eta garraiorako eta mugikortasun geografikorako laguntza behar dutenak); eta 34 jardueretan (% 13,1), baliabideen edo zerbitzuen hartzailen bizitza pertsonala, familia- eta lan-bizitza bateragarri

egiteko neurriak hartu dira: ordutegia egokitzea (n=23); haurrak eta, oro har, inoren laguntza behar duten pertsonak zaintzeko zerbitzuak sortzea (n=11).

**Administrazioko hiru mailek gizon-emakumeen tratu- eta aukera-berdintasuna sustatzeko baliabideen eta zerbitzuen esparruan egindako jarduerak**



Administrazio Orokorreko 15 erakundek egin dituzte alor honetako jarduerak, eta administrazioko maila horrek egindako jarduera guztien % 61,1 erakunde hauek egin dituzte: Emakunde (n=22); Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila (n=19); Osakidetza (n=9); eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila (n=8).

Foru administrazioen artean, Arabako Foru Aldundiak jardueren erdia baino gehixeago antolatu ditu (n=32); Bizkaiko Foru Aldundiak jardueren % 31,7 egin ditu (n=17); eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, berriz, % 15 (n=9).

Tokiko Administrazioa, 33 udalek egin dituzte alor honetako jarduerak, eta jardueren % 61 zortzi udal hauek antolatu dute: Zalla (n=13); Gasteiz (n=11); Eibar (n=10); Ermua (n=8); Irun (n=7); eta Bilbo, Galdakao eta Getaria (n=5 bakoitzak).


Erakunde publikoek emandako datuek adierazten dute 18.132 lagunek erabili dituztela gizonen eta emakumeen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna sustatzeko baliabideak eta zerbitzuak; 15.519 emakumeak ziren (%85,6); eta 2.614 gizonak (%14,4)

TALDEAK	emakumeak	gizonak	Guztira
DISKRIMINAZIOA EDO/ETA GIZARTE-BAZTERKETA PAIRATZEKO ARRISKUAN DAUDEN EMAKUMEAK	2.797	70	2.867
HAURRAK	1.246	1.319	2.565
GAZTEAK	87	135	222
HIRUGARREN ADINEKOAK	249	8	257
GIZARTEA ORO HAR	4.367	926	5.293
ELKARTEAK ETA ERAKUNDEAK	6.773	156	6.928
<b>Guztira</b>	<b>15.519</b>	<b>2.614</b>	<b>18.132</b>

Administrazioen arabera, zerbitzuen eta baliabideen hartzaile gehienak elkarte edo erakunde bateko kide edo langile diren emakumeak ziren, eta emakumeak, oro har. Hain zuzen ere, elkarte edo erakunde bateko kide edo langile diren 6.773 emakumek (% 37,4), eta elkarteetatik kanpoko 4.367 emakumek (% 24,1) erabili dituzte.

260 jardueretatik 150 egiteko (%57,7) 11.329.400,05€ gehiago jarri behar izan zuten jarduera horiek egiteko ardura zuten erakundeek. Gainerako jarduerak ez zuten gasturik izan, edo ez zen horri buruzko daturik eman. Administrazioiko hiru mailen artean egindako gastu osoaren banaketa grafiko honetan adierazten da.

**Hiru administrazio mailek gizon-emakumeen tratu eta aukera berdintasuna sustatzeko baliabideen eta zerbitzuen esparruan egindako jardueren gastuaren banaketa**



Datuen arabera, Foru Administrazioak gizon-emakumeen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna sustatzeko, eta oro har, emakumeen eta, bereziki, askotariko diskriminazioa pairatzen duten edo/eta gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden emakume talde jakin batzuen aurkako diskriminazioa atzemateko, jendarteratzeko eta amaiarazteko baliabideetan eta zerbitzuetan gastatutako diruaren % 53,8 bideratu du.

## **Arauk sortzea eta egokitzea**

63 arau sortu edo egokitu dira, eta erdia ia (n=25; % 46) Lanaren arlokoak izan dira. Hauek izan dira nagusiak:

- Hitzarmen kolektiboa langileekin negoziatzen dutenean, administrazio publikoek eta mendeko enpresek enplegu publikoan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna izatea bermatzeko neurriak proposatzen dituztela ziurtatzea (n=3).
- Ekintza positiboko neurriak ezartzea, emakumeak erantzukizuneko postuetan (batez ere, behar baino emakume gutxiago dauden lan-kategorietan) aritzeko eta, hartara, postu horietan pixkana berdintasuna lortzeko (n=4).
- Informazioa eta orientazioa genero-ikuspegiaren arabera egokitzea. Horretarako, emakumeak merkatuak eskatzen dituen lanpostuetara bideratuko dira, batez ere, behar baino emakume gutxiago dauden lanbideetara (n=3).


Bestalde, nabarmentzekoa da arau orokorrakoak ere sortu eta egokitu direla, eta planeko Berdintasunaren aldeko zerbitzu orokorren arloaren ingurukoak direla (n=19):

- Diru-laguntzak emateko, kontratuak esleitzeko eta hitzarmenak egiteko garaian, egin beharreko proiektuetan genero-ikuspegia kontuan hartzeko klausulak edo irizpideak sartzea; eta berdintasun-politikak ezartzea erakunde edo entitate onuradunetan (n=15).
- Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko arauak onartzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren aldeko erakunde laguntzaileak arautzeko dekretuaren (424/1994 Dekretua ordezkatzeko) zirriborroa egitea.
- Begiraren dekretu arau-emaitza aldatzeko dekretuaren zirriborroa egitea.
- Berdintasunaren arloan laguntza tekniko emateko, enpresak eta banakako profesionalak homologatzeko araudia prestatzea.

Arauen %14,3 (n=9) sortu edo aldatu baino lehen, generoaren araberako eraginaren ebaluazioa egin zela.

Administrazio Orokorrak eman du arauak sortzeko edo/eta egokitzeko egindako jarduera gehienen berri (n=45; % 71,4)

**Hiru administrazio mailek arauak sortzeko eta egokitzeko eta, hartara, gizon-emakumeen tratu eta aukera berdintasuna sustatzeko egindako jarduerak**



Administrazio Orokorreko 15 erakunde publikok egin dituzte jarduera mota horiek, eta hain zuzen ere, hauek eman dute araudia sortzeko edo aldatzeko jarduera gehienen berri: Emakunde (n=8); Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila (n=7); eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila (n=5); eta Kultura Saila (n=5).


Foru administrazioaren barnean, Arabako Foru Aldundiak jardueren % 60 (n=9) egin du.

Azkenik, Tokiko Administrazioen artean, Bilboko, Abadiñoko eta Berangoko udalek jarduera mota horretako banaren berri eman dute.

63 jardueretako 4 egiteko 149.681€ gehiago gastatu behar izan dute jarduera egiteko ardura zuten erakundeek:



### Administrazioko hiru mailek arauak sortzeko eta egokitzeko, eta hartara, gizon-emakumeen tratu- eta aukera-berdintasuna sustatzeko egindako jardueren gastuaren banaketa



### Jarraipena

17 jarduera antolatu dira, gai hauekin lotutako programen eta baliabideen jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoak abian jartzeko:


- Etxeko indarkeriaren edo sexu-erasoen biktima diren emakumezkoentzako laguntza hobetzeko erakundeen arteko hitzarmenak (n=4).
- Emakumeen ugalketa-osasuna: jaio aurreko diagnostikoa egiteko probak eta zesareak egitea, eta erditzeko eta erditu ondoko ohiko laguntza ematea (n=3).
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei etxebizitza esleitzea (n=2).
- Etxeko indarkeriari eta sexu-erasoei aurre egiteko protokoloak (n=2).
- Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko, hezkidetzari buruzko Nahiko programa (n=1).
- Emakumeen aurkako zuzeneko edo zeharkako diskriminazioa izatea, diru-laguntza publikoak hartzen dituen etengabeko prestakuntzan (n=1).
- Enpleguari eta prestakuntzari buruzko Kideitu proiektua (n=1).
- Lan-eskaintza diskriminatzaileak (n=1).
- Familia eta lana bateragarri egitea (n=1).
- Etxeko tratu txarren biktimei laguntzeko baliabide judizialak eta polizialak (n=1).

Jarraipen- eta ebaluazio-jardueren erdia baino gehiago (n=10; % 58,5) emakumeen aurkako indarkeriari buruzkoak izan dira.

Jarraipen-jardueren % 76,5 (n=13) informazioa eman duen erakundeak berak egin ditu; eta, beste laurak egiteko, kanpo aholkulari baten zerbitzuak kontratatu dira.

Jarduera gehienak (%88,2, hamabost jarduera) administrazio orokorreko erakundeek antolatu dituzte:

**Hiru administrazio mailek jarraipen mekanismoak sortzeko eta egokitzeko eta, hartara, gizon-emakumeen tratu eta aukera berdintasuna sustatzeko egindako jarduerak**



Administrazio Orokorreko sei erakundek egin dituzte alor honetako jarduerak: batetik, Osasun Sailak, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eta Emakundek (launa jarduera) eta Ogasun eta Herri Administrazio Sailak, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak eta Garraio eta Herri Lan Sailak, bestetik (bana).

Foru administrazioen artean, Bizkaiko Foru Aldundiak jarduera baten berri eman du.

Azkenik, Toki Administrazioak alor honetan jakinarazi duen jarduera bakarra Eudelek egin du.

Hamazazpi jardueretan bik 68.640 euroko kostu gehigarria eragin diete haietaz arduratu diren erakundeei.

### **III. LORTUTAKO EMAITZEN LABURPENA**

Txostenaren atal honek ebaluazioa egiterakoan sumatutako emaitzen laburpena dakar, multzo hauetan banatuta:

1. Egindako jardueren ezaugarri orokorrak.
2. Ardatz estrategikoetan egindako jarduerak.
3. Lortutako IV. Planaren exekuzio maila.
4. IV. Plana ezartzeko erabilitako neurriak.
5. Politikak ezartzen dituztenean, erakunde publikoek genero-ikuspegia aplikatzea errazteko jarduerak.
6. Agintari publikoek gizon-emakumeen berdintasunaren alde ezarritako zeharkako politikak eta politika sektorialak.

## **1. Egindako jardueren ezaugarri orokorrak.**

### **- Ardatz estrategikoak**

2007an erakunde publikoek sustatutako berdintasun-politiken artean ardatz hauekin lotutako jarduerak lehentasuna izan dute: mainstreaming-a, ahalduntzea eta parte-hartze politikoa. Egindako 1.137 jardueren % 74 (n=842) bi jarduera-ardatz hauei buruzkoak izan dira.

### **- Esku-hartzerako arloak**

Esku-hartzerako lau arlo hauetan egin dira jarduera gehienak: Berdintasunerako zerbitzu orokorrak (n=340; % 29,9), Gizarteratzea (n=192; % 16,9), Kultura (n=190; % 16,7) eta Lana (n=127; % 11,2).

### **- IV. Planeko programak**

IV. Planeko esku-hartzerako sei arloetan egindako jardueren % 72,5 (n=513) Planean jasotako 32 programetako 12 hauei (% 37,5) lotuta daude: kulturaren genero-ikuspegia

integratzea; emakumeek presentzia eta parte-hartzea izatea kirolean; emakumeek presentzia eta parte-hartzea izatea kulturaren eta artearen; gizartearen eta kulturaren eremu guztietatik sexismoa desagerraraztea; ikastetxeetan hezkidetzak sustatzea; eskola-komunitateko indarkeriaren aurrean arreta eta bitartekotza egitea; enplegu-zerbitzuak emakumeen eta gizonen berdintasunera egokitzea; enplegua lortzeko garaian aukera-berdintasuna izatea; emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea; askotariko diskriminazioa pairatzen duten eta bazterketako arriskuan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzea; tratu txarren edo/eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei emandako arreta hobetzea; eta ugalketa-osasunari dagokionez, emakumeek erabaki gehiago hartzea.

#### - **IV. Planaren helburuak**

Egindako jardueren % 69,4 IV. Planeko 76 helburuetatik 21 helburu lortzeko izan dira (% 27,6):

- Erakundeari genero-ikuspegia integratzeko ahalmena ematea.
- Berdintasun-politikei buruzko interesa eta inplikazioa areagotzea gizartearen.
- Berdintasunaren aldeko asoziazio-sarea areagotzea eta indartzea.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borrokan administrazioaren koordinazioa indartzea eta hobetzea.
- Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko sentsibilizazio-kanpainak egitea.
- Kultura-jarduerak genero-ikuspegiari jarraiki planifikatzen eta betearazten dituzten administrazioetako kultura-arloen kopurua handitzea.
- Emakumeen kulturaren eta artearen arloko sorkuntza handitzea, baita gizartearen ikuspegi ez-sexista sustatzen duena ere.
- Sexu batekoak besteak baino duintasun handiagoa edo txikiagoa dutela adierazten duten komunikabide-irudiak eta edukiak desagerraraztea, bai eta pertsonak sexu-objektu huts gisa adierazten dituztenak ere. Halaber, emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, indarkeria horri garrantzia kendu edo indarkeria horretara bultzatzen duten edukiak desagerraraztea.

- Lehen eta Bigarren Hezkuntzako, eta Helduen Hezkuntzako ikastetxeen urteko programazioetan hezkidetzaren integratzea.
- Indarkeriaren prebentziorako programa esperimentalak egitea ikastetxeetan, berdintasunean oinarritutako bizikidetzaren eta lankidetzaren lortzeko harremanen kultura aldatuta.
- Enplegu-zerbitzuetan genero-ikuspegia integratzea.
- Industria-sektore tradizionaleko osagai teknikoetan enpleguetan emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, emakumeen parte-hartzea areagotuta.
- Emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea administrazio publikoetan eta sektore pribatuko enpreetan, okupatutako biztanleriaren proportzio handienak metatzen dituen jardueraren adarrei lehentasuna emanda.
- Etxeko eta zaintzako lanetan emandako denboran, emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, murrizketa honela zehaztuta: amatasunagatiko/aitatasunagatiko nahiz inoren laguntza behar duten pertsonak zaintzeko baimena edo lizentzia hartzen duten gizonen kopurua handitzea, bai administrazio publikoan, bai sektore pribatuan.
- Administrazio publikoetako gizarte-ekintzako arloetako diagnostikoetan, planifikazioetan, esku-hartzeetan eta ebaluazioetan genero-ikuspegia integratzea.
- Pobrezia ekonomikoko egoeran egonik, bazterketa-arriskuan daudenentzako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzearren.
- Droga-mendetasun arazoak izanik, gizarte-bazterketako arriskuan dauden emakumeentzako baliabideak egokitzea, kolektibo horren baldintzak eta egoera hobetzearren.
- Zaintzako lanak egiten dituztenen zama ekonomikoa, soziala eta psikologikoa murrizteko baliabideak areagotzea.
- Indarkeria-zikloaren kasuak gero eta goizago atzematea.
- Tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei arreta, asistentzia eta babesa emateko eskaerei koordinazioaren, kalitatearen eta eraginkortasunaren irizpideen bidez erantzutea. Horretarako, "etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko tokiko protokoloak" ezarriko dira, EAEko udalerrietan.

- Tratu txarren biktimei harrera emateko eskaerei kalitatearen eta eraginkortasunaren irizpideen bidez erantzutea, "Etxeko tratu txarren biktimei harrera eta etxebizitza emateko baliabideak hobetzeko" programan jasotako neurriak ezarri eta etengabe hobetzen direla bermatuta.

- **Esku-hartzerako erabilitako tresnak**

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin lotutako programak ezartzeko, erakunde publikoek esku-hartzerako tresna hauek erabili dituzte gehien: sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea; eta baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea (n=694; % 61).

- **Hartzaile-taldeak**

Talde asko izan dira Botere publikoek egin dituzten jardueren hartzaileak, eta, besteak beste, hauek izan dira nagusiak: euskal gizartea oro har (n=278; % 24,5); emakume-elkarteak (n=133; % 11,7); eta Administrazio teknikiariak (n=145; % 12,8).

Gainerako horiekin alderatuz, beste talde hauek ere jardueren portzentaje nabarmen baten hartzaileak izan dira: tratu txarren edo/eta sexu erasoen biktimea diren emakumeak; hezkuntzaren arloko profesionalak; hiru administrazioetako politikariak; aukera-berdintasunaren alorreko profesionalak; hiru lurraldeetako tokiko administrazioa; eta gizarte-zerbitzuetako profesionalak.

## 2. Ardatz estrategikoetan egindako jarduerak

### ▪ MAINSTREAMING ARDATZA

422 jarduera egin dira ardatz horren inguruan, eta jarduera horien bi heren Plana ezartzeko, eta plangintza eta ebaluazioa egiteko neurriak izan dira; edo administrazioaren barnean berdintasun-politikak ezartzeko baldintzak sortzeko jarduerak.

Jardueren %22,8ren (n=96) helburua izan da enplegu-zerbitzuetan, kulturean, gizarte-zerbitzuetan, osasun-sisteman, garraioan, hirien plangintzan eta ingurumenaren arloan genero-ikuspegia ezartzea.

### ▪ AHALDUNTZEAREN ARDATZA

Emakumeen ahalduntzarekin lotutako 420 jarduera egin dira, eta hiru ildo hauei eman zaie lehentasuna (n=211; % 50,5): 1) emakumeen presentzia eta parte-hartzea sustatzea kulturean, artean eta kirolan; 2) emakumeen asoziazio-sarea indartzea eta sustatzea; eta 3) berdintasun-politiken ezarpenari, ebaluazioari eta hausnarkeri buruzko interesa, ezagutza, inplikazioa eta parte-hartzea areagotzea batez ere emakumeengan, eta oro har, gizartean.

Ildo berean, esanguratsuak izan dira diskriminazioko edo/eta bazterketako arriskuan dauden emakumeen ahalduntzea sustatzeko jarduerak (n=78; % 18,6); eta lanean, lana lortzerakoan eta lan-baldintzetan berdintasuna sustatzeko jarduerak (n=67; % 15,9).

### ▪ BATERAGARRITASUNAREN ETA ERANTZUNKIDETASUNAREN ARDATZA

69 jarduera egin dira ardatz horren inguruan, eta erdia baino gehiago (n=41; % 59,4) ildo hauen ingurukoak izan dira: erantzunkidetasunaren kultura eta zaintzaren etika sustatzea; norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko neurriak eta laguntza-zerbitzuak ematea; eta autonomia funtzionalik ez dutenei arreta emateko baliabide soziokomunitarioak abian jartzea.

Euskal gizartea sentibilizatzeko jarduerak ere egin dira, erantzunkidetasuna sustatzeko; hala nola, parekotasun handiagoko familia-ereduak sustatzea.



## ▪ EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ARDATZA

226 jarduera egin dira ardatz honen inguruan, eta horietako % 72,1 (n=163) IV. Planeko hiru programa hauekin lotuta dago: gizartearen eta kulturaren eremu guztietatik sexismoa desagerraraztea; eskola-komunitateko indarkeriaren aurrean arreta eta bitartekotza egitea; eta tratu txarren eta/edo sexu-erasoen biktima diren emakumeei emandako arreta hobetzea.

### 3. Lortutako IV. Planaren exekuzioa-maila

Ardatz estrategikoak eta IV. Plana osatzen duten alorrak zenbateraino gauzatu diren, hau da, erakunde publikoek ardatz edo alor jakin baten inguruko jardueraren bat egin duten aztertuko dugu jarraian. Datuek hau adierazten dute:

- **Ardatz estrategikoak.** Mainstreaming eta emakumeen aurkako indarkeriaren ardatzen inguruko programak eta helburuak egin dira gehien. Izan ere, Planak ardatz horien inguruan proposatutako programen % 100ean egin dira jarduerak, eta finkatutako helburuen % 100 lortzeko. Ildo berean, ardatz horien inguruan da helburu bakoitzeko jardueren batez bestekoa handiena (19,3 eta 16,8, hurrenez hurren).
- **Esku-hartzerako alorrak.** Neurri handian gauzatu dira esku-hartzerako esparruak, programen eta helburuen % 80 eta % 100 artean landu baitira. Alderik esanguratsuenak helburuak lortzen ahalegintzeko intentsitateen artekoak dira, alegia, helburu bakoitzari lotuta egindako jardueren batez bestekoa. Adierazle horren arabera, kultura eta gizarteratze arloak gauzatu dira gehien, programak eta helburuak neurri handi batean gauzatu baitira (% 80 eta % 100 artean), eta helburu bakoitzeko jardueren batez bestekoa handia izan baita (% 26,4 eta % 17,3, hurrenez hurren).

Beste datu interesgarri batek adierazten du zenbateraino lantzen duten erakundeek programa edo helburu bakoitza. Datu horrekin bat, Planeko sei alorretan egin diren 708 jardueren %72,4 (n=513) IV. Planeko 32 programetako 12ri buruzkoak dira, eta gauza bera gertatu da helburuekin: jardueren %63 IV. Planeko 68 helburuetatik hamazazpi lortzeko egin dita.

#### **4. IV. Plana ezartzeko erabilitako neurriak**

##### **- Sustapen- eta koordinazio-neurriak**

IV. Plana sustatzeko eta koordinatzeko 30 jarduera egin dira guztira: jarduera horietako hiruren helburua izan da emakumeen eta gizonen berdintasunerako administrazio-unitateak sortzea; 9ren helburua, erakundeen barne-koordinaziorako egiturak sortzea; 2rena, erakundeen arteko koordinazio-egiturak sortzea; eta beste 2rena, gizarteak parte hartzeko egiturak sortzea. Beste hamahiru jardueren xedea, berriz, izan da berdintasunaren jarraipena eta sustapena egitea, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako EAEko, foru eta tokiko egiturek egin dituzte.

##### **- Programazioa eta ebaluazioa**

30 programazio-jarduera egin dira 2007an: 11 erakundek berdintasun planak prestatu edo/eta onartu dituztela jakinarazi dute; Eusko Jaurlaritzako 12 sailek legegintzaldirako programazioa egin dute; eta 4 erakunde publikok jakinarazi dute urteko ekintza programa onetsi dutela. Bestalde, Emakundek, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi dute tokiko erakundeei diagnostikoak eta planak egiteko diru-laguntzak banatzeko deialdia egin dutela.

Datuei esker, ondorio hauek atera ditzakegu: 2007an EAEko 53 udalek eta hiru foru aldundiek berdintasun plana zeukaten; Eusko Jaurlaritzako 12 sailek legegintzaldirako programazioa zuten; enpresa publiko batek berdintasun plana; eta beste enpresa publiko batek eta erakunde autonomo batek ekintza programa bana zuten.

- **Berariaz programaziora edo/eta ebaluaziora bideratutako gastua**

Erakunde publikoek emandako informazioaren arabera, 1.098.955,43 euro bideratu dituzte guztira programaziora eta ebaluaziora: zenbateko horren % 89,5 programaziora bideratu dute, eta % 10,5, ebaluaziora.

## **5. Erakunde publikoetan genero-ikuspegia sartzeari sustatzeko egindako jarduerak**

2007. urtean egindako jardueren % 23,9 (n=278) erakunde publikoetan genero-ikuspegia ezartzea bultzatzeko egin da.

Erakunde publikoek beren jardueretan genero-ikuspegia ezartzen laguntzeko, esku-hartzerako bitarteko hauek erabili dituzte batez ere: prestakuntza (n=78; % 28); jakintza sartzeari (n=65; % 23,4); sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea (n=55; % 19,8); eta baliabideak eta zerbitzuak sartzeari eta egokitzea (n=50; % 18).

### **Jakintza sartzeari**

Jakintza sartzeko egindako 65 jardueren artean, hauek izan dira ohikoenak: azterketak eta ikerketak egiteko, **sexua aldagaitzat hartzea**, sistematikoki (% 27,7); **emakumeen eta gizonen egoeraren berri izateko diagnostikoak egitea** (% 24,6); eta **generoaren arabera eraginaren ebaluazioak egitea** (% 13,9).

Administrazio Orokorreko erakundeek antolatu dituzte jakintza sartzeko jarduerak gehienak. Hain zuzen ere, jardueren % 69,2 egin dituzte.

## **Sentsibilizazioa, informazioa, jendarteratzea**

55 jarduera egin dira alor honetan, eta jardueren % 69,1 (n=38) Planeko ekintza hauekin lotuta dago:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin lotuta dauden gaiei buruzko sentsibilizazioa eta informazioa ematea herritarrei (n=24).
- Hizkera ez-sexista erabiltzearekin zerikusia duten materialak egitea eta haiei buruzko orientazioa ematea (n=7).
- Nazioko eta nazioarteko topaketetan parte-hartzea; esperientzia eta informazioa trukitzea (n=4).
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko sentsibilizazioa eta orientazioa ematea, eta genero-ikuspegia jarduera-programetan integratzeak zer garrantzi duen azaltzea Administrazioari langileei (n=3).

Administrazio Orokorra egin ditu sentsibilizazio-jarduera gehienak (n=32; % 58,2).

604 pertsona izan dira alor horretako jardueren hartzaileak (363 emakume, hartzaileen % 60,1; eta 241 gizon, hartzaileen % 39,9). Administrazioari langileak ziren guztiak eta hainbat lan-taldetakoak. Hartzaileen %50 enpleguaren eta prestakuntzaren arlokoak ziren, eta %24,8, osasun-zerbitzuen arlokoak.

Administrazio Orokorra eman du diru gehien jarduera horiek egiteko; emandako diru guztiaren %62,8, hain zuzen.

## Prestakuntza

Administrazioetan genero-ikuspegia kontuan har dadin bultzatzeko, 78 prestakuntza-jarduera egin dira 2007an, eta jardueren % 69,3 (n=55) hauekin lotuta egon da:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari, eta genero-ikuspegia integratzeari buruzko prestakuntza, administrazioko politikarientzako eta teknikarientzako, bai eta administrazioarekin lotutako beste profesional batzuentzako ere (n=32).
- Indarkeria-zikloaren hasiera gero eta goizago atzemateko, eta indarkeria fisikoa eta autoindarkeria prebenitzeko, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko prestakuntza espezializatua, gizarte-zerbitzuetako, ertzaintzako eta hezkuntza arloko profesionalentzako (n=15).
- Hezkidetzari buruzko prestakuntza irakasleentzako (n=4).
- Enplegu-zerbitzuetako eta entitate laguntzaileetako langileei prestakuntza ematea, lan-munduratzeari laguntzeko prozesu integralaren fase bakoitzean genero-ikuspegia nola txertatu behar den irakasteko: informazioa, prestakuntza, laguntza eta jarraipena ematea lan-munduratzeari; eta enpresa sustapena eta autoenplegua (n=4)

Prestakuntzaren arloko jarduera gehienak Administrazio Orokorrak eta Tokiko Administrazioak egin dituzte, jarduera guztien % 48,7 eta % 32,1 egin baitute, hurrenez hurren.

3.374 pertsonak jaso dute prestakuntza (1.763 emakume, hartzaileen % 52; eta 1.611 gizon, %47,7). Batez ere, bi lan-taldetakoak ziren prestakuntza-jardueretako parte-hartzaile guztiak: ikastetxeetako eta hezkuntza zerbitzuetako profesionalak (% 31,2); eta poliziako profesionalak (% 28,7). Halaber, beste talde hauetako hartzaile ugari izan dira: Administrazio Orokorrean, eta Foru eta Tokiko Administrazioan ardura teknikoa duten langileak; enpleguaren eta prestakuntzaren arloko profesionalak; eta osasun-zerbitzuetako profesionalak.

Administrazio Orokorreko eta Tokiko Administrazioko erakundeek eman dute diru gehiena prestakuntza-jarduerak egiteko (guztizkoaren %40,6 eta %44,7, hurrenez hurren).

## Baliabideak eta zerbitzuak

50 jarduera egin dira guztira baliabideak eta zerbitzuak egokitzeko eta sortzeko, eta hartara, Euskadiko Administrazio Publikoan genero-ikuspegia ezartzea sustatzeko. Jardueren %74 (n=37) esparru hauetakoak izan dira:

- Berdintasun-politikaren hainbat gairi eta hainbat arlo sektoriali buruzko aholkularitza eta laguntza ematea, eta proposamenak egitea (enplegua, estatistikak, diru-laguntzak, prestakuntza, bateragarritasuna, langileak, gazteak, immigrazioa, gutxiengo etnikoak...) (n=28).
- Administrazioaren barruko lan-taldeak sortzea, prestakuntzaren inguruko beharrak atzemateko, prestakuntza-planak prestatzeko, eta tokiko administrazioan berdintasunerako langile teknikoak kontratatzeko oinarrien eredu diseinatzeko; udalerrietako plangintza eta jarduerak orientatzea (n=5).
- Gida edo material didaktikoak prestatzea eta/edo banatzea (hizkuntzaren erabilera ez-sexista); lan- edo sexu-jazarpenetan bitartekari lanak egitea; aukera profesionalei buruzko gida didaktikoa; emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eskolatik hasita (n=4).

Jardueren ia bi heren (n=33; % 66) Administrazio Orokorra egin ditu.

398 lagun izan dira baliabide eta zerbitzu horien hartzaileak, eta Administrazio Orokorrean ardura teknikoa duten langileak izan dira gehienak (n=244; % 61,3).

Jarduera mota horiek egiteko gastu osoaren % 67,1 ad ministrazio orokorrak egin du.

## **Arauk sortzea eta egokitzea**

25 jarduera egin dira guztira, eta erdia baino gehiago (n=14; % 56) berdintasun-klausulak edo ekintza positiboko irizpideak kontratazioetan, diru-laguntzetan, kontratuetan eta lankidetzaz hitzarmenetan ezartzeari buruzkoak. Halaber, beste hainbat jarduera egin dira:

- Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren maiatzaren 31ko 1/2000 Zirkularra, kontratazio administratiboan berdintasun-politikak ezartzeko hartu beharreko neurriei buruzkoa (n=3).
- Berdintasun-gaiak sartzeko hautaketa-probetarako deialdietako oinarrietan (n=3).
- Hautapen-epaimahaietan pareko presetzia izatea emakumeek eta gizonen (n=1)
- LPZ aldatzeko eta langile gehiago kontratatzeko egin behar diren tramiteekin jarraitzea (n=1).
- Ordutegi malgutasun handiagoa ematea familia-zamak dituzten langileei, hala eskatzen badute (n=1).
- Zuzendaritzari zirkularrak bidaltzea, berdintasun-ekintzak burutzeko aurrekontuko partida zehatzak izenda ditzaten, onartutako emakumeen eta gizonen berdintasun-planeari aurreikusten den legez (n=1).
- Zirkularrak bidaltzea, etorkizunean jardunbide klinikoko gidak prestatzerakoan, kontuan izan daitezkeen emakumeen eta gizonen ezaugarri biologikoak (n=1).

Jardueren ia bi heren Administrazio Orokorreko erakundeek egin dituzte (n=16; % 64).

## **Jarraipen-mekanismoak sortzea eta egokitzea**

5 jarraipen- eta ebaluazio-jarduera egin dira guztira:

- *Osasun Plana 2006* ebaluatzea, genero-adierazleak sartuz.
- Tratu txarren eta sexu-erasoen biktima izan diren emakumeak artatzeko Erakundearen Arteko Akordioa zenbateraino bete den ebaluatzea.
- Enpresetan eta erakundeetan emakume eta gizonen berdintasunean laguntza teknikoak ematen duten aholkularitza erakunde homologatuen jarraipena egitea.

- Berdinsarearen Jarraipen-batzordearen koordinazioa eta dinamizazioa.
- Genero-desberdintasunaren bilakaeraren jarraipena egitea Bizkaiko Lurralde Historikoan.

Lau erakunde hauek egin dituzte jarduera horiek: Osasun Saila, Emakunde, Bizkaiko Foru Aldundia eta Eudel.

Jarduera horiek guztiek ez dute eragin inolako gastu osagarririk.

## **6. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika sektorialak eta zeharkako politikak**

Erakunde publikoek emandako datuen arabera, 2007an 787 jarduera egin dira guztira (egindako jarduera guztien % 77,2), eta helburu hauek izan dituzte: tratu- eta aukera-berdintasuna sustatzea; eta/edo askotariko diskriminazioa eta/edo gizarte-bazterkeria pairatzeko arriskuan dauden emakumeek, oro har, eta emakume-talde zehatzek, batez ere, bizi duten diskriminazioa atzematea, hedatzea eta desagerraraztea.

Jardueren %79,9 IV. Planeko lau alorren esparrukoa izan da: berdintasunaren aldeko zerbitzu orokorren, kulturaren, gizarteratzearen eta lanaren esparrukoa.

Alor honetan egindako jardueren erdia baino gehiago (n=424) Planaren hamalau xede hauek lortzeko egin dira:

- Berdintasun-politikei buruzko interesa areagotzea gizartean (n=84; % 10,7).
- Emakumeen kulturaren eta artearen arloko sorkuntza handitzea, baita gizartearen ikuspegi ez-sexista sustatzen duena ere (n=81; % 10,3).
- Erakundeari genero-ikuspegia integratzeko ahalmena ematea (n=47; % 6).
- Sexu batekoak bestekoak baino duintasun handiagoa edo txikiagoa dutela adierazten duten komunikabide-irudiak eta edukiak desagerraraztea, bai eta pertsonak sexu-objektu huts gisa adierazten dituztenak ere. Halaber, emakumeen aurkako indarkeria



justifikatu, indarkeria horri garrantzia kendu edo indarkeria horretara bultzatzen duten edukiak desagerraraztea (n=42; % 5,3).

- Indarkeria-zikloaren kasuak gero eta goizago atzematea (n=31, % 3,9).
- Emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea administrazio publikoetan eta sektore pribatuko enpresetan, okupatutako biztanleriaren proportzio handienak metatzen dituzten jarduera-adarrei lehentasuna emanda (n=20; % 2,5).
- Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borrokan administrazioaren koordinazioa indartzea eta hobetzea (n=19; % 2,4).
- Indarkeriaren prebentziorako programa esperimentalak egitea ikastetxeetan, berdintasunean oinarritutako bizikidetzak eta lankidetzak lortzeko harremanen kultura aldatuta (n=16; % 2).
- Tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei arreta, asistentzia eta babesa emateko eskaerei koordinazioaren, kalitatearen eta eraginkortasunaren irizpideen bidez erantzutea. Horretarako, "etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko tokiko protokoloak" ezarriko dira, EAEko udalerrietan (n=16; % 2).
- Tratu txarren biktimei harrera emateko eskaerei kalitatearen eta eraginkortasunaren irizpideen bidez erantzutea, "Etxeko tratu txarren biktimei harrera eta etxebizitza emateko baliabideak hobetzeko" programan jasotako neurriak ezarri eta etengabe hobetzen direla bermatuta (n=15; % 1,9).
- Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko sentsibilizazio-kanpainak egitea (n=14; % 1,8).
- Zaintzako lanak egiten dituztenen zama ekonomikoa, soziala eta psikologikoa murrizteko baliabideak areagotzea (n=14; % 1,8).
- Industria-sektore tradizionalerako osagai teknikorik gabeko enpleguetan emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, emakumeen parte-hartzea areagotuta (n=13; %1,6).
- Etxeko eta zaintzako lanetan emandako denboran, emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, murrizketa honela zehaztuta: amatasunagatiko/aitatasunagatiko nahiz inoren laguntza behar duten pertsonak zaintzeko baimena edo lizentzia hartzen duten gizonen kopurua handitzea, bai administrazio publikoan, bai sektore pribatuan (n=12; % 1,5).

Batetik, sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea, eta bestetik, baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea izan dira esku-hartzerako tresna nagusiak; eta, hartara, tratu- eta aukera-berdintasuna sustatzeko edo/eta emakumezkoen diskriminazio egoerak atzemateko, hedatzeko eta desagerrarazteko tresna nagusiak. Hain zuzen, alor honetan egindako jarduerak jarduera guztien bi heren baino gehiago (n=533; % 67,7) dira. Dena dela, Planeko esku-hartzerako sei tresnak erabili dira jarduerak egiteko, azpiatal hauetan ikus daitezkeen legez.

### **Jakintza sortzea**

Jakintza sortzeko 91 jarduera antolatu dira, eta jardueren ia erdia Planeko hamar ekintza hauekin lotuta daude:

- Genero-diagnostikoa egitea, emakumeen lan-baldintzetan izan daitezkeen diskriminazioak eta berdintasun-erak identifikatzea. Horretarako, ezarritako gutxieneko edukiak kontuan hartu dira, eta beharrezko adierazleak prestatu dira, abian jarritako jardueren eragina jarraitzeko eta ebaluatzeko (n=9).
- Etxeko indarkeriaren eta emakumeen aurkako sexu-erasoen eragina eta arrazoiak aztertzea, bai eta halako gertakariak salatu ala ez erabakitzekeo garaian eragina duten faktoreak aztertzea ere. Batez ere, askotariko diskriminazioa pairatzen duten emakumeei (ezintasunen bat duten emakumeak, etorkinak, zaharrak...) salaketa ez jartzeko erabakia hartzerantz bultzatzen dituzten faktoreak azpimarratzea; eta, aztertzea baliabideak bideratu arren, zergatik emakume askok eta askok ez dakiten nora jo erasotutak izanez gero (n=5).
- Emakumeek kultura-ondareari egindako ekarpen historikoa ikertzea eta sistematizatzea; bai eta gizon-emakumeek kultura sortzeko garatu izan dituzten moduak ikertzea eta sistematizatzea, euskal kulturaren alorrean batez ere (n=5).
- EAEko udalerrietan tokiko protokoloak ezartzeko eragozpenak aztertzea eta haiek konpontzeko neurriak hartzea (n=4).
- Gizon-emakumeei kirol-mota bakoitzetik zer interesatzen zaien eta zer espero duten ikertzea, eta administrazioek beren kirol-eskaintzetan zer kirol-mota ez dituzten eskaintzen identifikatzea (n=3).

- Emakumeek kultura-arloan zer gustu, itxaropen, behar eta interes dituzten argitzeko diagnostikoak egitea sustatzea (n=3).
- Pobrezia emakumezkoen kontu bilakatzearen ondorioz, bazterketako arriskuan dauden emakumeen baldintzak, egoerak eta beharrak aztertzea (n=3).
- Emakumeak segurtasunik gabe sentitzen diren udalerriko tokiak identifikatzeko diagnostiko bat egitea (garraio publikoak ere) (hiru jarduera). Horretarako, beharrezkoa da udalerriko emakumeek parte hartzea. Adierazi beharko da udalerriko zer puntutan esku hartu behar den lehentasunez (n=3).
- Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiarekin lotutako tresnak, materialak eta txostenak egitea (n=3).
- Hainbat azterlanetan genero-ikuspegia erabiltzeko proposamenak egitea (n=4).

Administrazio Orokorreko erakundeek egin dituzte azterketen, diagnostikoen eta abarren ia bi heren (n=59; % 64,8). Horrez gainera, haiek eman dute jarduera horiek egiteko diru gehiena: guztizkoaren % 80,4.

### **Sentsibilizazioa, informazioa, jendarteratzea**

273 jarduera egin dira alor honetan, eta horien erdia baino gehixeago (% 52,7) IV. Planeko zortzi ekintza hauei buruzkoak izan dira:

- Gizarte-, kultura- eta komunikabide-eremuan batez ere, herritarrak emakumeen aurkako indarkeriaren eta haren adierazpenen jatorriaz sentsibilizatzeko kanpainak egitea, irudi eta eduki sexistak identifikatzeko, eta hura salatzea bultzatzea, horretarako antolatutako bideen berri emanez (n=42; %15,4).
- Kultura-sorkuntzaren eta emakumeen inguruko eztabaida publikoa sustatzea, eztabaida-foroak eta topaketak antolatuta, emakumeek kulturari egindako ekarpen historikoa ezagutarazita, eta historian zehar emakumeek kultura sortzeko izan dituzten moduak balioetsita (n=38; % 13,9).
- Hizkera ez-sexistari buruzko dokumentuak berrikustea eta egokitzea (n=29; %10,6).
- Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak egitea, baita indarkeria-zikloaren eta indarkeria pairatzen duten emakumeentzako baliabideen berri emateko eta ezagutarazteko

kanpainak ere, indarkeria-zikloa goiz atzematen eta laguntzaile-eragile informal gisa inplika daitezten lortzeko (n=9; % 3,3).

- Emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko komunikazio-kanpainak egitea, prentsan, irradian eta telebistan (n=7; % 2,6).
- Emakume sortzaileen eta artisten topaketak eta jardunaldiak egitea, haien lanari balioa emateko, esperientziak elkartrukatzeko, jardunbideak sistematizatzeko eta sareak sortzeko (n=7; % 2,6).
- Sariak ematea, emakumeen kultura- eta arte-sorkuntza sustatzeko eta nabarmentzeko (n=6; % 2,2).
- Ikastetxeentzako sentsibilizazio-programak prestatzea, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko (n=6; % 2,2).

Tokiko Administrazioak sentsibilizazio-jardueren erdia baino gehiago (n=159; % 58,2) egin ditu

Egindako 273 jardueretako 8 bakarrik egokitu dira etorkin taldeentzat; 25 ezintasunen bat dutenentzat; eta 55 jardueretan bateragarritasunaren inguruko neurriak hartu dituzte.

Oro har, euskal gizarteko emakumeak eta gizonak izan dira sentsibilizazio- eta informazio-jardueren hartzaile nagusiak; zehatz-mehatz, parte hartu dutenen % 84,8 bi talde horietakoak ziren (7.383 emakume eta 4.855 gizon).

Administrazio orokorrak bideratu du diru gehien sentsibilizazio, informazio eta dibulgazio jarduerak egiteko, eta hartara, emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna sustatzeko: hain zuzen ere, bideratutako diru guztiaren % 64,5.

## Prestakuntza

70 jarduera egin dira alor honetan, eta jarduera horien erdia baino gehixeago (n=38; % 54,3)

IV. Planeko bost ekintza hauei buruzkoak izan dira:

- Emakumeentzako garapen pertsonaleko ikastaroak (maila guztietakoak) egitea (n=20).
- Berdintasunaren alde lan egiten duten elkarteek, taldeek eta gizarte-eragileek batzarrak eta hausnarketa egiteko, eta nor bere esperientzia elkarri jakinarazteko jardunaldiak egitea (n=8).
- Prestakuntza-eskaintzan antolaketa-eredu berriei, lidergo estiloei, ekoizpen-moduei... buruzko moduluak, eta industria-sektorean lan egin nahi duten emakumeei laguntzeko prestakuntza sartzea (n=8).
- Emakumeentzako (bikote arazoei aurre egiteko, gatazkak konpontzeko, maitasun-gaietan negoziatzeko...) prestakuntza-ekintzak antolatzea. Ekintza horien helburua da emakumeek indarkeria-zikloaren berri izatea, eta indarkeriaren biktima badira, zikloan murgilduta daudela aitortzea (n=3).
- Emakumeentzako ahalduntzeko ikastaroak (n=3).

70 jardueretako 12 ezaugarri bereziko taldeentzat egokitu dira (ezintasunen bat zuten pertsonak gehienbat); eta 25 jardueretan norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko neurriak hartu dira.

Tokiko Administrazioako erakundeek antolatu dituzte prestakuntza-jarduera gehienak (n=50; % 71,4).

Prestakuntza jaso duten pertsonen % 91 emakumeak izan dira (2.421), eta ez dira izan talde berezi batekoak; aitzitik, emakumeen taldea osatu dute, oro har.

Administrazio Orokorrak bideratu ditu baliabide ekonomiko gehien prestakuntza-jarduerak egiteko.

## Baliabideak eta zerbitzuak

Baliabideak eta zerbitzuak egokitzeko eta sortzeko 260 jarduera antolatu dira, eta jarduera horien erdia (n=131; % 50,4) Planeko 12 ekintza hauekin lotuta daude:

- Berdintasunaren aldeko emakume-elkarteei diru-laguntzak emateko programak (n=34).
- Emakumeentzako lege-aholkularitzako eta aholkularitza psikologikoko zerbitzuak (n=25).
- Ahalduntze-eskolak sortzea eta haiek mantentzea sustatzea (n=13).
- Sailen eta erakundeen arteko koordinazioko ekintzak egitea, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteari buruzkoak (n=13).
- Pobrezia emakumezkoen kontu bilakatzearen ondorioz, gizarte-bazterketako arriskuan dauden emakumeen baldintzak hobetzeko gizarte-laguntza osagarriak edo laguntza ekonomiko osagarriak ezartzea (n=10).
- Administrazio publikoetako gizarte-ekintzako sailek autonomiarik gabekoak laguntzen dituzten emakumeak/pertsonak laguntzeko eta orientatzeko zerbitzu espezifikoak sortzea. Zerbitzu hauek izango lirateke, besteak beste: gogoeta-taldeak, prestakuntza-ekintzak, laguntza psikologikoa, baliabide sozioekonomikoei buruzko orientabidea, laguntza-sistemak eta atsedeen hartzeko sistemak... (n=9).
- Maskulinitate-ereduen, eta berdintasunean oinarritutako banakako eta taldekako harremanen inguruan lan egiteko gizonen taldeak sortzea sustatzea (n=5).
- Mugimendu asoziatiboan eta berdintasun-politiken arduradunen artean harreman- eta komunikazio-mekanismo egonkorrak ezartzea, jakintzak elkarren artean trukitzea errazteko eta mugimendu asoziatiboa sendotzeko neurriak eguneratzeko (n=5).
- EAEko udalerrietan etxeko indarkeriari eta sexu-erasoei aurre egiteko tokiko protokoloak ezartzeko laguntzak (n=5).
- “Berdinsarea: indarkeriaren aurkako eta berdintasunaren aldeko udalerriak” sarea ezartzea eta sendotzea; emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez, homogeneotasunez aritzeko, koordinazioa hobetzeko eta biktimentzako laguntza hobetzeko (n=4).

- Harrera-etxeetako segurtasun-sistemak hobetzeko diru-laguntzak areagotzea, eta harrera-etxeek laguntza- eta babes-zerbitzuak ematen dituzten langileez hornitzea (n=4).
- Emakume-elkarteek berdintasun-politikak zehazten, jarraitzen eta ebaluatzen parte hartzea sustatzea (n=4).

35 jarduera ezaugarri bereziko taldeentzat egokitu dira (etorkinak eta ezintasunen bat duten pertsonak); eta 34 jardueretan norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko neurriak hartu ziren.

Tokiko Administrazioak (n=105; % 40,4) eta Administrazio Orokorrak (n=95; % 36,5) antolatu dituzte jarduera gehienak.

Baliabideen edo zerbitzuen hartzaileen %85,6 emakumeak izan dira. Emakume horiek hainbat taldetakoak ziren, besteak beste: emakume-elkarteak (% 37,4); emakumeak oro har (%24,1); eta askotariko diskriminazioa pairatzeko eta/edo gizartetik baztertuta gelditzeko arriskuan dauden emakumeak (% 15,4). Haurrak ere jardueren hartzaile nabarmenak izan dira; hartzaileen %14,1 izan dira, eta nesken eta mutilen arteko proportzioa antzekoa izan da.

Alor honetako jardueretan gastatutako diru guztiaren % 53,8 Foru Administrazioak bideratu du.

### **Arauk sortzea eta egokitzea**

63 jarduera egin dira, eta erdia ia (%46, 24 jarduera) Lanaren arlokoak izan dira; batez ere, IV. Planeko hiru ekintza hauekin lotuta daude:

- Hitzarmen kolektiboa langileekin negoziatzen dutenean, administrazio publikoek eta mendeko enpresek enplegu publikoan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna izatea bermatzeko neurriak proposatzen dituztela ziurtatzea (n=3).

- Ekintza positiboko neurriak ezartzea, emakumeak erantzukizuneko postuetan (batez ere, behar baino emakume gutxiago dauden lan-kategorietan) aritzeko eta, hartara, postu horietan pixkana berdintasuna lortzeko (n=4).
- Informazioa eta orientazioa genero-ikuspegiaren arabera egokitzea. Horretarako, emakumeak merkatuak eskatzen dituen lanpostuetara bideratuko dira, batez ere, behar baino emakume gutxiago dauden lanbideetara (n=3).

Arauk sortzeko eta egokitzeko jardueren %30,2 arau orokorragoak sortzeko eta egokitzeko egin dira, eta Planaren arabera, Berdintasunerako zerbitzu orokorren arloarekin bat datoz (n=19):

- Diru-laguntzak emateko, kontratuak esleitzeko eta hitzarmenak egiteko garaian, egin beharreko proiektuetan genero-ikuspegia kontuan hartzeko klausulak edo irizpideak sartzea; eta berdintasun-politikak ezartzea erakunde edo entitate onuradunetan (n=15).
- Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko arauak onartzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren aldeko erakunde laguntzaileak arautzeko dekretuaren (424/1994 Dekretua ordezkatzeko) zirriborroa egitea.
- Begiraren dekretu arau-emallea aldatzeko dekretuaren zirriborroa egitea.
- Berdintasunaren arloan laguntza teknikoa emateko, enpresak eta banakako profesionalak homologatzeko araudia prestatzea.

Administrazio Orokorrek jakinarazi ditu arauak sortzeko edo/eta egokitzeko jarduerak gehienak (n=45; % 71,4).

4 jarduerak egiteko, aurreikusitakoa baino gehiago gastatu behar izan dute jarduerak horiek egiteko ardura zuten erakundeek.

### **Jarraipen-mekanismoak sortzea eta egokitzea**

17 jarraipen- eta ebaluazio-jarduerak egin dira, eta erdia baino gehiago emakumeen aurkako indarkeriaren arloarekin lotuta daude:



- Etxeko indarkeriaren edo sexu-erasoen biktima diren emakumezkoentzako laguntza hobetzeko erakundeen arteko hitzarmenak (n=4).
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei etxebizitza esleitzea (n=2).
- Etxeko indarkeriari eta sexu-erasoei aurre egiteko protokoloak (n=2).
- Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko, hezkidetzari buruzko Nahiko programa (n=1).
- Etxeko tratu txarren biktimei laguntzeko baliabide judizialak eta polizialak (n=1).

Gainerako jarraipen- eta ebaluazio-jarduerak enpleguarekin, ugalketa-osasunarekin, eta familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egitearekin lotuta daude:

- Emakumeen aurkako zuzeneko edo zeharkako diskriminazioa izatea, diru-laguntza publikoak hartzen dituen etengabeko prestakuntzan (n=1).
- Enpleguari eta prestakuntzari buruzko Kideitu proiektua (n=1).
- Lan-eskaintza diskriminatzaileak (n=1).
- Emakumeen ugalketa-osasuna: jaio aurreko diagnostikoa egiteko probak eta zesareak egitea, eta erditzeko eta erditu ondoko ohiko laguntza ematea (n=3).
- Familia eta lana bateragarri egitea (n=1).

Ebaluazio- eta jarraipen-jardueren hiru laurden (n=13) jakinarazi dituzten erakundeek beraiek egin dituzte, eta besteak egiteko, kanpo aholkulari baten zerbitzuak kontratatu dira.

Administrazio Orokorrak egin ditu jarraipen-jarduera gehienak (n=15; % 88,2).

## **IV. ONDORIOAK**

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana indarraldiaren erdian dago, eta orain arte egindako bi ebaluaketen emaitzei begiraturaz gero, epe honen baitan euskal erakunde publikoek emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko politikekin bat eginik burutu dituzten ekintzetan ikus daitezkeen joera nagusiak zehaz ditzakegu.

2007an, erakunde publikoek gauzatutako ekintzen kopurua hazi egin da, eta 2006an baino 285 ekintza gehiago egin dituzte. Hazkunde hori Administrazio Orokorriari esker gertatu da, 2006ko kopuruekin alderatuz, ekintzen kopurua % 78 hazi baita (2006an, 295 izan ziren egindako ekintzak; eta 2007an, 525). Aurrerapauso horretan zeresan handia izan dute Gobernuak sailetan sortutako lan-taldeek, eta emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko legerian egin diren programazioak.

**Administrazio Orokorreko** erakundeek egin dituzten ekintzen hazkunde garrantzitsu hori, ebaluaketa honek aztertzen dituen hiru ildoetan ikus dezakegu:

- a. VI. plana indarrean jartzeko neurriak hartu dira, hala nola, programazioak egin eta onartu dituzte, eta Berdintasunerako administrazio-unitateen dekretua eta Instituzioen arteko Batzordeak arautzen dituen dekretua onartu dituzte.
- b. Erakundeek genero-ikuspegia ezar dezaten bultzatzeko ekintzak ere egin dira. Ekintza horiek administrazioa, zein emakume eta gizonen arteko berdintasunerako politikak ezagutaraztera eta hiritarren parte-hartzea bultzatzera bideratu dituzte.
- c. Emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko politika sektorialak eta zeharkako politikak garatu dituzte. Politika horien helburu nagusiak hauek dira: genero-politikak bideratzeko ezagutza sortzea; emakumeen aurkako indarkeriari eta antzeko arazoei buruz gizartea sentsibilizatzea; emakumeak lan-munduan sartzeko, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko eta emakumeen arteko elkartegintza bultzatzeko, baliabideak eta zerbitzuak sortzea edo egokitzea; eta kirol-munduan, lanean edota kulturaren gertatu ohi den egiturazko diskriminazioa gainditzeko lagunduko duten arauak sortzea edo egokitzea. Arau horiek, gainera, askotariko diskriminazioa pairatzen duten emakumeei edo gizarte-bazterketa jasateko arriskua duten emakumeei baliabideak lortzeko aukera emango diete.

Esan dezakegu, IV. plana indarrean sartu zenetik, azken bi urte eta erdi hauetan, **Foru Administrazioan** ez dela aldaketa kuantitatibo handirik gertatu. Hala ere, maila kualitatiboan zenbait gertaera garrantzitsu bereiz ditzakegu:

- Gipuzkoako Foru Aldundiak Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana onartu du.
- Arabako Foru Aldundiak Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru-Plana onartu du, eta Berdintasunerako esparrua indartu eta sendotu du, genero-heziketan aditua den profesional bat kontratatuz. Gaur egun, LPZn bi lanpostu aurki ditzakegu.
- Bizkaiko Foru Aldundiak III. Plana indarrean zegoenean burutu zituen aurrerapen horiek: genero-politikarako esparrua sortu zuten; berdintasunerako lanpostu teknikoak sortu zituzten; Berdintasun Plana garatu zuten; etab.
- Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia tokiko berdintasun-politikak bultzatzen ari dira udaletan diagnostikoa eta berdintasun planak egiteko diru-laguntzak eskainiz. Azken urteetan, jarduera mota horiek tokiko berdintasun planak egiteko eta onartzeko balio izan dutela frogatu ahal izan da, eta horixe zehazten da 4/2005 Berdintasunerako Legean.

**Tokiko administrazioei** dagokienez, ebaluazioaren emaitzek adierazi dute IV. plana ezartzeko beharrezko ekintzak martxan jartzean ari direla gertatzen aldaketarik garrantzitsuenak.

- Berdintasun-unitateak sortu dira: 2006an bi berdintasun-zerbitzu berri sortu ziren, eta 2007an, bi berdintasun-zinegotzigo sortu ziren.
- Erakundeen barneko egiturak sortu dira: azken urte hauetan, udaletan berdintasun-politikak koordinatzeko eta bultzatzeko zortzi egitura sortu direla jakinarazi digute.

- Gizartearen parte-hartzerako 2 egitura berri sortu dituzte, eta lehenik zeuden egiturak indartu eta sustatu dituzte (2006ko datuen arabera 18 ziren lehenik zeuden egiturak).
- Berdintasun planei dagokienez, udalek bigarren belaunaldiko planak garatzen eta onartzen ari direla esan dezakegu. IV. planak iraun duen bi urte hauetan, onartu diren tokiko II. Berdintasun Planak 9 izan dira, III. Berdintasun Plan bat ere onartu dute, baita I. Berdintasun Plan bat ere. Horrez gain, urteko 2 programa operatibo onartu dira. Bigarren belaunaldiko planak garatzen ari dira udal askotan (gehienak Bizkaian) eta, hori dela eta, pentsa dezakegu berdintasun-politikak sendotzen ari direla udal askotan (udal horiek 13 dira guztira, bildu ahal izan ditugun datuen arabera).
- Inolako zalantzarik gabe, foru diputazioek eta Emakundek eskainitako baliabide ekonomikoak eta aholkularitzak bultzada handia eman diete tokiko berdintasun-politikei: 2006 eta 2007an, diagnostikoak eta berdintasun planak garatzera bideratutako diru kopurua 77tik 577.000 €ra igo da, eta EIN eta tokiko udalbatzen bitartez kontratatutako pertsonal teknikoaren kopurua hazi egin da.

Administrazioek berdintasun-politiken gainean duten jokabideari dagokionez, urte hauetan gertakari hauek lekukotu ahal izan ditugu:

- 2006an eta 2007an, Mainstreaming-a eta Ahalduntzea eta Politikaren Parte Hartzea izan dira administrazioarentzat **jarduera-ardatz** nagusiak, eskaintzen duten informazioaren hiru laurenak ardatz horien ingurukoak baitira. 2007an, bi ardatz horien inguruko jarduerak hazi egin dira (%39,7 eta %28,4, hurrenez hurren).
- 2006an eta 2007an, erakunde publikoetatik bideratu diren jardueren helburuak hauek izan dira: erakundeari ahalmena ematea genero-ikuspegia integratzeko; berdintasun-politikei buruzko interesa eta inplikazioa areagotzea gizartean; kultura genero-ikuspegia integratzea; emakumeak, oro har, bazterketako arriskuan dauden emakumeak, askotariko diskriminazioa pairatzen dutenenak eta emakume-elkarteak ahalduntzea bultzatzeko jarduerak egitea; emakumeak lan-munduan sar daitezen ahalbidetzea eta lanean hastean gizonen baldintza berak izan ditzaten lortzea; emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea; eta tratu txarrak eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei arreta emateko dauden baliabideak hobetzea.


- Bateragarritasunak eta erantzukidetasunak osatzen duten ardatzak gora egin du, eta hori datu azpimarragarria da. 2007an burututako jardueren % 6,1 ardatz horri dagozkionak dira, eta 2006ko datuekin alderatuz, ardatz hori dela-eta burututako jarduerak %50 gehiago izan dira. Erakunde publikoek jarduera hauei eman diete lehentasuna: erantzukidetasunaren kultura eta zaintzaren etika sustatzeko jarduerak egitea; norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko zerbitzuak eta neurriak bideratzea; edota autonomia funtzionalik ez dutenei arreta emateko baliabide soziokomunitarioak bideratzea.
- Indarkeriari dagokion ardatza dela-eta burututako jarduerak ere % 27,7 hazi dira, eta ardatz honen baitan garrantzia berezia hartu du eskola-elkartean gertatu ohi den indarkeiari aurre egiteko sortutako parte-hartzerako programak. Aurreko urteetan egindako jarduerak tratu txarrak eta eraso sexualak jasan dituzten emakumeei laguntza eskaintzera bideratu izan dira. Gaur egun, erakunde publikoek lan-ildo berberak jorratzen dituzten arren, arreta berezia eskaintzen diete eskolan bertan esku-hartzeari; eskola-komunitatetik hasteari. Eskoletan lantzen diren programen artean Nahiko izenekoa da garrantzitsuena.
- **Esku-hartzerako arloan** egindako azterketari esker, gehien lantzen diren bi esku-hartzerako arloak Kultura eta Gizarteratzearena direla ikus dezakegu (bi arlo horiek direla-eta landutako programa eta helburuak asko dira, eta burututako jarduerak ere askotarikoak dira). Erakundeak genero-ikuspegia ezartzeko, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko politika sektorialak eta zeharkako politikak sustatzeko asmoz ari dira lanean bi arlo horiei dagokienez.
- **Genero-ikuspegia integratzeko** burutzen diren jarduerari dagokienez, erakunde publikoen baitan sentsibilizazio-, informazio- eta jendarteratze-jarduerak izan dira gehien hazi direnak. Trebakuntzaren, baliabideen eta zerbitzuen alorrean, ordea, ez dira aldaketa kuantitatibo eta kualitatibo handiak gertatu. Joera hori, ziur aski, 2007an gertatutako aurrerapen garrantzitsuei esker aldatuko da; bestek beste, Eusko Jaurlaritzako sailletako, eta organismo eta erakunde publikoetako berdintasun-politiken eraginaz eta koordinazioaz arduratzen diren administrazio-unitateak arautzeko Dekretua onartu da; legealdiko Administrazio Orokorrean programazioak egin dira; foru aldundietan berdintasunerako administrazio-unitateak sendotu dira; eta foru administrazioek berdintasunerako tokiko politikak sustatzearen aldeko apustua egin dute.

- **Politika sektoriale** eta **zeharkako politikei** dagokienez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko burututako jarduerak % 34,1 hazi dira 2007an. Eskuhartzerako arlo nagusiak Zerbitzu orokorrei, Kulturari, Gizarteratzeari eta Lanari dagozkionak dira, nahiz eta indarra galtzen ari diren Osasunaren, Hezkuntzaren eta Hirigintza eta Ingurumenaren mesedetan.
- Gutxi gorabehera, jarduera mota horien %20k emakumeen aurkako indarkeriarekin harremana dute, eta portzentaje hori bere horretan mantendu da azken urteetan.
- Horrez gain, lan-ildo garrantzitsu bat emakumeen ahalduntzeari dagokiona da, eta ahalduntze hori hainbat modutara lortu behar da: trebakuntza orokorraren bitartez (garapen pertsonalerako tailerrak, autoestimu eta kultura orokorrekoak, etab.); elkartegintza sustatuz; eta lan-mundurako sarbidea erraztuz; eta emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatuz. Ardatz horri dagokionez, azpimarratu beharra dago Bizkaiko hainbat udalerritan (Basauri, Ermua, Getxo eta Ondarroa) eta Gipuzkoako zenbaitetan (Eibar, Irun, Donostia) Ahalduntze Eskolak jarri direla abian. Eskola horien helburua emakumeen parte-hartze politikoa eta soziala bultzatzea da, horren bitartez, emakumeek politika publikoetan eragina izan dezaten. Jauzi kuantitatibo garrantzitsua da hori, jarduera zehatz eta sakabanatuak egiteari utzi, eta prozesuen azterketa eta sistematizazioa, eta emakumeen ahalduntzea erraztuko duten tresna eta baliabideak sortzera bideratutako ekimena baita. Horrez gain, Emakunde emakume-elkarteen sareak sortzeko lanean ari da hiru herrialdeetan, trebakuntzaren bitartez emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze sozio-politikoa indartzeko asmoz.





eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

## **2. ERANSKINA**

**EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANEAN  
PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDE PUBLIKOEN  
BURUTUTAKO EKINTZAK**

**(2007. URTEA)**

**LEHENDAKARITZA SAILA**  
**(16 EKINTZA)**

**IV. PLANAREN ARDATZA:**

- Mainstreaming-a (n=15; %93,8)
- Ahalduntzea (n=1; %6,3)

**ARLOAK:**

- IV.plana ezartzeko neurriak (n=4; %25)
- Berdintasunerako zerbitzu orokorrak (n=10; %62,5)
- Kultura (n=2; %12,5)

**ESKU-HARTZERAKO PROGRAMAK:**

- Berdintasan-politikak ezarri eta koordinatu ahal izateko, egiturak sortzea eta sustatzea (n=4; %25)
- Administrazioaren baitan berdintasan-politikak garatzea (n=9; %56,3)
- Emakumeen mugimenduetan parte hartzeko prozesuak sustatzea, bai eta mugimendu asoziatiboa oro har sustatzea ere (n=1; %6,3)
- Programa berri bat sortu dute Kulturaren arloan

**HELBURUAK:**

- Berdintasan-politikak ezarri eta koordinatu ahal izateko, egiturak sortu eta bultzatzea (n=4; %25)
- Erakundeari genero-ikuspegia integratzeko ahalmena ematea (n=4; %25)
- Berdintasan-politikiei buruzko interesa eta inplikazioa areagotzea gizartean (n=2; %12,5)
- Berdintasanaren aldeko asoziazio-sarea areagotzea eta indartzea (n=1; %6,3)
- Bi helburu berri zehaztu dira: bata, Berdintasunerako zerbitzu orokorren arloak; eta bestea, Kulturaren arloan.

**ESKU-HARTZERAKO TRESNAK:**

- Jakintzaren sorrera (n=2; %12,5)
- Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea (n=6; %37,5)
- Zerbitzuak eta baliabideak sortzea eta egokitzea (n=4; %25)
- Arauak sortzea eta egokitzea (n=1; %6,3)
- Jarraipenerako mekanismoak sortzea eta egokitzea (n=3; %18,8)

**HARTZAILE-TALDE NAGUSIAK:**

- Eusko Jaurlaritzako sailak (n=2)
- Administrazio orokorrean ardura teknikoa duten pertsonak (n=1)
- Lehendakaritzan ardura teknikoa duten pertsonak (n=6)
- Emakume-elkarteak (n=1)
- Emakumeak oro har(n=1)
- Gizonak oro har (n=1)

**KOSTU EKONOMIKOA:**

- Erakundeak berak jarritakoa: 0,00€
- Beste erakunde batek/batzuek jarritakoa: 0,00€

**LEHENDAKARIORDETZA SAILA  
(2 EKINTZA)**

**IV. PLANAREN ARDATZA:**

- Mainstreaming-a (n=1; % 50)
- Ahalduntzea (n=1; % 50)

**ARLOAK :**

- Berdintasunerako zerbitzu orokorrak (n=2; % 100)

**ESKU-HARTZERAKO PROGRAMAK:**

- Administrazioaren baitan berdintasun-politikak garatzea(n=1)
- Emakumeen mugimenduetan parte hartzeko prozesuak sustatzea, bai eta mugimendu asoziatiboa oro har sustatzea ere (n=1)

**HELBURUAK:**

- Erakundeari genero-ikuspegia integratzeko ahalmena ematea (n=1)
- Helburu berri bat sortu dute Berdintasunerako zerbitzu orokorren arloan

**ESKU-HARTZERAKO TRESNAK:**

- Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea (n=1; % 50)
- Arauak sortzea eta egokitzea (n=1; % 50)

**HARTZAILE-TALDE NAGUSIAK:**

- Lehendakariordetzan, Ogasunean eta Administrazioa Publikoan ardura teknikoak dituzten (n=1)
- 

**KOSTU EKONOMIKOA:**

- Erakundeak berak jarritakoa: 0,00€
- Beste erakunde batek/batzuek jarritakoa: 0,00€

# NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA ITSASMENDIKOI (31 EKINTZA)

## IV. PLANAREN ARDATZA:

- Mainstreaming-a (n=12; % 38,7)
- Ahalduntzea (n=16; % 51,6)
- Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna (n=3; % 9,7)

## ARLOAK :

- IV. Plana ezartzeko neurriak (n=2; % 6,5)
- Kultura (n=1; % 3,2)
- Lana (n=12; % 38,7)
- Hirigintza eta Ingurumena (n=6; % 19,4)
- Berdintasunerako zerbitzu orokorrak (n=7; % 22,6)
- Hezkuntza (n=2; % 6,5)
- Osasuna (n=1; % 3,2)

## ESKU-HARTZERAKO PROGRAMAK:

- Berdintasun-politikak ezarri eta koordinatu ahal izateko, egiturak sortzea eta sustatzea (n=2; % 6,5)
- Administrazioaren baitan berdintasun-politikak garatzea (n=3; % 9,7)
- Emakumeen mugimenduetan parte hartzeko prozesuak sustatzea, bai eta mugimendu asoziatiboa oro har sustatzea ere (n=3; % 9,7)
- Bateragarritasunari eta erantzunkidetasunari buruzko politikak garatzea (n=1; % 3,2)
- Ikastetxeetan hezkidetzak sustatzea (n=1; % 3,2)
- Eskolako denbora eta azpiegiturak egokitzea eta berriz antolatzea (n=1; % 3,2)
- Enplegua lortzeko garaian aukera-berdintasuna izatea (n=7; % 22,6)
- Emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea (n=3; % 9,7)
- Norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko neurriak eta laguntza-zerbitzuak (n=1; % 3,2)
- Batez ere emakumeei eragiten dieten gaixotasunei ekiteko moduak hobetzea (n=1; % 3,2)
- Hirigintzarekin, garraioarekin eta ingurumenarekin loturiko politikekin eta proiektuetan genero-ikuspegia integratzea (n=3; % 9,7)
- Hirigintzaren eta garraioaren plangintza-, diseinu- eta hobekuntza-prozesuetan emakumeek berdintasunez parte hartzea (n=3; % 9,7)
- Bi programa berri sortu dituzte: bata, Kulturaren arloan; eta bestea, Lanaren arloan

## HELBURUAK:

- Berdintasun-politikak ezarri eta koordinatu ahal izateko, egiturak sortzea eta sustatzea (n=2; % 6,5)
- Erakundeari genero-ikuspegia integratzeko ahalmena ematea (n=2; % 6,5)
- Berdintasun-politikei buruzko interesa eta inplikazioa areagotzea gizartearen (n=1; % 3,2)
- Administrazioaren barruko prozesuak areagotzea eta indartzea, politika publikoen definizioan, jarraipenean eta ebaluazioan emakumeek parte har dezaten (n=1; % 3,2)
- Berdintasunaren aldeko asoziazio-sarea areagotzea eta indartzea (n=2; % 6,5)
- Berdintasunerako Legearen 30. artikulua betetzen ez duten hezkuntza-materialak ez erabiltzea (n=1; % 3,2)
- 0-3 urte bitarteko haurrentzako tokiak areagotzea, eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan jangela- eta garraio-zerbitzuen eskaera beteko dela bermatzea (n=1; % 3,2)
- Industria-sektore tradizionaleko osagai teknikodun enpleguetan emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, emakumeen parte-hartzea areagotuta (n=5; % 16,1)
- Enpresa-ekimenak sortzen eta sustatzen dituzten emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, emakumezko sustatzaileen parte-hartzea areagotuta, batik bat, ordezkartza txikiegia duten sektoretan eta lanbidetan (n=2; % 6,5)
- Emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea administrazio publikoetan eta sektore pribatuko enpresetan, okupatutako biztanleriaren proportzio handienak metatzen dituen jarduera-adarrei lehentasuna emanda (n=3; % 9,7)
- Etxeko eta zaintzako lanetan emandako denboran, emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, murrizketa honela zehaztuta: amatasunagatiko/aitatasunagatiko nahiz inoren laguntza behar duten pertsonak zaintzeko baimena edo lizentzia hartzen duten gizonetzkoen kopurua handitzea, bai administrazio publikoan, bai sektore pribatuan (n=1; % 3,2)
- Ingurumenaren alorreko ekintza-planetan genero-ikuspegia txertatzeko ereduak ezartzea (n=2; % 6,5)
- Emakumeen eta emakume-elkarteen parte-hartzea eta parekotasuna bermatzea hirigintzaren eta ingurumenaren eremuetan (batik bat, Tokiko Agenda 21en eta Landa Garapeneko Eskualdeko Programetan) egiten diren parte-hartze prozesuetan. Horrelako prozesurik ez badago, parte-hartze prozesuak egiteari bultzada ematea (n=3; % 9,7)

## ESKU-HARTZERAKO TRESNAK:

- Jakintza sortzea (n=2; 6,5%)
- Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea (n=14; 45,2%)
- Formación (n=4; 12,9%)
- Baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea (n=6; 19,4%)
- Arauak sortzea eta egokitzea (n=4; 12,9%)
- Jarraipen-mekanismoak sortzea eta egokitzea (n=1; 3,2%)

## HARTZAILE-TALDE NAGUSIAK:

- Administrazio orokorra (n=2)
- Udalak (n=9)
- Emakumeen elkarteak (n=8)
- Bigarren Hezkuntzako irakasleak (n=1)
- Berdintasunaren arloko profesionalak (n=1)
- Gizonak (n=1)
- Foru-diputazioak (n=2)
- Elkarte eta erakundeak (n=4)
- Administrazio Orokorrean ardura teknikoak dituzten langileak (n=6)
- Gizarte-zerbitzuetako profesionalak (n=1)
- Landa-guneetako emakumeak (n=13)
- Familiak (n=1)

## KOSTU EKONOMIKOA:

- Erakundeak berak jarritakoa: 186.743,00€
- Beste erakunde batek/batzuek jarritakoa: 0,00€

## KULTURA SAILA (40 EKINTZA)

### IV. PLANAREN ARDATZA:

- Mainstreaming-a (n=22; % 55)
- Ahalduntzea (n=16; % 40)
- Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna (n=2; % 5)

### ARLOAK :

- Berdintasunerako zerbitzu orokorrak (n=9; % 22,5)
- Kultura (n=31; % 77,5)

### ESKU-HARTZERAKO PROGRAMAK:

- Administrazioaren baitan berdintasun-politikak garatzea (n=8; % 20)
- Bateragarritasunari eta erantzunkidetasunari buruzko politikak garatzea (n=1; % 2,5)
- Kulturaren genero-ikuspegia integratzea (n=14; % 35)
- Emakumeek presentzia eta parte-hartzea izatea kiroletan (n=9; % 22,5)
- Emakumeek presentzia eta parte-hartzea izatea kulturaren eta artearen (n=6; % 15)
- Emakumeek presentzia eta parte-hartzea izatea komunikabideetan (n=1; % 2,5)
- Erantzunkidetasunaren kultura eta zaintzaren etika sustatzea (n=1; % 2,5)

### HELBURUAK:

- Erakundeari genero-ikuspegia integratzeko ahalmena ematea (n=7; % 17,5)
- Berdintasun-politikei buruzko interesa eta inplikazioa areagotzea gizartearen (n=1; % 2,5)
- Gizarte-antolamenduaren aldaketari lagunduko dioten tresnak sortzea, emakumeen eta gizonen arteko erantzunkidetasunaren alde, eta norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egitearen alde (n=1; % 2,5)
- Kultura-jarduerak genero-ikuspegiari jarraiki planifikatzen eta betearazten dituzten administrazioetako kultura-arloen kopurua handitzea (n=14; % 35)
- Bereizketa bertikala eta horizontala murriztea kirol-arlo eta erakunde publiko eta pribatuaren (n=4; % 10)
- Emakumeen eta gizonen kirol-praktika dibertsifikatzea, kirol maskulinizatueta emakumeen sarbidea eta kirol feminizatueta gizonen sarbidea ahalbidetzeko (n=3; % 7,5)
- Kirola egiten duten emakumeen proportzioa areagotzea, baita haien interesen arabera kirol-praktika hautatzeko aukerak ere (n=2; % 5)
- Emakumeen kulturaren eta artearen arloko sorkuntza handitzea, baita gizartearen ikuspegi ez-sexista sustatzen duena ere (n=6; % 15)
- Komunikabideetako saioretan emakumeen presentzia areagotzea, politikaren, gizartearen eta kulturaren arloko jardueretan aukera-berdintasunean duten presentzia agerian uztearen eta haien ahalduntzeari laguntzearen (n=1; % 2,5)
- Erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika sustatzen dituzten gizartearen eta kulturaren arloko guneak areagotzea (n=1; % 2,5)

### ESKU-HARTZERAKO TRESNAK:

- Jakintza sortzea (n=8; % 20)
- Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea (n=5; % 12,5)
- Prestakuntza (n=4; % 10)
- Baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea (n=10; % 25)
- Arauak sortzea eta egokitzea (n=10; % 25)
- Jarraipen-mekanismoak sortzea eta egokitzea (n=3; % 7,5)

### HARTZAILE-TALDE NAGUSIAK:

- Elkarrekin eta erakundeak (n=5)
- Administrazioan ardura politikoa duten pertsonak (n=1)
- Administrazio orokorrean ardura teknikoa duten pertsonak (n=6)
- Kulturaren arloko profesionalak (n=2)
- Oro har, gazteak, emakumeak eta gizonak (n=3)

### KOSTU EKONOMIKOA:

- Erakundeak berak jarritakoa: 217.000€
- Beste erakunde batetik/batzuetatik eratorritakoa: 0,00€

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA (35 EKINTZA)

### IV. PLANAREN ARDATZA:

- Mainstreaming-a (n=15; % 42,9)
- Ahalduntzea (n=8; % 22,9)
- Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna (n=4; % 11,4)
- Emakumeen aurkako indarkeria (n=8; % 22,9)

### ARLOAK :

- IV. Plana ezartzeko neurriak (n=1; % 2,9)
- Berdintasunerako zerbitzu orokorrak (n=5; 14,3%)
- Kultura (n=1; 2,9%)
- Hezkuntza (n=27; 77,1%)
- Lana (n=1; 2,9%)

### ESKU-HARTZERAKO PROGRAMAK:

- Berdintasun-politikak ezarri eta koordinatu ahal izateko, egiturak sortzea eta sustatzea (n=1; % 2,9)
- Administrazioaren baitan berdintasun-politikak garatzea (n=5; % 14,3)
- Emakumeek presentzia eta parte-hartzea izatea kiroletan (n=1; % 2,9)
- Ikastetxeetan hezkidetzak sustatzea (n=7; % 20)
- Hezkuntza-sisteman, erabakiak hartzeko eremuetarako sarbidea izatea (n=4; % 11,4)
- Jakintza ez-sexista sortzea eta horretaz jabetzea (n=3; % 8,6)
- Ikasleengan erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika sustatzea (n=1; % 2,9)
- Eskolako denbora eta azpiegiturak egokitzea eta berriz antolatzea (n=2; % 5,7)
- Eskola-komunitateko indarkeriaren aurrean arreta eta bitartekotza egitea (n=7; % 20)
- Enplegu-zerbitzuak emakumeen eta gizonen berdintasunera egokitzea (n=1; % 2,9)
- Hiru programa berri sortu dituzte Hezkuntzaren arloan

### HELBURUAK:

- Berdintasun-politikak ezarri eta koordinatu ahal izateko, egiturak sortzea eta sustatzea (n=1; % 2,9)
- Erakundeari genero-ikuspegia integratzeko ahalmena ematea (n=4; % 11,4)
- Emakumeen eta gizonen kirol-praktika dibertsifikatzea, kirol maskulinizatueta emakumeen sarbidea eta kirol feminizatueta gizonen sarbidea ahalbidetzeko (n=1; % 2,9)
- Lehen eta Bigarren Hezkuntzako, eta Helduen Hezkuntzako ikastetxeen urteko programazioetan hezkidetzak integratzea (n=5; % 14,3)
- Berdintasunerako Legearen 30. artikulua betetzen ez duten hezkuntza-materialak ez erabiltzea (n=2; % 5,7)
- Unibertsitate-sistemaren erabakiak hartzeko eremurako sarbidean, sexuen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea (n=2; % 5,7)
- Bigarren Hezkuntzako irakasleen erabakiak hartzeko eremurako sarbidean, sexuen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea (n=1; % 2,9)
- Haur Hezkuntzaren eta Lehen Hezkuntzaren eremuetan, sexuen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea (n=1; % 2,9)
- Neska-mutilek ikasketak hautatzean sexuen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, etorkizuneko aukera hobekien eskaintzen dituzten ikasketei eta tarte handiena dutenei lehentasuna emanda (n=3; % 8,6)
- Etxeko eta zaintzako lanetan erantzunkidetasuna areagotzea nesketan eta mutiletan (n=1; % 2,9)
- 0-3 urte bitarteko haurtzako tokiak areagotzea, eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan jangela- eta garraio-zerbitzuen eskaera beteko dela bermatzea (n=2; % 5,7)
- Ikastetxeetan etxeko indarkeria-kasu guztiak atzematea, eta adostutako protokolo eraginkorrari jarraiki, kasu guztiei erantzuna ematea (n=3)
- Indarkeriaren prebentziorako programa esperimentalak egitea ikastetxeetan, berdintasun oinarritutako bizikidetzak eta lankidetzak lortzeko harremanen kultura aldatuta (n=4; % 11,4)
- Enplegu-zerbitzuetan genero-ikuspegia integratzea (n=1; % 2,9)

### ESKU-HARTZERAKO TRESNAK:

- Jakintza sortzea (n=10; % 28,6)
- Prestakuntza (n=4; % 11,4)
- Arauak sortzea eta egokitzea (n=3; % 8,6)
- Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea (n=9; % 25,7)
- Baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea (n=8; % 22,9)
- Jarraipen-mekanismoak sortzea eta egokitzea (n=1; % 2,9)

### HARTZAILE-TALDE NAGUSIAK:

- Hezkuntzan, Unibertsitateetan eta Ikerketan, eta EHU arduraren teknikoak (n=4)
- Hezkuntzako profesionalak (n=16)
- Emakumeak oro har (n=2)
- Gizonak oro har (n=2)
- Familiak oro har (n=5)

### KOSTU EKONOMIKOA:

- Erakundeak berak jarritakoa: Ez da horri buruzko informaziorik ematen
- Beste erakunde batek/batzuek jarritakoa: Ez dago horri buruzko informaziorik ematen

**OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA**  
**(7 EKINTZA)**

**IV. PLANAREN ARDATZA:**

- Mainstreaming-a (n=2; % 28,6)
- Ahduntzea (n=2; % 28,6)
- Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna (n=1; % 14,3)
- Emakumeen aurkako indarkeria (n=2; % 28,6)

**ARLOAK :**

- Berdintasunerako zerbitzu orokorrak (n=1; % 14,3)
- Lana (n=6; % 85,7)

**ESKU-HARTZERAKO PROGRAMAK:**

- Administrazioaren baitan berdintasun-politikak garatzea (n=1; % 14,3)
- Enplegua lortzeko garaian aukera-berdintasuna izatea (n=1; % 14,3)
- Emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea (n=1; % 14,3)
- Norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko neurriak eta laguntza-zerbitzuak (n=1; % 14,3)
- Lanean, jazarpen sexistaren prebentzioa eta desagerraraztea (n=1; % 14,3)
- Programa berri bat sortu dute Lanaren arloan

**HELBURUAK:**

- Erakundeari genero-ikuspegia integratzeko ahalmena ematea (n=1; % 14,3)
- Emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea administrazio publikoetan eta sektore pribatuko enpresetan, okupatutako biztanleriaren proportzio handienak metatzen dituen jarduera-adarrei lehenetsua emanda (n=1; % 14,3)
- Etxeko eta zaintzako lanetan emandako denboran, emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, murrizketa honela zehaztuta: amatasunagatiko/aitatasunagatiko nahiz inoren laguntza behar duten pertsonak zaintzeko baimena edo lizentzia hartzen duten gizonezkoen kopurua handitzea, bai administrazio publikoan, bai sektore pribatuan (n=1; % 14,3)
- Jazarpen sexistari aurre egitearren, prebentzioko eta jarduteko protokoloak ezartzea administrazio publikoetan eta sektore pribatuko enpresetan, eta protokolo horiek biztanleriaren proportzio handieneko jarduera-adarren arabera banatzea, jazarpen sexista hori agerian uzteko eta murrizteko (n=2; % 28,6)
- Bi helburu berri sortu dituzte Lanaren arloan

**ESKU-HARTZERAKO TRESNAK:**

- Jakintza sortzea (n=3; % 42,9)
- Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea (n=1; % 14,3)
- Baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea (n=2; % 28,6)
- Jarraipen-mekanismoak sortzea eta egokitzea (n=1; % 14,3)

**HARTZAILE-TALDE NAGUSIAK:**

- Administrazioan ardura teknikoa duten pertsonak (n=3)

**KOSTU EKONOMIKOA:**

- Erakundeak berak jarritakoa: 8.400.002€
- Beste erakunde batek/batzuek jarritakoa: 0,00€

## **INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA (8 EKINTZA)**

### **IV. PLANAREN ARDATZA:**

- Mainstreaming-a (n=4)
- Ahalduntzea (n=4)

### **ARLOAK :**

- IV. Plana ezartzeko neurriak (n=1; % 12,5)
- Berdintasunerako zerbitzu orokorrak (n=3; % 37,5)
- Hezkuntza (n=1; % 12,5)
- Lana (n=3; % 37,5)

### **ESKU-HARTZERAKO PROGRAMAK:**

- Berdintasun-politikak ezarri eta koordinatu ahal izateko, egiturak sortzea eta sustatzea (n=1; 12,5%)
- Administrazioaren baitan berdintasun-politikak garatzea (n=3; 37, % 5)
- Hezkuntza-sisteman, erabakiak hartzeko eremuetarako sarbidea izatea(n=1; 12,5%)
- Enplegua lortzeko garaian aukera-berdintasuna izatea (n=3; % 37,5)

### **HELBURUAK:**

- Berdintasun-politikak ezarri eta koordinatu ahal izateko, egiturak sortzea eta sustatzea (n=1; % 12,5)
- Unibertsitate-sistemaren erabakiak hartzeko eremurako sarbidean, sexuen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea (n=1; % 12,5)
- Teknologiaren eta jakintzaren arloko osagai handia duten puntako sektoreetako enplegu teknikoetan emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, emakumeen parte-hartzea areagotuta (n=1; % 12,5)
- Industria-sektore tradizionalako osagai teknikodun enpleguetan emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, emakumeen parte-hartzea areagotuta (n=2; % 25)

### **ESKU-HARTZERAKO TRESNAK:**

- Jakintza sortzea (n=2; % 25)
- Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea (n=4; % 50)
- Baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea (n=1; % 12,5)
- Jarraipen-mekanismoak sortzea eta egokitzea (n=1; % 12,5)

### **HARTZAILE-TALDE NAGUSIAK:**

- Eusko Jaurlaritzaren sailak (n=1)
- Enpresaburuen elkarteak (n=2)
- Enpresak (n=1)
- Administrazioan ardura teknikoa duten pertsonak (n=1)
- Nerabeak (n=1)

### **KOSTU EKONOMIKOA:**

- Erakundeak berak jarritakoa: 46.000.002€
- Beste erakunde batek/batzuek jarritakoa: 6.000,00€



## HERRIZAINGO SAILA (30 EKINTZA)

### IV. PLANAREN ARDATZA:

- Mainstreaming-a (n=5; % 16,7)
- Emakumeen aurkako indarkeria (n=25; % 83,3)

### ARLOAK :

- IV. Plana ezartzeko neurriak (n=1; % 3,3)
- Berdintasunerako zerbitzu orokorrak (n=12; % 40)
- Gizarteratzea (12; % 40)
- Hirigintza eta Ingurumena (n=1; % 3,3)

### ESKU-HARTZERAKO PROGRAMAK:

- Berdintasun-politikak ezarri eta koordinatu ahal izateko, egiturak sortzea eta sustatzea (n=1; % 3,3)
- Administrazioaren baitan berdintasun-politikak garatzea (n=4; % 13,3)
- Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako politikak garatzea (n=8; 26,7%)
- Tratu txarren eta/edo sexu-erasoen biktima diren emakumeei emandako arreta hobetzea (n=12; % 40)
- Emakumeen segurtasuna eta segurtasun-sentsazioa hobetzea (n=5; % 16,7)

### HELBURUAK:

- Berdintasun-politikak ezarri eta koordinatu ahal izateko, egiturak sortzea eta sustatzea (n=1; % 3,3)
- Erakundeari genero-ikuspegia integratzeko ahalmena ematea (n=4; % 13,3)
- Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borrokan administrazioaren koordinazioa indartzea eta hobetzea (n=5; % 16,7)
- Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko sentsibilizazio-kanpainak egitea (n=3; % 10)
- Indarkeria-zikloaren kasuak gero eta goizago atzematea (n=7; % 23,3)
- Tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei arreta, asistentzia eta babesa emateko eskaerei koordinazioaren, kalitatearen eta eraginkortasunaren irizpideen bidez erantzutea. Horretarako, *etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko tokiko protokoloak* ezarriko dira, EAEko udalerrietan (n=5; % 16,7)
- Emakumeak segurtasunik gabe sentitzen diren tokiak identifikatzea udalerrietan, neutralizatzeko neurriak ezartzearen. Emakumeak segurtasunik gabe sentitzen diren toki berriak ez sortzeko irizpideak ezartzea (n=5; % 16,7)

### ESKU-HARTZERAKO TRESNAK:

- Jakintza sortzea (n=13; % 43,3)
- Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea (n=8; % 26,7)
- Baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea (n=4; % 13,3)
- Arauak sortzea eta egokitzea (n=4; % 13,3)
- Jarraipen-mekanismoak sortzea eta egokitzea (n=1; % 3,3)

### HARTZAILE-TALDE NAGUSIAK:

- Administrazio Orokorrean ardura politikoa duten pertsonak (n=1)
- Herrizaingo Sailean ardura teknikoa duten pertsonak (n=1)
- Elkartek eta erakundeak (n=1)
- Poliziako profesionalak (n=2)
- Tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeak (n=4)
- Emakumeak (n=6)
- Gizonak (n=2)

### KOSTU EKONOMIKOA:

- Erakundeak berak jarritakoa: 2.211.243,00€
- Beste erakunde batek/batzuek jarritakoa: 0,00€

## JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA EGAILAN (26 EKINTZA)

### IV. PLANAREN ARDATZA:

- Mainstreaming-a (n=13; % 50)
- Ahalduntzea (n=5; % 19,2)
- Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna (n=3; % 19,2)
- Emakumeen aurkako indarkeria (n=5; % 19,2)

### ARLOAK :

- Berdintasunerako zerbitzu orokorrak (n=3; % 11,5)
- Hezkuntza (n=1; % 3,8)
- Lana (n=17; % 65,4)
- Gizarteratzea (n=5; % 19,2)

### ESKU-HARTZERAKO PROGRAMAK:

- Administrazioaren baitan berdintasun-politikak garatzea (n=2; % 7,7)
- Emakumeen mugimenduetan parte hartzeko prozesuak sustatzea, bai eta mugimendu asoziatiboa oro har sustatzea ere (n=1; % 3,8)
- Eskola-elkartearen aurrean arreta eta bitartekotza (n=1; % 3,8)
- Enplegu-zerbitzuak emakumeen eta gizonen berdintasunera egokitzea (n=10; % 38,5)
- Enplegua lortzeko garaian aukera-berdintasuna izatea (n=1; % 3,8)
- Emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea (n=2; % 7,7)
- Norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko neurriak eta laguntza-zerbitzuak (n=3; % 11,5)
- Lanean, jazarpen sexistaren prebentzioa eta desagerraraztea (n=1; % 3,8)
- Genero-ikuspegia integratzea (n=1; % 3,8)
- Askotariko diskriminazioa pairatzen duten eta bazterketako arriskuan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzea (n=1; % 3,8)
- Tratu txarren eta/edo sexu-erasoen biktima diren emakumeei emandako arreta hobetzea

### HELBURUAK:

- Erakundeari genero-ikuspegia integratzeko ahalmena ematea (n=2; % 7,7)
- Berdintasunaren aldeko asoziazio-sarea areagotzea eta indartzea (n=1; % 3,8)
- Indarkeriaren prebentziorako programa esperimentalak egitea ikastetxeetan, berdintasunean oinarritutako bizikidetzak eta lankidetzak lortzeko harremanen kultura aldatuta (n=1; % 3,8)
- Enplegu-zerbitzuetan genero-ikuspegia integratzea (n=10; % 38,5)
- Enpresa-ekimenak sortzen eta sustatzen dituzten emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, emakumezko sustatzaileen parte-hartzea areagotuta, batik bat, ordezkariak txikiegia duten sektoretan eta lanbidetan (n=1; % 3,8)
- Sektore publikoan eta sektore pribatuan, erantzukizun handiko postuetan emakumeen presentzia areagotzea (n=2; % 7,7)
- Etxeko eta zaintzako lanetan emandako denboran, emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, murrizketa honela zehaztuta: amatasunagatik/aitatasunagatik nahiz inoren laguntza behar duten pertsonak zaintzeko baimena edo lizentzia hartzen duten gizonen kopurua handitzea, bai administrazio publikoan, bai sektore pribatuan (n=3; % 11,5)
- Administrazio publikoetako gizarte-ekintzako arloetako diagnostikoetan, planifikazioetan, esku-hartzeetan eta ebaluazioetan genero-ikuspegia integratzea (n=1; % 3,8)
- Pobrezia ekonomikoko egoeran egonik, bazterketa-arriskuan daudenentzako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzearen (n=1; % 3,8)
- Indarkeria-zikloaren kasuak gero eta goizago atzematea (n=1; % 3,8)
- Tratu txarren eta sexu-erasoen biktimari arreta, asistentzia eta babesa emateko eskaerei koordinazioaren, kalitatearen eta eraginkortasunaren irizpideen bidez erantzutea. Horretarako, *etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko tokiko protokoloak* ezarriko dira, EAEko udalerrietan (n=2; % 7,7)

### ESKU-HARTZERAKO TRESNAK:

- Jakintza sortzea (n=4; % 15,4)
- Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea (n=1; % 3,8)
- Prestakuntza (n=2; % 7,7)
- Baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea (n=11; % 42,3)
- Arauak sortzea eta egokitzea (n=6; % 23,1)
- Jarraipen-mekanismoak sortzea eta egokitzea (n=2; % 7,7)

### HARTZAILE-TALDE NAGUSIAK:

- Administrazio Orokorrean ardura politikoa duten pertsonak (n=2)
- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailean ardura teknikoa duten pertsonak (n=7)
- Enpleguaren eta prestakuntzaren arloko profesionalak (n=5)
- Tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeak (n=3)
- Emakume-elkarteak (n=1)
- Haurrak eta nerabeak oro har (n=1)
- Guraso-elkarteak (n=1)
- Emakumeak eta gizonak oro har (n=2)

### KOSTU EKONOMIKOA:

- Erakundeak berak jarritakoa: 1.473.600,00€
- Beste erakunde batek/batzuek jarritakoa: ez da horri buruzko informaziorik ematen

## LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA (19 EKINTZA)

### IV. PLANAREN ARDATZA:

- Mainstreaming-a (n=12; % 63,2)
- Ahalduntzea (n=6; % 31,6)
- Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna (n=1; % 5,3)

### ARLOAK :

- IV. Plana ezartzeko neurriak (n=1; % 5,3)
- Berdintasunerako zerbitzu orokorrak (n=6; % 31,6)
- Hezkuntza (n=3; % 15,8)
- Lana (n=2; % 10,5)
- Hirigintza eta Ingurumena (n=7; % 36,8)

### ESKU-HARTZERAKO PROGRAMAK:

- Berdintasun-politikak ezarri eta koordinatu ahal izateko, egiturak sortzea eta sustatzea (n=1; % 5,3)
- Administrazioaren baitan berdintasun-politikak garatzea (n=5; % 26,3)
- Bateragarritasunari eta erantzunkidetasunari buruzko politikak garatzea (n=1; % 5,3)
- Ikastetxeetan hezkidetzak sustatzea (n=3; % 15,8)
- Emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea (n=2; % 10,5)
- Hirigintzarekin, garraioarekin eta ingurumenarekin loturiko politiketan eta proiektuetan genero-ikuspegia integratzea (n=3; % 15,8)
- Hirigintzaren eta garraioaren plangintza-, diseinu- eta hobekuntza-prozesuetan emakumeek berdintasunez parte hartzea (n=4; % 21,1)

### HELBURUAK:

- Berdintasun-politikak ezarri eta koordinatu ahal izateko egiturak sortzea eta sustatzea (n=1; % 5,3)
- Erakundeari genero-ikuspegia integratzeko ahalmena ematea (n=5; % 26,3)
- Erronkei eta aurrerapenei buruzko lanean gizartearen ezagutza, inplikazioa eta parte-hartzea areagotzea, erantzunkidetasuna lortzeko (n=1; % 5,3)
- Lehen eta Bigarren Hezkuntzako, eta Helduen Hezkuntzako ikastetxeen urteko programazioetan hezkidetzak integratzea (n=1; % 5,3)
- Berdintasunerako Legearen 30. artikulua betetzen ez duten hezkuntza-materialak ez erabiltzea (n=2; % 10,5)
- Sektore publikoan eta sektore pribatuan, erantzukizun handiko postuetan emakumeen presentzia areagotzea (n=2; % 10,5)
- Hirigintzako ekintza-planetan genero-ikuspegia txertatzeko tresna ezartzea (n=2; % 10,5)
- Ingurumenaren alorreko ekintza-planetan genero-ikuspegia txertatzeko ereduak ezartzea (n=1; % 5,3)
- Emakumeen eta emakume-elkarteen parte-hartzea eta parekotasuna bermatzea hirigintzaren eta ingurumenaren eremuetan (batik bat, Tokiko Agenda 21 en eta Landa Garapenerako Eskualdeko Programetan) egiten diren parte-hartze prozesuetan. Horrelako prozesurik ez badago, parte-hartze prozesuak egiteari bultzada ematea (n=1; % 5,3)
- Herritarrek parte hartzeko prozesuak abiaraztea, garraio publikoaren plangintzan emakumeen eta gizonen presentzia parekoa izanik (n=1; % 5,3)
- Gero eta emakume gehiagok hirigintzaren, garraioaren eta ingurumenaren alorretako kargu publikoak eta teknikari karguak izatea, gutxienez 40-60 proportzioa lortu arte (n=2; % 10,5)

### ESKU-HARTZERAKO TRESNAK:

- Jakintza sortzea (n=3; % 15,8)
- Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea (n=7; % 36,8)
- Prestakuntza (n=2; % 10,5)
- Baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea (n=2; % 10,5)
- Arauak sortzea eta egokitzea (n=4; % 21,1)
- Jarraipen-mekanismoak sortzea eta egokitzea (n=1; % 5,3)

### HARTZAILE-TALDE NAGUSIAK:

- Foru Aldundiak (n=1)
- Udalak (n=1)
- Enpresak (n=2)
- Enpresaburuen elkarteak (n=1)
- Administrazioan ardura politikoa duten pertsonak (n=1)
- Administrazioan ardura teknikoa duten pertsonak (n=5)
- Biztanleria oro har (n=2)

### KOSTU EKONOMIKOA:

- Erakundeak berak jarritakoa: 41.453,15€
- Beste erakunde batek/batzuek jarritakoa: 0,00€

## OSASUN SAILA OSAKIDETZA (68 EKINTZA)

### IV. PLANAREN ARDATZA:

- Mainstreaming-a (n=37; % 54,4)
- Ahalduntzea (n=23; % 33,8)
- Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna (n=3; % 4,4)
- Emakumeen aurkako indarkeria (n=5; % 7,35)

### ARLOAK :

- IV. Plana ezartzeko neurriak (n=2; % 2,9)
- Berdintasunerako zerbitzu orokorrak (n=9; % 13,2)
- Gizarteratzea (n=1; % 1,5)
- Osasuna (n=56; % 82,35)

### ESKU-HARTZERAKO PROGRAMAK:

- Berdintasun-politikak ezarri eta koordinatu ahal izateko, egiturak sortzea eta sustatzea (n=2)
- Administrazioaren baitan berdintasun-politikak garatzea (n=7)
- Emakumeen mugimenduetan parte hartzeko prozesuak sustatzea, bai eta mugimendu asoziatibo oro har sustatzea ere (n=1; % 8,3)
- Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko politikak garatzea (n=1; % 8,3)
- Askotariko diskriminazioa pairatzen duten eta bazterketako arriskuan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzea (n=1; % 8,3)
- Osasun-sisteman genero-ikuspegia integratzea (n=14; % 41,7)
- Batez ere emakumeei eragiten dieten gaixotasunei ekiteko moduak hobetzea (n=13; % 25)
- Ugalketa-osasunari dagokionez, emakumeek erabaki gehiago hartzea (n=19; % 8,3)
- Osasun-arazoak dituztenen zaintzak eremu pribatuan eragindako lan-zama murriztea (n=2)
